

**ANDOINGO EMAKUMEEN LANA,
OGIBIDEAK ETA PROTAGONISMO SOZIALA
(1900-1975)**

Iñigo IMAZ MARTÍNEZ

Eskuartean duzun lan honetan izkutuan geratu diren emakumeen berri eman nahi izan dugu. Guk planteiatzen duguna hurbilketa ariketa bat da. Egia da azken urteotan Andoainen historia berreskuratze lanetan aurrerapen handiak egin direla, emakumeen historia eta emakumeek historian izandako papera nolabait jasotzen hasia dago. Emakume aipatuak, aurreko lanetan aipaturikoak ez ditugu berriro aipatu nahi izan, kasu batzuetan ezik.

Gure ustez garrantzitsua da normalean aipatzen ez diren emakumeen izenak ere plazaratzea: tabernari, dendari, inude, langile, baserritar, esneketariak... Baina baita, jabe, alargun, edo bestelakoak.

Zentzu hortan, emakumeak aipatzea, historia idatzian, historia ofizialean sartzea dela uste dugu. Izan zirenen izenak berreskuratu, garai bateko historia ofiziletan lekurik izan ez zuten emakume ahaztuen lekuko gisa.

Emakumeak, lana(k), lanbidea(k), ogibidea(k), protagonismo soziala, Andoain, generoa

El trabajo que tienes entre manos pretende dar a conocer a aquellas mujeres que han quedado ocultas por la historia oficial. Lo que planteamos es un ejercicio de aproximación. Es cierto que en los últimos años, los principales avances se han hecho en la historia social de recuperación de la historia de las mujeres y su papel en la historia está siendo reescrita.

Creemos que es importante contar con los nombres de las mujeres que por lo general no se incluyen en el relato oficial. Dueñas de bares, tiendas, niñeras, trabajadoras, agricultoras, lecheras... También propietarias, rentistas, viudas, u otras.

En este sentido, la referencia a las mujeres, creemos que supone la inclusión de las mismas en la historia oficial, en la historia escrita. Los nombres de las que fueron, testimonio de las mujeres olvidadas que no tuvieron lugar en la historia oficial del lugar en el que vivieron.

Mujeres, trabajo(s), oficio(s), protagonismo social, Andoain, género

Le travail que vous avez à portée de main cherche à mettre en évidence les femmes qui ont été cachés par l'histoire officielle. Il est un exercice de l'approximation. Il est vrai que ces dernières années, d'importants progrès ont été réalisés dans l'histoire sociale de la reprise de l'histoire des femmes et du rôle des femmes dans l'histoire, il est une graine.

Nous croyons qu'il est important d'avoir les noms des femmes qui ne sont généralement pas inclus dans le compte rendu officiel. Les propriétaires de bars, magasins, nounous, les travailleurs, les agriculteurs, le lait... Aussi propriétaires, rentiers, veuves ou autrement.

À cet égard, la référence aux femmes, de mettre leurs noms par écrit, nous pensons que l'inclusion de l'histoire officielle. Les noms des rescapés, l'histoire officielle de l'endroit dans lequel ils vivaient n'avaient pas oublié les femmes en tant que témoins d'une époque.

Femme, travail, ofices, protagonisme social, Andoain, genre

ESKEMA

SARRERA.

1. ANDOAINGO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA ETA EMAKUMEAK.

- 1.1. Industrializazioaren eragina Andoainen.
- 1.2. Emakumeen partehartzea. Lanbide eta ogibideak.
- 1.3. Emakumeen protagonismo soziala Andoainen.

2. ANDOAIN ERREPUBLIKA GARAIAN.

- 2.1. Emakumeak plazara!
- 2.2. Aurreko urteetako joerak errepikatuz.

3. FRANKISMOAREN ATZERAP AUSUA.

- 3.1. Gerra zibila (1936-1939) eta lehen frankismoa.
- 3.2. Andoain frankismoaren menpe.
- 3.3. Andoaingo emakumeak gerra eta errepresioaren aurrean.
- 3.4. Frankismoaren emakumea: etxeoandrea eta ama.
- 3.5. *Sección Femenina*. Emakumearen protagonismo soziala erregimen berrian.

4. ANDOAINGO EMAKUMEAK 50, 60 eta 70. HAMARKADETAN.

- 4.1. Andoaingo herriaren eraldaketa prozesua.
- 4.2. Andoaingo emakumeei buruzko zenbait datu.

5. ONDORIOAK.

6. ITURRIAK.

- 6.1. Iturri dokumentalak.
- 6.2 Bibliografia.

SARRERA.

Eskuartean duzun artikuluak XX. mendeko Andoaingo emakume batzuen historia-
ra hurbiltzeko saiakera bat izan da. Aurretik doa esatea, artikulu bati dagokion mugak
behartuta, hainbat emakumeren aipamena mugatzera emana gaituela. Horrela Ama
Kandida, Ama Ambrosia, *Algodonerako* emakume langileak, herriko emagin ezaguna
izandako Carmen Alcacera eta ikastolaren sortzaileen arteko Juana Bautista Alkainen
kasuak oso azaletik landu ditugula adierazi behar dugu.

Gure asmoa emakumeen memoriaren berreskuratze prozesuan oinarrikoa iruditu
zaigun ikerketa burutzea izan da. Beraz, aipatu ditugun emakume horiek, Andoainen
hala nolako errekonozimendua izanik, ez zaigu zilegia iruditu haien biografietan zentra-
tzea, beste emakumeentzako lekurik geratuko ez zelakoan.

Lan honek lau atal nagusi ditu, besteak ondorioak eta bibliografia direlarik. Lau
atalek hala nolako kronologia bat markatu nahi izan dute, baina gure lanarentzako ez
zen hain garrantzitsua. Izan ere, emakumeen lanbide, lan eta ogibideek eredu konstan-
te batzuk mantendu dituzte orain dela gutxi arte. Esneketariak izan ziren 1900 urtean,
baina baita 60. hamarkadan edo, kasu batzutan, 90. hamarkadara arte. Kasu batzutan
garraibidea aldatzen zen, astoa beharrean, tren, autobusa edota kotxea; beste batzu-
tan, aldiz, astoak ere bizirautea lortu du ia mende amaiera bitartean.

Emakumeen protagonismoak ere aldaketa gutxi izan ditu 100 urtetan, 60. hamarka-
datik aurrera egiazko iraultza bat bizi izan baitugu gure gizartean. Genero ikuspegiare-
kin egiten ari diren lanek, geroz eta gehiago, izkutatua egon den historia berreskuratzen
laguntzen digute.

Amaitzeko, ezin ahaztu artikulu hau Andoaingo Udalaren laguntzari esker idatzi ahal
izan dugula. Eskertza honetan, bereziki eskertu nahi dut Andoaingo Marta Trutxuelo
eta Karmele Otaegiren laguntza, eta pazientzia! Haien partehartzerik gabe ikerketa hau
burutzea ezinezkoa izango baitzen.

“...Mi misión en la vida estaba cumplida. No podía ni debía aspirar a más. El fin de la mujer, la única salida, su única aspiración, era el matrimonio, y la continuación de la vida triste, gris, penosa, esclava de nuestras madres, sin más ocupación que parir y criar...”.

Dolores Ibarruri, *Pasionaria*¹

1. ANDOINGO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA ETA EMAKUMEAK.

Andoaingo industrializazioa goiztiarra izan zen, eta industrializazio prozesu orok eragiten duen eraldaketa prozesuaren baitan, Andoaingo gizarteak jasan zituen aldaketak, 1850tik aurrera igertu daitezke². Emakumearen garrantzia lehen industrializazioan nabarmena izan zen Andoainen hasieratik.

1907an, adibidez, *La Algodonera Guipuzcoana* lantegiak 249 emakumeri ematen zien lan lantegian bertan. Gizonezko langileak, aldiz, 186 ziren³. Enpresa hau zen Andoainen garrantzia handiena zuena eta, noski, udalerriko gizartean eta herritarrengan eragin nabarmenena izan zuena. 1868-1910 urte bitartean oparotasun garaia bizi zuen enpresak herritarren ogibidea bermatu eta pentsamoldea egituratu zuen⁴. Urte berean, agiri ofizialen arabera, beste lantegi batzuk zeuden herrian errotuta:

1 IBARRURI, Dolores: *Memorias*, Planeta, Barcelona, 1985.

2 BENGOTXEA, Javier: “La incorporación de Andoain al moderno proceso de industrialización. Apuntes de una evolución 1850-1925”, *Leyçaur*, 1, 1990.

3 Datu hauek Erremorma Sozialetarako Herriko Batzarrak egin zuen bisita batean bildu ziren, 1907ko abuztuaren 25ean. Andoaingo Udala Agiritegia (A.U.A.), 39 H/4, 1900-1924.

4 GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima; MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Mujeres de la Algodonera, 1857-1965 – Algodonera-ko emakumeak, 1857-1965*. Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua-Gipuzkoako Foru Aldundia; Hezkuntza eta Kultura Lansaila, eta Gizarte Zerbitzuetarako Lansaila-Andoaingo Udala; eta, Andoaingo Udalerri Biltzarra-Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Andoain, 2007, 4-5 or.

1. TAULA
LANTEGIAREN IZEN SOZIALA ETA LANGILEAK.

LANTEGIAREN IZENA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
<i>Sociedad Anónima La Algodonera Guipuzcoana</i>	186	249	435
<i>Sociedad L. Calisalvo y Compañía</i>	30	0	30
<i>Sociedad Anónima Hidroeléctrica Ibérica</i>	15	0	15
<i>Sociedad Moleda, Olariaga y Compañía</i>	8	0	8
<i>Jose Moleda</i>	2	0	2
<i>Sociedad Moleda, Olariaga y Compañía-Central de Santa Cruz</i>	2	0	2
<i>Andoaingo Udala</i>	2	0	2

Iturria: egileak moldatuta, A.U.A., 39H/4 (1900-1924).

Guztira langile industrial hauek 494 ziren, horietatik erdia baino gehiago emakumeak zirelarik. Datu hauek ikusita, uler daiteke *Algodonera* lantegiak zuen pisua eta entzutea herrian. *Algodonera*-n kotoizko estanpatuak egiten ziren. Aldiz, *Calisalvo*-ren lantegian paper oreka eta kartoia egiten zituzten. *Moleda, Olariaga y Compañía*-ko 8 langileak zerrategian eta egur-biltegian aritzen ziren, eta Jose Moledarenean arto ehotzeaz aparte, elektrizitatea ekoizten zen, beste bi zentral elektriko pribatuetan nahiz udalak zituenetan bezala. Udalaren kasuan, propio zituen bi zentralak argindarra sortzeko erabiltzen zituen. Estatistika honek, lokal itxian egiten ziren lan industrialak soilik jasotzen zituen, baina argi ikusten dugu kotoigintzak zuen indarra. Beste enpresa batzuk aipatzen ziren txostenean, Migel Unanueren enpresa obra eraikitzailea zen eta Hilario Garagorriren kare-harrobia ere bazegoen. Baina, bi hauek kanpoan lan egiten zuten, ez ziren kontuan hartu. Aipaturiko beste lantegiei buruz zera baieztatzen zuen Erreforma Sozialetarako Herriko Batzarrak⁵:

“Todos estos establecimientos están en buenas condiciones y cumplen los requisitos legales, en cuanto a las condiciones de insalubridad...”.

5 A.U.A., 39 H/4, (1900-1924).

Aurrerago ikusiko dugunez, aipatzen den osasungarritasun ustezko horren aipamen ofiziala egiten den arren, hainbat emakume langilek osasun arazo larriak pairatuko zituzten, elikadura osasuntsu baten gabezia eta bestelako bizi baldintza kaxkarrak agerian geratuko direlarik guregana iritsi diren agirietan.

Azkenik, datu hauek ikusita, pentsatu dezakegu Andoaingo biztanlegoak ogibidea aurkitu zuela industrian edota bere inguruan sortu zen zerbitzu-sektorean. Baina hori ez zen horrela izan beti. Izan ere, andoaindarren artean, Euskal Herriko hainbeste herrietan gertatzen zenaren bidetik, Ameriketara joateko joera handia izan zen XX^o. Mendearen lehen hamarkadan⁷, beraz, Andoainek bi joera demografiko kontrajarriak bizi zituen mende berriaren hasieran: *Algodonera* lantegira lanera etortzen ziren beste probintzietako pertsonak eta Ameriketara lan bila joaten ziren andoaindar baserritarren seme-alabak.

Industrializazio goiztiar honekin batera, baserri giroko hainbatek nekazaritza partziala deiturikoari esker lortzen zuen bizirautea, hau da, baserritik kanpoko lanari esker ezin bestekoak zituzten diru sarrerak lortzen zituzten: baso lanetan zerratzan, ikazkintzan, eraikuntzan, meategian eta bestelako industria lanetan.

1.1. Industrializazioaren eragina Andoainen.

1856an Zumea deituriko gunean *La Algodonera Guipuzcoana* ehungintza fabrika ireki zen. 500 inguru langile izatera iritsiko zen fabrika hark Andoainen eragin nabarmena izan zuen gorago aipatzen genuenez. Enpresa hori lanean aritu zen ehun urte baino gehiago. Esan bezala, herriaren eraldaketa arlo guztietan gauzatu zen, eta fabrika berrian lan egitera estatuko beste erkidegoetatik etorri ziren pertsonak. Etxeberrieta izenez ezagutuko ziren eraikinak hirigintza arloan urte askoan ezagutu ez zen eraldaketaren adibide garbiak izan ziren. Kotoigintzara dedikatzen ziren enpresek emakumeen lan indarra erabiltzen zuten. 1900. urtean *La Algodonera*-k 459 langile zituen, 1903an 440⁸, eta 1907an 435. Esan bezala, emakumezkoen pisua nabarmena izan zen Andoaingo industrializazioan, eta horren adierazgarri da aipatu azken urtean 435 langileetatik 249 emakumezkoak eta 186 gizonezkoak zirela⁹, eta kopuru horrek hala nolako estabilitatea erakusten digu, izan ere 1903an 250 emakumezko eta 181 gizonezko zituen

6 A.U.A., 35 H/1, (1885-1940). Atzerriratzeak mende hasieran zuen erakartze indarraren adibide dugu adibidez 1902ko apirilaren 16an Manuel Maria Alkain mutilen eskola publikoko irakasleak luzatu zuen idatzia. Baimena eskatzen zuen Santanderrera joan nahi baitzuen, seme Ascensio laguntzera, Mexiko aldera joateko untziratu nahi zuela eta.

7 *Cartonera* deitzen zenaren itxierak ere lagundu zuelakoan dago ARREGUI, Ricardo: *Aspectos de la vida e historia de Andoain*. San Sebastián, Caja de Ahorros Municipal, 1970, 41-46. or.

8 GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima eta MARTÍNEZ LASA, Mónica: "Andoaingo algodonera, bertako langileak eta emakumeen ezaugarriak". In: *Leyçaur*, 63-119 or.

9 A.U.A., 39 H/4, 1900-1924.

lantegiak¹⁰. Emakume langile haiek azkar hasi ziren beren eskubideak aldarrikatzen. Lan baldintzekin ados ez zeudela eta, 1901eko maiatzaren 17an emakume ehuleek greba egin zuten, eta 10 egun iraun zuen¹¹.

Industria tradizionalaren krisiak eraginda (burnigintzari loturiko ofizioak eta produktu hauen merkataratzearekin loturikoak), nagusiki nekazaritzara nahiz abeltzantzara dedikatzen zen Andoainen industria modernoaren garapen goiztiarrak, zer ikusi zuzena izan zuen Donostiarekin lotuko zuen karretera general berriaren eraikitzearekin 1845ean. Garraio bide berri bat gehitu zitzaion 1864ean abian jarri zen trenbidearekin. Andoainen garapenak Sorabillako herrirka txikian eragina zuen, eta Asteasutik 1843an bereizi zen arren, 1882ko apirilaren 16an Udal propioa izateari uko egin eta Andoaingoarekin bat egitea erabaki zuen¹². 1883an, Sorabillako herriak Andoainekin bat egin zuen¹³.

2. TAULA
EMAKUME ETA GIZONEN BATAZ BESTEKO ASTEKO SOLDATA PEZETATAN.

URTEA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
1903	2	2,50
1920	4	5-6
1940	26	30
1960	200	300

Iturria: egileak moldatuta. GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima eta MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Op. Cit.*, 8 or.

Oihalgintzara dedikatzen ziren andoaindarrez gain, baserritar ugari zeuden herrian. Industrializazioa goiztiarra izan arren, aldaketa sozialak ez ziren bortitzak izan. Hots, gizartean erlijioak eta euskarak presentzia nabarmena zuten, eta gizarte tradizionalak indar handia zuten Andoainen¹⁴. Esan bezala, haatik, emakume askok lan egiten zuten industrian, *Algodonera* fabrikari bereziki. Lege askok, izaera orokorrekoak zein zehatzekoek, zenbait alderdi finkatzera jo zuten: emakumeei zegozkien ekoizpen adarrak, horietan hartu zitzaizketen

10 GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima eta MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Op. Cit.*, 63-119 or.

11 A.U.A., 29H/5.

12 ARREGUI, Ricardo: *Op. Cit.*, 11-38 or.

13 A.U.A., 237 H/3. Bat egitea egiaztatzeko agiriarekin batera, Sorabillaren ondasunen inbentarioa ere idatzi zen.

14 Andoain herri nagusiki euskalduna izan zen XX. mendeko lehen hamarkadetan, herritarrek egunerokotasunean euskara erabili ohi zuten nagusiki, eta andoaindarren kopuru handi bat euskaldun elebakarra zen, nahiz eta herriko agintari eta sektore garrantzitsuena osatzen zutenek gaztelera ere bazekiten. Dena den, kontuan izan behar dugu Udalaren menpeko lanpostu guztietan euskararen ezagupena eskatzen zela Gerra Zibila aurretik. A.U.A., 35 H/1, (1885-1940).

lanpostuak, bete beharreko lanaldiak, etab. Zeregina ez zen nolana hiko, garaiko gizartearen ikuspegiko emakumearen funtzio nagusia ama izatearena baitzen, funtzio ez nolana hiko, izan ere gizarte taldearen eta komunitatearen beraren jarraipena bermatzeko ezin bestekotzat hartzen baitzen. Hori dela eta, emakume langileei zegozkien lehenengo legeek ikuspegi guztiz babeslea bultzatzen zuten langile horien amatasunaren defentsari dagokionez. Arautu ziren kontuak honakoak izan ziren: erditzearen aurreko eta ondoko atsedenaldia, edoskitzeko orduak, amatasun aseguruaren ezarpena, etabar.

Hala beraz, lehenengo garaian, emakumea ez zen langileek borroka sindikalaren bitartez lortzen zituzten abantailaz saritua gertatu. 1920ko hamarkada arte sindikatuek etzuten emakume langilea berdintzat hartu, orduan hasi baitzen emakume langilea lankide gisa ikusten. Lege erreformak emakumearen lanaren baldintza fisikoak aldatzera zuzendurik zeuden eta ez zedila hain nekeza izaten saiatzzen ziren, baina ez zuten kontuan hartzen emakumearen egoera profesionala eta ekonomiko-soziala. Alor horietan aurrerapenei heltzeko erresistentzia, bestalde, gizartearen egitura ideologikoaren ondorio zen¹⁵. Hala ere, esan beharra dago emakume asko, gehiengo esan gabe, ideologia eta pentsamolde horrekin ados zegoela.

XX. mendearen hasieran, Alfonso XIII.aren politikak aurreko mende amaieran hartutako bideari eutsi zion. Legegintzari dagokionean, emakume langilearen lan baldintzak arautzeko orduan, industria arloko emakumeen baldintzetara mugatu zen. Emakume nekazaria, hortaz, etxeko lanen arloari lotuta geratu zen industrializazioak zekarren aurrerabideaz obsesionaturiko garai hartan. Ez da harritzekoa, beraz, garai hartan nekazaritza sektoreak jasaten zuen utzikeria eta alboratzearen biktima nagusia emakume nekazaria izatea. Ikuspegi tradizionalaren arabera, emakumearen lana familiari egindako ekarpena zen, eta beraz, ez ordaindua gehienetan. Baina, kasu paradigmatico bat badago, hori neskameena da, izan ere familiatik kanpo lan egin arren, nagusien ustezko babes paternalistaren mende geratzen ziren neskametzara dedikatzen ziren langileak. Nekazaritza nahiz neskametzara bideraturiko emakumeek osatzen zuten emakume langileen zati handiena; beraz, onarturiko legediaren eskumenetik kanpo geratzen ziren emakume langile gehienak¹⁶.

Gizarte tradizional horretan, hainbat emakume lurjabe bezala agertzen zaizkigu, Udalarri lurrak saltzen edo beraienak diren lursailak babesteko liskarretan. Frontoia egiteko lursailak Agapita Irazu andereari erosi zizkion Udalak 1902. urtean¹⁷. Buruntza mendiarekin muga egiten duen Arzabaleta-buruako lursailaren jabe agertzen zaigu Carmen Garagorri

15 CAPEL MARTÍNEZ, Rosa M^a: *El trabajo de la educación de la mujer en España 1900-1930*. Madrid: Instituto de la Mujer, 1986, 78-87 or.

16 *IBÍDEM.*, 87-99. or.

17 A.U.A., 237 H/8.

anderea, Udalarekin liskarretan 1925 eta 1933 urte artean¹⁸. Beste lursail jabe bat, Berrozpe baserria eta lurrak, Catalina Otañorenak, 1925-1934 urte bitartean Udalarekin liskarretan¹⁹.

Garapenaren beste adibide bat ur beharren areagotzea da²⁰, horrela, adibidez, Andoaingo Udalak 1917an Errotaberri errotaren iturburuaren ustiapena eskatu zuen edateko urak gehitzeko²¹. Ondorengo urteak ur iturri berrien bilaketarenak izango dira, hala 1919an horniketa sarearen berritze eta zabaltze lanak²² eta ondorioz ur iturri berrien gehitzea bermatu zen 1924ra arte²³.

La Algodonera Guipuzcoana enpresak finantzaturiko oinarrizko eskola bi eraiki ziren Larramendi kalean 1905-1909 urte artean eta Andoaingo Udalaren eskuetara pasa ziren²⁴. Udalak eskaturik, enpresak lurzorua eskeini eta eraikinak eraiki ondoren, Andoaingo herriko agintarien eskuetara pasa zen guztia, urtero errenta baten trukean. Goizez umeez ikasten zuten, gaudetan helduentzako eskolak ematen zirelarik²⁵.

Kirol berriak agertu ziren Andoainen, gizarteak bizi zituen aldaketen adierazgarri²⁶. Hala bada, gizonezkoen sozializazioarako hain garrantzitsua zen futboleko jokatzeko, Juan Bautista Otegi Zuloagak Alfaro-Soroa deituriko lursaila alokatuko zien 1923an Donostiako *Club Deportivo Esperanza* eta *Sociedad Euzkalduna Andoaindarra*, taldeei. Udalak bitartekaritza eta fidatzaile moduan hartuko zuelarik²⁷.

3. TAULA ANDOAINGO BIZTANLEGOAREN EBOLUZIOA.

URTEA	BIZTANLE KOPURUA
1900	2.866
1910	2.850
1920	3.322
1930	2.716

Iturria: egileak moldatua liburuko datuez baliaturik ARREGUI, R., *Op. Cit.*, 41-46 or.

18 A.U.A., 71 H/1.

19 A.U.A., 40 H/1.

20 A.U.A., 68H/16. 1912 eta 1939 urte bitartean Urbillondo eta Txurru errekek bereganatzeko saiakerak Udalaren aldetik.

21 A.U.A., 68 H/15.

22 A.U.A., 68 H/17.

23 A.U.A., 21 H/1 eta 237 H/10.

24 A.U.A., 68 H/2 .

25 GONZÁLEZ, F.: *Op. Cit.* 63-119. or.

26 A.U.A., *Foot-ball zelaiaren egokitzapena*. 38 H/17 (1923-1925).

27 A.U.A., 237 H/13.

Gizarte andoaindarrean lanean zihardutenen oihartzunak iritsi zaizkigu dokumentazio ofizialari esker. Nola bizi ziren? Zer pentsatzen zuten? 1896ko maiatzaren 17an Francisco Arrizabalaga *La Algodonera* enpresako gurdi-gidariak idazten zuen. Bi seme-alaba zituzten senar-emazteek. Senarrak bezala, emazteak ere lan egiten zuen lantegiarentzat. Bien soldata guztira, ordea, ez zen nahikoa. Badirudi, Kubara ez joateko asmoz, eta gerrara joatetik libratzeko edo, ezarrita zegoen diru-kopurua ordaintzeko mailegua eskatu zuen Arrizabalagak. Familiaren egoera ekonomikoa estua bazen, berriki emazteak erditu zuela eta bikiak jaio zitzaizkielako, edoskitzerako laguntza eskatzen zuen, izan ere²⁸:

“...ésta [emazteak] *no puede ganar* [soldata lantegian] *si debe criar a los dos*”.

Baina lantegiko langileak ez ziren egoera ekonomiko larrian zebiltzanak. Andoaingo biztanleriaren zati handi batek egunero lan egitea beste aukerarik ez zuen, baldin eta bizirauteko esperantzarik bazuen. Landako biztanleek ere pairatzen zituzten estutasunak, eta horrek aurreko kasuan bezala, argi eta garbi erakusten digu emakumeek familiari egiten zioten ekarpen ekonomikoa. Lantegian nahiz baserrian. Esaten dugunaren adibide bat ematearren, Luis Azpeitia dugu.

Luis Azpeitia izen bereko herriko, hots Azpeitiako, kaxako umea izan zen eta Sorabillako Etxeberri etxean bizi zen. Nekazaria zen eta 45 urte zituen, ezkondua zegoen eta uste dugu etxeko maizterra zela. Bere emazte Rosa Amondarainek erditzerakoan bikiak jaio zitzaizkien, Antonio Maria eta Prudencio. Rosaren gurasoak mantentzen zituela argudiatzen zuen Azpeitiak eta elikagai beharrezkoenak garestiegi zeudela salatuz, bi semeitariko batentzako egoskitzea ziurtatzeko diru laguntza eskatzen zuen.

Baziren dena den egoera larriagoa jasatzen zutenak. 1904an F.W. jornalariak emaztea galdu zuen erditzerakoan eta sei seme-alaba zituen. Eta hamar eguneko alabatxoari jaten emateko haragia soilik zuenez, egoskitzea ahalbidetzeko diru-laguntza eskatzen zuen. Berak esaten zuenari jarraiki:

“...no es posible con el jornal de un obrero atender a tanta criatura y a la recién nacida...”.

Horrelako kasuak ugariak izango ziren industrializazioaren lehenengo hamarkadetan, eta lantegiko langileak, jornalariak, nekazari, kaletar nahiz baserritarrak laguntza eske ikusiko ditugu familia sostengatzeko²⁹. Industrializazioaren baldintza gogorretatik emakumea, ama zen heinean, babesteko nahiak eraman zituen agintariak emakumea eta haurrak babestera. Aurreko legegintza osatze aldera, 1912ko uztailaren 11ko legearen arabera, industria arloan gaueko lanaldia galerazten zen emakumeen kasuan³⁰.

28 6 hilabetez eta eguneko 50 zentimoko diru laguntza esleitu zitzaion. Beti ere, biak ala biak bizirik jarraitzekotan. Izan ere, bietako baten bat hiltzen bazen, diru-laguntza bertan behera geratuko zela argitzen zitzaion. A.U.A., 18 H/4, (1894-1933). Andoain, 1896ko maiatzak 17.

29 A.U.A., 18 H/4, (1894-1933).

30 A.U.A., *Erreforma sozialak. Korrespondentzia eta bestelako dokumentazio orokorra*. 39 H/9 (1901-1923).

1916an egindako inkesta bati esker, langileen kontsumorako produktuen batez besteko salneurrien berri dakigu. Era berean, oinarrizko elikaduraren berri ere jasotzen dugu. Dendari nahiz langileentzako kontsumo kooperatiben zuzendari nahiz presidenteeek emandako datuen arabera, honako hau zen langilegoaren elikadura eta batez besteko salneurriak³¹:

4. TAULA
LANGILERIAREN OHIKO ELIKADURA.

ARTIKULUAK ETA KOPURUAK	APIRILA-IRAILA BITARTEAN OHIKO SALNEURRIAK (PEZETA EDOTA ZENTIMOAK)
Ogia (kiloa)	0,47
Irina (arroatz edo 11 kilo t'erdia)	5,75
Behi haragia (kiloa)	1,90
Ahari edo ardi haragia (kiloa)	1,90
Arrain freskoa	1
Bakailaoa (kiloa)	1,90
Gehien kontsumitzen diren barazkiak (kiloa)	0,35
Patatak (kiloa)	0,20
Txitxirioak (kiloa)	1
Arroza (kiloa)	0,65
Babarrunak (kiloa)	0,75
Ardoa (litroa)	0,65
Esnea (litroa)	0,20
Petrolio (litroa)	0,90
Argindarra (hileko 5 bujiako lanpara)	0,87
Egur-ikatza (arroatz edo 11 kilo t'erdia)	1,15
Kafea (kiloa)	5
Arrautzak (dozena)	2
Azukrea (kiloa)	1,30
Xaboia (kiloa)	0,95
Olio (litroa)	1,25
Logela (urteroko alokairua)	96
Sagardoa (litroa)	0,25
Baba zuria nafarra	0,40
Baba beltz nafarra	0,55

Iturria: egileak moldatua artxiboko datuetan oinarriturik. A.U.A., 39 H/9.

Andoainek zartada latza jaso zuen 1913an fabrika itxi zenean, langile ugari miserian erori ziren. Alkateak gutuna igorri zion Tolosako Aurrera patronalaren elkarteari laguntza eske. Tolosarrekin lan bila zebiltzan langileen zerrenda bat igortzea eskatu zion Udalari, izen abizenak, adina eta lanbidea azalduz, hartara, beren bazkideei luzatuko zietela erantzunez³². eta haietako batzuk papergintzan edota tranbiaren nahiz Plazaolako trenbidearen eraikuntzan aurkitu behar izan zuten ogibidea. 1917an *Compañía Fabril Subijanak* erosi eta berriro lanean hasi zen *La Algodonera*, 300 langilerekin. 1920rako 463 ziren³³.

Herriko familia askoren iturri ekonomiko nagusi edota bakarra zen lantegiaren itxierak erakutsi zuen Andoainek zuen dependentzia maila. Herriaren ekonomia kotoigintzari loturik zegoen eta langileen miseriak herriko zerbitzu-sektorearen krisi larria suposatu zuen garaiko testigantzek adierazten dutena kontuan hartzen badugu. Itxiera horrek andoaindar ugari behartu zituen beste herrietako enpresetan lana bilatzera. Gizonezkoek tranbia eta Leizarango ferrokarrilaren eraikuntzan aurkitu zuten lana³⁴. Komunikabideak lanbide berrien sorrera ekartzen zuten. M. O. emakumeak, aitaren izenean eskabidea sartu zuen Udalean 1902ko apirilaren 16an, langile eta bidaiari kopuruak bultzatuta taberna irekitzera ia behartuak ikusten omen zirelako:

“desea poner taberna para vender vino y aguardiente por copas en la casa nº 52 varrio de Leizaran casa llamada Presaburu al paso de dicha casa como nos comprometem pedir bebidas y algunos halimientos he pensau habrir dicha taberna y espero su lltre. Me concederá lo que le suplico”.

Adierazgarria da aipamen hau, bai oraindik euskaldun elebakarra den nahiz alfabetatua ez dagoen gizon baten alaba gazteak egiten duelako eskaria; eta nola ez, mahai gaineratzen digun gaiari erreparatzen badiogu. Hau da, hazkundean dagoen ekonomia batek sortzen dituen kontsumorako beharrak eta, hortaz, kontsumo mota berri horri loturiko lanbide berriak. Kasu honetan bezala, bestelakoetan ikusiko dugu emakumeek parte hartze zuzena izango dutela. Baina ez askoz beranduago, eta herriko ekonomiaren loretzearen ondorioz, Lucila Lacebron. andreak taberna irekitzeko lizentzia eskatzen du Norteko Burdinbidearen geltoki parean zuen etxearen beheko solairuan 1906ko uztailearen 27an. Lehenago, 1903ko apirilaren 17an, kantina bat irekitzeko eskaria aurkeztu zuen gertokitik gertu Maria Cristobal alargunak³⁵.

32 A.U.A., 39 H/9, 1901-1923.

33 BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro: *Op. Cit.*

34 GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima; MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Op. Cit.*, 63-119 or.

35 A.U.A., 37 H/11 (1896-1924).

Dena den, egin diren ikerketa guztiek nabarmentzen dute industrializazio prozesua goiztiarra eta nabarmena izan arren eta 1926an Laborde enpresa ireki bitartean, Andoain nagusiki nekazal giroko herria izaten jarraitu zuela³⁶.

1.2. Emakumeen partehartzea. Lanbide eta ogibideak.

Guk lan honetan “emakumea” kontzeptu esentzialistatik haratago doan “emakumeen” kontzeptua lantzea dugu helburu. Izan ere “gizona” esaten denean, gizakiak, hau da, gizadia bere osotasunean hartuta, hots, gizon eta emakumeak ditugu buruan. Alderantziz, “emakumea” kontzeptuari esentzialista deritzogu karga ideologiko nabarmena izan baitu eta gaur ere hala duela nabarmena baita. Gure kultura mendebaldeko kulturaren barnean txertatua den momentutik aurrera, kontzeptu berriago bat, irekia goa dena erabili beharra dagoela ulertzera iritsiko gara arazo handiegirik gabe³⁷.

Azken urteotan metodologiaren eta ikerketaren arloetan izan diren aldaketek eraginda, industrializazio prozesuei buruzko ikerketak osatzen joan dira. Ikerkuntzaren garapenak industrializazio eta, beraz, eraldaketa prozesu horien baitako ikuspegi ezberdinak ikertzea ekarri du.

Neurri berean, eta ikerkuntzaren eboluzio horren ondorioz, emakumeek industrializazio prozesu ezberdinetan izan zuten garrantzia berrikusten ari dira ezagupenaren alor desberdinak (antropologia, historia, ...). Emakumeen partehartze hori bi plano nagusietan ikusi ahal izango da. Alde batetik, emakumeek langile gisa lantegietan izan zuten partehartzea; eta bestetik, etxe barnean emakumeek jokatu behar izan zuten papera, izan ere familiaren egiturak aldaketa nabarmenak ezagutu bait zituen, baita harreman sozialetan, demografian, pentsamoldeetan, etabar.

Gauza jakina da emakumeen lehen lantegiratzeak harreman estua izan zuela gizartean emakumeari esleitu zitzaion rol edo eginkizunarekin. Hau da, emakumeei etxe barnean zegozkien funtzioak lantegi eta tailerretara egokitzen ziren kasuetan emakumeek lan egiteko esparrua aurkitu zuten. Andoainen ezarritako industria mota Gipuzkoako industrializazio prozesuarekin estu estuki loturik doa. Bizkaiko industrializazioa meatzaritzari eta burdingintzari estuki lotuta bazegoen, eta gunee konkretuetan bildurik, Gipuzkoan aldiz geografikoki barreiatuta eta sektore nahiz tamaina ezberdinetako lantegiak eraiki zituzten. Hori dela eta, Gipuzkoako industrietan Bizkaikoetan baino nabarmenagoa izan zen emakumeen presentzia eta partehartzea.

36 BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro: *Op. Cit.*

37 Ikusi, adibidez, gaia sakontasunean landu duen THUREN, Britt-Marie: “La crítica feminista y la antropología: una relación incómoda y fructífera”, *Ankulegi*, 12, 2008, 97-114 or.; eta batez ere: *El poder generizado. El desarrollo de la antropología feminista*, Madrid, Instituto de Investigaciones Feministas/Universidad Complutense de Madrid. 1993.

Antropologoei zor diegu aurrerapena genero ikerketari dagokienean. Haseran emakumearen antropologia deitua izan arren, generoaren antropologia izatera pasa zen ikerketa sozialen arloa hain zuzen ere. 60. hamarkadako mugimendu feministaren ondorengoa, den ikerketa arloaz ari gara, noski.

Genero antropologiak egiteke enpiriko eta teorikoa eskeini zien emakumeen inguruko ikerketa eta ezagutzei. Hau da, espezialitate edota enfoke bat eskeini zien emakumeen gaineko ikerketei. Hortik gainerako ezagutzei zabaldu zitzaielarik, generoaren fenomeno bere espresio eta aspektu guzietan deskribatu eta ulertzea helburu zuten ikerketak bultzatuz.

Industrializazioaz ari garelarik, legegileak azkar arautu nahi izan zuen emakumearen partehartzea industrian, emakumearen amatasuna izaera babestearren. Zentzu hortan, berebiziko garrantzia izan zuen Espainiako Gobernuak onartutako 1900ko martxoaren 13ko Legea, haur nahiz emakumeen lan baldintzak arautzeko asmoarekin bultzaturikoa³⁸. Gure ikerketarentzat, garrantzitsua da 1900 urteko lege hori, emakumeen langile izaera aitortzen baita nolabait ere (ordurarte, eta XX.mendearen zati handi batean, emakume baseritarren, ostalarien, neskame eta zerbitzarien edota etxeoandreen lana ez baita lan kontsideratua izan, baizik eta emakumeen berezko egitekoak).

XX. mendean zehar emakumeen eguneroko bizitzak aldaketa nabarmenak ezagutu zituen eta aldaketa horiek ere bere eragina izan zuten Andoaingo emakumeen nortasunean eta gizartean jokatu zuen paperean. XX. mendean aldaketa horiek arlo askotan eman ziren: eskolak, erlijioak, asoziazionismoak eta lan merkatuan txertatzeak emakumeen sozializazioan jokatu zuten papera aldatzen joan zen. Emakumea etxetik irten eta gizonarekin parekatzeko bidean, historian zehar izkutuan gordetako errealitatea plazaratzeko erabilitako estrategiak eta ezagututako oztopoei arreta jartzeko orduan, izkutuan egon den errealitateari erreparatu diogu.

Andoaingo esparru ezberdinetan emakumeen papera ikertu dugu: kultura, hezkuntza, familiaren baitan nahiz gizartean jokaturiko "rol"-a, emakume baserritarrek landagiroko lanekin batera egindako bestelako lanak -emakumezkoen lan propio kontsideratuak izan ohi zirenak- ikertu eta identifikatu ditugu (adibidez, ostalaritza, jostun gisa, neskame moduan, petrikilo eta emagin lanak eginez, e.a.), fabriketan nahiz zerbitzuen esparruan lan egin zuten emakumeak plazaratu nahi ditugu, eta noski etxeoandreen irudia eta bere inguruko ikuspegi eta diskurtsoak.

Emakumeen lana eta lanbideei buruzko ikerketa bati ekiterakoan, kontuan izan behar dugu lehenik gauza garrantzitsu bat, emakumearen ikusezintasuna. Puntu

38 NASH, Mary: "El neomaltusianismo anarquista y los conocimientos populares sobre el control de natalidad en España". In: NASH, Mary (ed): *Presencia y protagonismo. Aspectos de la historia de la mujer*. Ediciones del Serbal. Barcelona, 1984, 152 or. eta hurrengoak.

garrantzitsua izan zen emakumeen inguruko ikerketak egiten hasi ziren feministentzat, 60. hamarkadan ikerketari ekin ziotenean frustrazio nabarmena eragin zuen gaia izan zelarik. Gizonek bitzta sozialean nagusitasuna zuten, baina horrek ez zuen esan emakumezkoek ez zegoenik, eta gutxiago, emakumezkoek pentsamenturik ez zutenik Baina emakumeen ekimenak eta baloreak bitzta publikoaren itzalaren azpian geratu ziren, eta ondorioz, historia ofizialetik kanpo geratu ziren.

Ondorioz, gizarte horren errealitatea islatzerakoan, errealitatea bera mugatua eta desitxuratua azaltzen zaigu. Menderatze maskulinoak munduaren ikuspegi partziala ematen digu, emakumezkoen esperientziak (eta gizonezko batzurenak) jasotzen ez baititu. Ikerketa feministek proposatzen dutena da lehenik ikustaraztea, gerora zuzenketari ekiteko. Zentzu hortan, Teresa del Valle esaten duenarekin bat egiten dugu³⁹:

“Nombrar a las mujeres es sacarlas del olvido: una tarea de justicia (...) y una manera diferente y actual de entender la historia de los silencios”.

Lan akademikoetan, hortaz, deskribapen partzialak eta, batzutan, okerrezkoak egin dira. Arazo horri joera maskulinoa deitzen zaio. Baina emakumeen ezikustasun hori ez da soilik akats zientifikoen iturri, baizik eta injustizia soziala baizik. Bitzta kulturean nahiz sozialean, eta baita gizabanakoaren bitzitan nahiz bitzta kolektiboan sortu diren egoera ez bidezkoak.

Gipuzkoako industrializazioak badu bere zio berezia, izan ere erroldetan jasotzen ez ziren hainbat lanbide zituzten gizon eta emakumeek. Hau da, gipuzkoar langileek 2 edota 3 lanbide izan ahal zituzten artisautzarekin loturik (saskigileak, adibidez)⁴⁰ edota nekazaritzan. Eta datu horiek ez ziren jasotzen erroldetan, beraz dokumentazio iturri hauek ematen diguten ikuspegia arrunt mugatua da eta errealitatea izkututzen digute⁴¹. Hala ere, errolden gabezia horiek kontuan izanda ere, garbi eduki behar dugu garai bakoitzeko pentsamoldearen arabera iturriak lantzen ari garela eta zentzu honetan, emakumeen lanak eta lanbideak orokorrean ixilaraziak eta izkutatuak izan ohi ziren, eta horrela Gipuzkoako errolden batez bestekoaren arabera nekazaritzara dedikatzen zirenak biztanleria aktiboaren %30-40 baziren, horietatik soilik %10 inguru ziren emakumezkoak. Emakume nekazari horiek alargunak edota ezkongabeak izan ohi ziren ia bere osotasunean⁴².

39 IMAZ MARTÍNEZ, Iñigo: *Op. Cit.*, 164. or.

40 *IBÍDEM*.

41 Gai hauei buruzko hausnarketa sakonera aukera ematen du ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboan abantaila eta gabeziak aztertzen dituen lan honek LEGARRETA IZA, Matxalen: “El tiempo donado en el ámbito doméstico. Reflexiones para el trabajo doméstico y los cuidados”, *Cuadernos de Relaciones Laborales*, vol. 26, núm. 2, 2008, 45-69 or.

42 LUENGO TEIXIDOR, Felix: “La participación de la mujer en la conflictividad social. Guipúzcoa 1900-1936”, *Cuadernos de Sección, Historia Contemporánea*, 18, 1991.

Aspaldi jarri zuen mahai gainean Teresa del Vallek bere lanetan errealitate ustezko horrek atzean izkutatzen zuena. Izan ere Euskal Herriaren baserriaren barne egituraren emakumeek, eta oro har familiako kide guztiek jokatzeko zuten papera oso aktiboa zela erakutsi zuen. Baserria ekoizpen zentrua izanik, banakako guztiek funtzio bat betetzen zuten, emakumeak barne, kaletik zetorren emakume burgesaren eredu ezbaian jarri⁴³.

1.2.1. *Gizarte industrialaren egituraketa.*

Andoainek, herriaren hazkunde ekonomiko nahiz demografikoak hala derrigortua, Alondegi berri bat eraikitzeke proiektua bultzatu zuen 1882 eta 1893 urte bitartean. Herriko hainbat lurjabe eraikin berriarentzako orubeak erosiko zizkieten, tartean Josefa Aranzade anderearenak zirenak⁴⁴. Errentista eta ondasunen jabe emakumeak aurkitzen ahal ditugu historian zehar, baina emakumeok gutxiengoa ziren, normalean alargundutako emakumeak izaten zirelarik. Jabe zirelako eta familiaren buru ziren heinean, baldin eta semeren batek lekukoa hartzen ez zuen bitartean, emakume hauek beren ondasunak eta negozioak kudeatzen zituzten inolako arazorik gabe.

Nabarmena da andoaindar industrializazioan emakumeak ez zuela kapitalista papera jokatu, zentzu hortan, beste herri batzuetan ez bezela, ez dugu emakumerik ikusiko enpresajabe edo akziodun gisa⁴⁵. Baina ekimena eta aurrera ateratzeko adorea erakutsi zuen emakumeen zerranda luzea da.

Hazkunde demografikoaren nahiz garapen ekonomikoaren ondorio zuzena udal zerbitzuen eguneratzea zen. 1885tik aurrera herriak bizi zuen etengabeko hazkundea lan karga areagotzen ziola kexatu arren, badirudi udala entzungor izan zela bere eskariekiko. Hala, 1896ko apirilaren 18an Jose Maria Iztuetak idatzi bat luzatzen zion udalari, udal langilea baitzen udal arielak kobratzeko, eta bere hitzetan⁴⁶:

43 Lan interesgarri honek argibide interesgarriak ematen dizkigu. Ikus VALLE, Teresa del (zuz.): *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Anthropos, Barcelona, 1985.

44 A.U.A., 237 H/6.

45 Miguel Ángel Barcenillaren tesiak zehatz mehatz aztertzen du Erreterriako industrializazioaren jatorria eta garapena. Bere lanean inbertsore atzerritarrez gain herriko nahiz Gipuzkoako edo Estatuko inbertsiogileen berri ematen da. Herriko kapitalistek inbertsio xumeak egin zituzten eta horien artean emakumerik agertzen zaigu. Deigarria, adibidez, ehungintzara dedikatzen ziren enpresen kasuan agertzen direla emakume bakan batzuk, beti ere familia buru izatera pasatzen direlarik, eta ez emakumeak bere kabuz kapitalista papera jokatzeko erabakia hartzen duelako. BARCENILLA, M.A., *La pequeña Manchester. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Erreterria (1845-1905)*, Donostia-San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa (Departamento de Economía y Turismo).

46 A.U.A., 35 H/1 (1885-1940). Udalak, apirilaren 19an, soldata 0,50 pezeta/eguneko igotzea erabaki zuen. Diru publikoaren godailuzainak, 1900ko abenduaren 31ean Juan Bautista Lasartek arrazoi berberak medio antzeko idatzi bat igorri zion Udalari.

“...desde algún tiempo se ha extendido la riqueza comercial de esta villa, aumentando tiendas y tabernas de artículos grabados con impuesto municipal. Y acarreado por lo tanto esta circunstancia aumento de trabajo al recurrente, en términos tales que hoy el debido cumplimiento de su encargo exige (SIC: exige) atención continúa durante todo el día, sin que pueda ocuparse en ningún otro cargo ni profesión, quedando por lo tanto limitado su recurso únicamente a la retribución que de Vs. recibe y perjudicando relativamente de su situación anterior”.

Emakumeen lanbideak aztertzerakoan, Andoaingo kasuan ezin ahaztu lehen aipatu dugunaren ildotik *Algodonerak* zuen pisu nabarmena, herria guztiz eraldatu zuen industria izan zelarik. Horrek bere onurak ekarri zituen bezala, bazituen ere alde txarrak. Andoaingo gizartearen zati batek industrializazioaren gaitzak pairatuko zituen, baina egia da lan merkatu berri bat sortu zuela. Aldaketa sozialak emakumeen eguneroko bizimoduan eragin zuzena izan zuen. Momentu onenetan, XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan, lantegiaren bi industria-nabeetan somara lan egiten zuten emakumeen kopurua 250-300 artekoa izan zen. Soldata finkoa izateak egonkortasun ekonomikoa eta, horrekin batera, egunerokoan nolabaiteko lasaitasuna ematen zioten biztanlegoaren zati handi bati⁴⁷.

1.2.2. Inudeak.

Industrializazioak zekartzan gaitzetako bat, umezurtzen edo ume abandonatuen arazoari aurre egiteko premia zen. Horretarako, inudeak kontratatzen zituen Udalak, baina gerta zitezkeen tratatu txar edo irregulartasunak ekiditeko, 1899ko abenduaren 25ean Kaxako Umeen Babeserako Herri Batzordea antolatzea erabaki zen. Batzorde horrek bilatu eta aukeratuko zituen aurrerantzean tornuko umeen zaintzarako inudeak. Inude zenbaitzuren izenak iritsi zaizkigu: Martina Munita, Antonia Miranda, Juliana Carrera, Ignacia Antonia Jauregi, Josefa Alberdi, Ramona Mutio, Josefa Antonia Haranburu, Concepción Irazusta, Brigida Etxepare, Luisa Seguro, Maria Josefa Lasa, Laureana Camara, Melchora Zabala, Josefa Ignacia Gozategi, Isidra Oraa, etabar. Emakume hauek normalean ezkondata zeuden, eta baserri giroko nahiz langile soilen emazte gazteak izan ohi ziren. Emakume onak eta arduratsuak bilatzen ziren, baina batzutan ez zen bermatzen umeekiko tratamendu ona, edo balizko senarraren jarrera nagitsua, etxeko diru-iturri bakarria emakumearen inudi soldata eta bestelako lan prekarioak izanik. Batzordearen eraketaren arrazoietakoa bat, emakume hauen kontrola bermatzea zen, izan ere askotan beren ardurapean jarritako umeen kontrako tratatu txarrak, edo emakume horien egoera ekonomikoa zela eta jasaten zuten bizi modu exkaxa, etabar luze baten ondorioz kexak jasotzen baitziren Udalean⁴⁸.

47 GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima; eta, MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Op. Cit.*, 4 or.

48 A.U.A., 4H/11.

Inudeen lana arautzeko, Gipuzkoako Aldundiak 1903an argitaratu zuen patente liburuxkan inudeei zuzenduriko zenbait kontseilu edo ohar txertatzen ziren. Idatzia bi hizkuntzatan zegoen, Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuz. Euskarazko atalak izenburu argigarria zuen: *“Beren umeac bularrez asitzeco contuan amac eduqui bear dituzten arguibide edo jaquinbearrac”*.

Argigarria diogu, izan ere, Landrin andreak, Gaston Mery jaunak eta, Budin nahiz Variot doktoreek osatutako argibideek argi erakusten digute inudea eta amatasuna elkarturik ulertzen zituztela. Emakume hauentzako ondo ordaindutako lanbide zena, berez, etxean zuten amatasunaren prolongazio edo luzapidea zelarik.

Amatasunari buruz gizarte horrek zuen irudia ulertzeko baliogarri zaigu liburuxka hau. Sarreran esaten denez:

“¿Cembait ama izan oi dira berac naigabetanic beren umeen calteguilleac eta oek gashotzen dira ematen diozcatelaco bear ez becelako esne charrac edo janari ez dagozquion moducoac eta dembora ez bearrecoac!”

Beraz, ama ona izaten saiatzeko gida baten aurrean gaude. Gida honetan esaten denari jarraiki, amatasunari lotuta dago ama batek bularra ematea umetxoei, eta osasunak edo sendagileek hala agindu ezean, umearena eta ez amarena den esnea eman behar dio ama batek bere umeari. Hortaz aparte, umeak garbi mantentzea eta arropak jantzita edukitzea, hoztu ez daitezen:

“Umea ziquintzen dan bacoitzean garbitu bear da ongui, eta ez da geyeguizcoa izango ere egunero bañu epel bat berari ematea ur garbiarequin. Seasca eduqui bear da lecu argui eta alayean bada umeac landare gazteac becela, bear du azico bada eguzquiaren eta arguiaren laguntza; eta egoaldia ona dagoanean atera bear dira ere campora ordu pare bat neguan eta gueyago berriz udaran erabiltzen dala besoetan chiquia den bitartean, bañan utzi lezaqueala ere bere amac gurdi chiqui moduco batean azitzen ari dalaco pisuz besoac necatzen diozanean”.

Amari zegokionean, argibideotan azaltzen zenaren arabera, lanean gehiegi nekatu gabe, kalean pasiatzen egotea komenigarriagoa zen emakume amentzat. Janari garbia eta egokia gomendatzen zitzairen, batez ere haragia eta baratzako produktuak. Edateko iturriko ur freskoa, baina ez ur beroa nahiz ardoa. Ondoezak bultzatuta sendagai eta erremedioak hartzen zituzten emakumeek, sendagileak esan ezean, edo gaxotzen baziren, bularra emateari utzi behar zioten esnea kaltetzeko arriskuagatik. Esnearen kalitatea gutxituz gero, *titi ordecoac* (biberioiak) ematea omendatzen zuten:

“...ur iraqiñetan garbitutaco bei-esnea eta iñoiz edo beste bacarric guertatuco da sasoi au ezquero eman bear izatea ur-esnea jayo berritan bezela, esne utsac gaitz eguiten diolaco...”

Amei gomendatzen zitzairen ere astero edo behintzat hamabostero umeak pisatzea *“eta esne oneco emacumea baldin bada bularra ematen diona, icusico da umeac bostgarren illabeteraco pisatzen duala jayo zanean alaco bi”*. Abereen esnea (astoak, ahuntzak, ardiak) erabiltzekotan, irakitzea proposatzen zuten, Gipuzkoan ohitura zaharra baitzen ganaduaren esnearekin elikatzea, eta horrek hilkortasun handia sortzen omen zuen uda partean. Irakiten zenetik, hilkortasuna jeitsi zela ikusi zenez, gomendioa luzatzen zitzairen emakumeei. Izan ere:

“esne charraren artu aldi batec bacarric ill lezaque iñoiz beste ecer gabe ume jayo berri bat”.

Esnearen kalitatea herri handietan nabarmen jeisten omen zen. Esne garbia proposatzen zuten, bai etxean bertan garbitutakoa, bai behin garbituta eta botiletan sartuta dendetan saltzen zutena. Esnea etxea garbitzeko ere argibideak ematen ziren, eta urarekin nahastuta edo nahastu gabe hartu zitekela zioten. Biberioia ere garbitzeko argibideak txertatzen ziren liburuxka honetan. Esne hartzeari buruzko pautak eman ondoren, janari arrunta ematen hasteko pausuak eta produktuak azaltzen zitzaizkien emakumeei⁴⁹.

Inude gisa lan egiten zuen emakume kopurua ere nabarmena zen, gure industrializatu batean familia nuklearra nagusitzen zen heinean, edozein arazoren aurrean ahulagoa suertatu ahal zen. Eta umezurtz geratzen ziren umeak edota abandonatuak zirenak atenditzeko inudeen beharra nabarmentzen zen.

49 Argibide hauekin batera, Aldundiaren araudia txertatzen zen liburuxka horretan. A.U.A., 4 H/11 (1899-1940).

5. TAULA
ANDOAINGO INUDEAK.

INUDEA	UME KOPURUA	DATA
Antonia Miranda (Ubalategi Nagusia baserria)	2	1900
Juliana Carrera (Erdiko Borda baserria)	1	1900-1901
Gertrudis Tolosa	1	1900
Ignacia Antonia Jauregi (Balastrain baserria)	1	1900
Josefa Alberdi	1	1901
Ramona Mutio	1	1901
Josefa Antonia Haranburu	1	1902
Concepción Irazusta	1	1903
Concepcion Maiora	2	1904
María Ignacia Larreta	1	1904
Laureana Camara (Zumea kalea)	1	1905
Josefa Jauregi	1	1905
Brigida Etxepare	1	1905
Luisa Segurola	1	1905
Id.	1	1906
Maria Josefa Lasa	1	1905
Melchora Zabala	1	1906
Josefa Ignacia Gozategi	1	1906
Isidra Oraa	1	1918 ⁵⁰
Gregoria Albizu	1	1923
Maria Txapartegi	1	1930
Josefa Etxebeste	1	1930
Nazaria Haranberri	1	1930
Josefa Martinez Sagardia	1	1931

Iturria: egileak moldatuta artxiboko datuak erabiliz. A.U.A., 4H/11 (1899-1940).

50 Inudetza amaituta, adopzioaren aukera ematen zitzairen eta batzuek hala egiten zuten, urte honetarako pausua emana zegoen.

1.2.3. Tabernariak

Emakumeen beste ogibide bat, tabernaria izatea zen: Francisca Maizkurrena, Josefa Garagorri, Juana Gaztañaga, Micaela Ormazabal, Maria Cristobal, Eufemia Mendizabal, Josefa Iturralde, ... Batzutan, tabernaren arrakastak alboan kafetegia bat antolatuzera animatzen zituen emakumeok, bertan janariak ematen zituztelarik. Emakume batzuk taberna etxean zuten, apopiloak ere jasotzen zituzten. Batzuek baserrian kantina txiki bat irekitzen zuten, ferrokarrilaren edo bestelako obretako langileentzako. Taberna hauek istilu iturri izaten ziren, herriko langile gazteek gauetan ordutegiak ez bait zituzten errespetatzen, eta trikitixa edota gitarra bat lagun zutelarik, kantatzen ibiltzen bait ziren kaleetan. Emakume tabernari hauek, normalean alargunak izaten ziren, alboan gizonik ez zutelarik, diru iturri berri eta seguruak bilatu behar zituzten. Hori zen Francisca Maizkurrena, Juana Gaztañagaren edo Eufemia Mendizabalen perfila. Haatik, beste batzuk, Josefa Garagorriren kasuan bezala, anaiaren laguntzarekin irekitzen zuten ardo biltegia⁵¹.

Tabernarien kolektiboak garrantzia zuen Andoain bezalako herri batean. Langileentzako aisialdi gunea ziren tabernak. Emakume tabernari ugari zeuden garaiotan Andoainen. Alargunak edo ezkongabeak izan ohi ziren tabernariak. Ezkongabeen kasuan, familiarentzako diru-sarrera moduan hartzen zuten tabernako lana. Francisca Maizkurrenak, Aldanondoren alargunak, *Sociedad Reunión de Amigos*-eko atezaina zelarik, taberna irekitzeko lizentzia eskatu zuen 1896ko urriaren 30ean. 1897ko ekainaren 7an, Josefa Garagorrik Zumea kalean anaiak zuen etxean ardoa saltzeko biltegia irekitzeko lizentzia eskatu zuen. Juana Gaztañaga alarguna, 1899ko uztailearen 10ean, taberna irekitzeko baimena eskatzen zuen Kaleberriko 2. zenbakian. 1904ko irailaren 23an ikuilua txukundu zuela tabernatik independente zen kafetegia irekitzeko, lizentzia eskariaren arabera *despacho de cafés y licores*, Micaela Ormazabal, María Cristóbal, Eufemia Mendizabal, Josefa Iturralde eta Lucila Lacebrón ziren beste tabernari emakumeak⁵². Emakume hauek tabernetan janari-denda izan zezaketen eta, etxeko goiko solairuetan apopilo-etxea izan ohi zuten. Horrela ba, Juana Gaztañagaren kontrako salaketa batzuri esker badakigu bere tabernak hala nolako arrakasta zuela. Izan ere ugariak dira bere kontrako salaketa eta isunak. 1908ko urriaren 28an, Gaztañaga andrearri salaketaren berri ematen zaio, urriaren 1ean tabernan jendea zuelako, udal araudiko 10 eta 12. artikuluetan ezarritako araudi-haustea eginez. Egun horretan, gaueko ordubiak eta laurden zirelarik lanean zegoelako. Baina, aguazilak salatzen zuenez, Gaztañagak behin eta berriz hausten zuen araudia, eta maiatzaren 19an eta 22an batez besteko 5 eta 10 pezetako isunak ezarri zitzaizkiola adierazten zaigu⁵³. Urte batzuk lehenago ere, adibidez 1900ko maiatzaren 23an araudiko 7. artikuluan ezarritakoaren kontrako araudi-hausteagatik isuna jaso zuen.

51 A.U.A., 37 H/11 (1896-1924).

52 A.U.A., 37 H/11 (1896-1924).

53 A.U.A., 49 H/1 (1895-1937).

Baina araudiaren artikulua gehiago hausten zituen Juanak, eta 1902ko martxoaren 20an, 5 pezetako isuna jarri zioten 6. artikulua ez betetzeagatik hil bereko 16ko gauean, eta irailaren 18an, Gaztañagak udaletik igaro zedin jasotako deialdiei ez erantzuteagatik, ohartarazpen berri bat jaso zuen eta udaletik igorri zioten gutunean gogor adierazten ziotenez, udaletxetik pasa behar zen:

“...sin excusa ni pretexto alguno, advirtiéndola que, en caso contrario se la impondrá el correctivo correspondiente por desobediencia a mi autoridad, además de la que se hiciera acreedora por la contravención indicada”.

Argi dago zenbait tabernarientzako isunak balizko irabaziak baina txikiagoak zirela eta beraz, nahiago zutela taberna ordu txikietan irekita eta bezeroekin edukitzea, aguazilen salaketaren ondorioz jasotzen zuten isuna ekiditea baino. Bestela ezin ulertu daiteke tabernari hauek beren negozioak araudiz kanpo irekita mantentzea. Egia da, udal arduradunen presioak zirela eta, taberna horiek kanpokaldetik itxita mantentze-rahartuak aurkitu zirela emakumeok, baina haien bezeroek bazekiten atzeko atetik sartzen, eta alarmaren bat jasotzen zenean diskrezioz ihes egiten saiatzen ziren, eta astirik ezean, argiak itzali eta ixil ixilik geratu ohi ziren. Beti bezala, agintariek ere bazituzten beren errekursoak, eta aguazilak zorrotz eta fin ibili ohi ziren araudi-haustekak ikertu eta salatzen. Horren adibide, salaketa batetik atera dugun pasarte hau. Ildefonso Irazu alkateak 1902ko irailaren 20an luzaturiko txostenean jasotzen duenez, Saturnino Txopeitak egindako salaketaren ondoren egindako ikerketaren arabera:

“...Doña Juana Gaztañaga vecina de esta villa, tabernera, habitante en la casa número dos de la Calle Nueva de esta villa, ha cometido la falta prevista en el artº. 7º de las ordenanzas municipales al tener gente del pueblo en su establecimiento o taberna a las once y media horas de la noche del catorce del actual, después de cerradas las puertas como se ha comprobado...”.

Bezero eta tabernarien arteko laguntzari esker, aguazilen lana oztopatzea lortzen zuten askotan. Garai berdintsuan egindako salaketa bati esker, adibidez, konplizidade hauen funtzionamendua ikus daiteke. Manuel Elordiren tabernan entzuten zen soinuak ohartarazita, agualzilak atea jo zuen gaueko ordubatak hamargutxi zirenean. Ixiltasuna gailendu zelarik. Denbora jakin batez ate joka ibili ondoren, Elordik atea zabaltu zituen eta bertan apopilotzan zituen bi gizon aurkitu zituen soilik, baina aguazilak txostenean jasotzen zuen bezala:

“...estamos seguros que tenía gente guardada seguramente en otra habitación en calle Sn. Pedro. A la una se encontró un corrillo delante de Berrospe con doce o catorce botellas y no quisieron declarar de dónde habían sacadas (SIC) las botellas, pero juzgamos nosotros que habían sacadas (SIC) de Berrospe”.

Juana Gaztañagaren apopilo-etxean bizi edo lan egiten zuen Bruno Olaberriak ere salaketa jaso zuen, Gaztañagaren establezimenduaren sotoan edariak saltzen omen

zebilelako 1907ko ekainaren 6an, 15 pezetako isuna jaso zuen tabernariak, eta horrela esaten zen salaketa orrialdean:

“Considerando que los dueños de los establecimientos son responsables de las faltas que se cometan por los dependientes de los mismos o sus allegados a cuyo cargo estuviere el cuidado del establecimiento a la hora en que la falta se comete, y que por lo tanto siendo el establecimiento de que se trata de Doña Juana Gaztañaga recae sobre esta la falta cometida por Don Bruno Olaverria la noche del treinta al treina y uno de Mayo último....”.

Urte bereko maiatzan, Juanak salaketa berria jasotzen zuen, Francisco Agirrezabal deituriko gizon bat harrapatu baitzuten apopilo-etxerantz edariak igotzen zituen bitartean beste gizonezko batzurekin batera. Gaztañagak ez zekien idazten, eta bere izenean alabak sinatzen zituen agiri ofizialak. Alabaren izena Aurelia Zatarain zen.

Baina Juana Gaztañaga ez zen tabernari emakume araudi-hausle bakarra. 1899ko abenduaren 24an Francisca Otegik 7. artikuluan ezarritakoaren araudi-haustea zela eta, isuna jaso zuen, eta 1900ko maiatzaren 26an beste horrenbeste 6. artikulua ez betetzeagatik. Josefa Iturraldekin ere taberna bat zuen Kaleberriko 13. zenbakian, 1906ko urtarrilaren 19an, Ceferino Ansa alkatea zelarik 6. artikulua araudi-haustea zela eta ezarri zitzaion 5 pezetako isunarengatik. Berarekin batera, alaba Dolores Begiristainek egiten zuen lana tabenan. Tabernaren jabea gizona zenean ere, emakume bat egon zitekeen bertan lanean, normalean familiako norbait, emaztea edota alaba bat. Bestelako emakume gazteak ere egin zitezkeen lanbide horietan, adibidez, Antonia Etxeleku, kaxako umea izandakoak tabernari lana aurkitu zuen Zizurkilgo Teodosio Almorzaren ostatu eta tabenan 1918an⁵⁴. Emakumea zen ere *Sociedad Reunión de Amigos* elkarteko atezaina⁵⁵, eraikin bereko kafetegiko ugazaba bezala agertzen zaigun emakume bat zela⁵⁶. Antza emakume honek alokatzen zien eraikinaren zati batean biltzen ziren bertako bazkideak. 1901eko uztailaren 1ean elkarteko lehendakari zen Ceferino Ansa igorritako gutun batetan, ekainaren 16an gaueko 12ak paseak zirela eta ezarritako 10 pezetako isuna zela eta egindako errekurtsioan jasotzen denari jarraiki⁵⁷:

“...La mencionada sociedad (si tal nombre merece) paga a la conserje o dueña del café una renta por una salita y dos habitaciones con derecho a ocuparlas hasta las 12 de la noche; desde cuya hora en adelante la dueña es la única que dispone de los citados locales; y por lo tanto parecería regular, que si ha habido infracción sea o bien ella la multada o bien los individuos que hayan infringido.

(...)

54 A.U.A., 4 H/11 (1899-1940).

55 A.U.A., 49 H/1 (1895-1937).

56 Francisca Maizkurrena, Aldanondoren alarguna.

57 A.U.A., 49 H/1 (1895-1937).

Además la mencionada casa de la sociedad o café tiene otras habitaciones donde ha podido estar la gente denunciada y claro está que aún en este caso no podrían ni el Presidente ni la Sociedad hacerse solidarios de la falta.

Nada puedo decirle a V. respecto a que se juegue o no a los prohibidos; nunca he jugado, ni sé jugar a ello ni las pocas veces que acudo a d(ic)ha sociedad me he apercebido de semejante abuso”.

Langileria ugaria zen hiribildu industrializatua zen Andoain, eta gizarte industrial honi loturiko aisialdiak tabernarekin zerikusi handia zuen. Baina aisialdi hori gizonezkoen aisialdia zen, aisialdi maskulinizatua eta sozializazio mota horretan emakumezkoen parte hartzea tabernari izaeratik haratago moralki zigortua zegoen. Hori dela eta, gune hauetan gizonezkoen presentzia aurkituko dugu isunetan ikusi ahal izango dugun bezala.

1.2.4. Esne-saltzaileak.

Emakume batzuk esne saltzaileak ziren, adibidez, 1922-1933ko isunak ikusita, hainbat emakume esne saltzaile ezagutzeko aukera izan dugu: Justa Larburu, Carmen Iturrioz, Rosa Amundarain, Carmen Garagorri, Antonia Oiartzabal, Micaela Ulanga, Micaela Arese. Isunen gaiarekin lotuta, aipamen berezia egin nahi dugu, salaketak irakurri ondoren. Gizonezkoekin gertatzen ez den bezala, emakumeen kasuan isunak gutxitan errepikatzen dira⁵⁸.

1914ko martxoaren 20ko instantzia batean ikusten dugunez, zendutako Jeronimo Sobernil botikariaren hiru alabek, aita Kale Nagusia 24. zenbakian zuen botikarekin jarraitzeko erabakia hartzen dute. Horretarako, aitaren ordeaz, eta legeak behartuta, horretarako formakuntza zuen Francisco Martín García farmazialariaren gidaritzapean jarri zuten negozioaren kudeaketa. Hiru alabek botika mantendu nahi zuten ogibide gisa, haien izenak Lucia, Dolores eta Natividad⁵⁹.

Aurrerago aipatuko dugun gripe izurrite bati esker, 1918an hainbat emakume ikusten ditugu beren lanbideekin. Dohaintza-emaleen diruarekin, herriko familia behartsuei elikagai oinarritzkoak ematen zitzairen. Urriaren 16an Concepción Usandizaga⁶⁰ esneketariak 6 litro esne eramaten ditu Merkatu-Etxera, trukean 2,40 pezeta jasotzen dituelarik. Marcelo Goikoetxearen alarguna⁶¹ den harakinak 148,87 pezeta jasotzen ditu salda egiteko 90 ¼ haragiren truke, eta 235,49 pezeta beste 143 kilo haragiren trukean hilaren

58 A.U.A., 40 H/3.

59 A.U.A., 226 H/13.

60 Urriaren 31ean Generosa Etxeberria agertzen zaigu Concepción Usandizagaren bazkide gisa 41,20 pezeta kobratzen, 5 litro esneren ordaintetan.

61 Abenduaren 19an Igancio Goikoetxeak, amaren izenean 43,72 pezeta jasotzen ditu 25 ½ libra haragiren truke.

30ean. Urriaren 16an, Carmen Garagorrik 13,20 pezeta 33 litro esneren truke, hil bereko 30ean beste 54 pezeta 135 litro esneren ordainetan. Urriaren 18an, berriz, Dolores Mendizabal harakinak 26,25 kilo haragi eta bestelako produktuekin 3 libra, saltzen ditu salda egiteko, guztira 92,62 pezetaren truke. Amaitzeko, gaitza horrek eragindako gaixo kopuruak behartuta, Andoainek erizain bat kontratatu zuela dakigu. 1919ko otsailaren 19an, Agustina Celti erizainak 16 pezeta jaso zituen, erizaintza lanetan egin zituen 4 lan-egunen ordainetan⁶².

Esnea saltzen zuten emakumeak esneketariak ziren, esne-saltzaile hauek Donostia bezalako hirietan saltzen zuten baserrietako esne produkzioa. Donostiako udaleko osasun ikuskaritza sailak zorrotz ikuskatzen zituen emakumeok, eta Donostiako araudiaren 15. artikulua arau-haustea dela eta ezarritako isunen bitartez ikusiko dugu esneketari gehienak emakumezkoak zirela, nahiz eta gizonezkoak ere bazeuden Arau-haustearen zergatia araudiak ezartzen zituen litro bakoitzeko gantz (30) eta aterakin idor (120) kopuruak ez betetzea izan ohi zen⁶³.

6. TAULA.
ANDOINGO ESNE-SALTZAILEEN
ZENBAIT IZEN ETA HAUEI JARRITAKO ISUNAK DONOSTIAN.

ESNEKETARIA	ISUNA ETA ZIOA	DATA
C.G.	5 pezeta bi aldiz gantz (27 eta 23) eta aterakin idor (92,20 eta 89,90) gutxiagoko esnea saltzeagatik.	1922/10/05
	10 pezeta, gantz (27) eta aterakin idor (94,80) gutxiagoko esnea saltzeagatik.	1922/10/06
A.O.	5 pezeta, gantz (27) eta aterakin idor (109,10) gutxiagoko esnea saltzeagatik.	1928/12/27
	10 pezeta, gantz (25) eta aterakin idor (100) gutxiagoko esnea saltzeagatik.	1929/05/07
M.U.	5 pezeta, gantz (28) eta aterakin idor (102,60) gutxiagoko esnea saltzeagatik.	1929/07/07
M.A.	Udalari isunaren berri ematen zaio, baina atxikitako isuna galdua da.	1929/09/05

Iturria: egileak moldaturikoa artxiboko datuak erabiliz. A.U.A., 40 H/3 (1927-1933).

62 A.U.A., 226 H/19.

63 A.U.A., 40 H/3 (1927-1933).

Emakume hauek, araudi-hauste bat baino gehiago egiten bazuten bi urteren buruan, esnea saltzeko Donostiako udalak ematen zuen matrikula edo patentea berri-tu beharra zuten. Baita isuna jarri aurretik, egiten zituzten araudi-hausteak zirela eta ohartaraziak izan ohi ziren, beraz, guregana iritsi diren esneketarien izenak isuna jaso zutenena dela argitu behar da, eta beraz, esneketarien kolektiboa zabalagoa izango zela uste dugu. Ohartaraziak bai, baina isuna jaso ez zutenen izenak ere ez zaizkigu iritsi. Hauei ere bi urteren buruan patenteak edo matrikulak berritzeko agindua ematen zizaien. Isuna edota ohartarazpena jasotzen zuten esneketariak aurrerantzean bi urtean behin berri-tu behar zituzten patenteak. Patente hauek eskuratzeko, diru kopuru jakin bat ordaindu behar zen, beraz, araudian ezarritako baldintzak zehatz mehatz betetzen zituzten esne-saltzaileak sariatuak ziren patentea berritzeko beharrik ez bait zuten. Guregana iritsi diren isunak ikusirik, esanguratsua da esneketari emakumeek gizonezkoek baino isun gutxiago jasotzen zituztela, eta azken hauek berrerorleagoak zirela ematen du⁶⁴.

1.2.5. Irakasleak.

Emakumeek izan zezaketen jomuga gogotsuena ikuspegi profesional batetik irakaslearena zen. Baina horretarako, familiak gutxieneko *status* ekonomiko eta soziala behar zuen. Langileen alabek ametsetan baino lortzen ez zuten helburua izan ohi zen. Emakumeak, lekaime eta alargun jabedunekin batera nolabaiteko entzute edo ospea eskuratu zezaketen gizartean, eta formakuntza on batera ailegatzeko bide zuzenena izaten zen magisteritzarena.

1899ko apirilaren 10ean. Josefa Munita irakasleak haurreskolarentzako materiala erosteko aurrekontua aurkeztu zuen, 1898-1899 ikasturteari zegokiona, guztira 103, 13 pezetako aurrekontua aurkezten zuelarik⁶⁵:

64 A.U.A., 40 H/3 (1927-1933).

65 A.U.A., 33 H/4 (1858-1939).

7. TAULA
ESKOLARENTZAKO MATERIALA, KOPURUA ETA AURREKONTUA.

MATERIALA	KOPURUA	AURREIKUSITAKO PREZIOA
Kartillak	36 unitate (u)	1,25 pezeta/unitateko (p/u)
Liburu bigarrengoak	12 u	0,50 p/u
Burilak	12 u	0,50 p/u
Esku paperak "pautado nº 1" klasekoak	1 u	0,50 p/u
Erratzak	3 u	Gutzira 1 pezeta
Idazluma kirtanak	24 u	0,50 p/u
Puntak	1 kutxa	0,75 pezeta/kutxako
Arbelak	12 u	Gutzira 2 pezeta
Arbeltxoak	12 u	Gutzira 0,20
Tinta potoak	4 u	Gutzira 1 pezeta
Idazmahaia	1 u	3,50 pezeta
Klarionak	1 kutxa	1,25 pezeta
Tinbrea	1 u	2,80 pezeta
Naturaren Historia kolekzioaren laminak, animalia, landare eta mineralen adibideekin	1 u	50 pezeta
Pala	1 u	1,18 pezeta
Ureztontzia	1 u	1 pezeta
Kortinak egiteko tela urdina	25 metro	0,70 pezeta/metroko Gutzira 17,50
Kortinak egiteko tela urdina	7 metro	0,80 pezeta/metroko Gutzira 4,20

Iturria: egileak landutakoa artxiboko datuak erabiliz. A.U.A., 33 H/4 (1858-1939).

1906ko martxoaren 13an Juana Bautista Alkain gazteak idatzi bat luzatzen zion Udalari. Bertan adierazten zuenez, ikasketak handitzeko asmoz atzerrira joateko asmoa zuen, gero bere ardurapean zeuden haurrak heitzeko. Bere hitzetan, atzerrian irakas-kuntza "...se halla muy adelantada esta clase de instrucción". Urtebeteko baimena

eskatzten zuten, eta bere ordezkoi irakasle bezala Concepción Larreta maisua proposatzen zuten⁶⁶. Badakigu, 1904an irakasle zela eta ere, 206,25 pezetako aurrekontuarekin⁶⁷

8. TAULA ANDOAINGO IRAKASLE BATZUEN IZENAK.

IRAKASLEAK	ERREFERENTZIA URTEA
Josefa Munita	1899
Juana Bautista Alkain	1904-1906
Maria Bernabe	1909
Pia Fermina Astrain	1891-1910
Ascensión Etxeberria	1913
Jacinta Más y Garmendia	1915
Maria Agustina Badiola	1920-1932

Iturria: egileak landutakoa artxiboko datuak erabiliz. A.U.A., 33 H/4 (1858-1939).

1.2.6. Beste lanbide batzuk.

Emakume ugarik lan egiten zuten, eta gure lanak horietako batzuen izenak eta ogibideak plazaratu arren, badakigu oraindik izen gehiago daudela izkutuan. Eskolak nahiz udal eraikinak garbitzen zituztenak emakumeak ziren. Irakasle emakumeek beraiek garbitzen zituzten arren, gizonezkoen kasuan emakumeak kontratatzen ziren garbiketa lanetarako.

Arrain-saltzaile emakumeak ibiltzen ziren Andoaingo kaleetan zehar arrainak saltzen... Lan horretan aritzen ziren batzuk hauek ziren: Carmen Olano⁶⁸, Maria Sarasola, Kaletxikiko Otero, Joxepa Rekalde, Angeles Zúñiga,...eta baita ere Donostitik zetozen bi edo hiru gehiago.⁶⁹

66 A.U.A., 35 H/1 (1885-1940).

67 A.U.A., 33 H/4 (1858-1939).

68 OTAEGI OLANO, Joxe eta OTAEGI NEGREDO, Karmele: "Guraso maiteak. Itzuliko ez zen soldadu batek frontetik bidalitako gutunak", *Leyçaur* 8, 2004, 263-287 or. (eranskinak).

69 *Atzoko Andoain eta andoaindarrak, Op. Cit.* 3 or.

Andoainen emakume batek hartu zuen probintziaren langile gisa, telefonoaren ardura, gure datuaren arabera 1913ko apirilaren 22tik aurrera emakume baten ardurapean geratu zen zerbitzu hori. Lehenago, gizon baten ardurapean geratu zen modu behin-behinekoan. 1910ko martxoaren 13an telefono probintziala jarri zen alondegian, eta bertako udal arduraduna zen Jose Maria Iztuetaren ardurapean funtzionatzen hasi zen, eskupeko baten truke. Haatik, 1911ko urtarrilaren 1etik 1913ko apirilaren 22ra bitartean, telefonoaren ardurarekin jarraitu zuen arren, kexati agertzen zen idatzian, izan ere, 2 urte eta 4 hilabete zeramatzan inolako ordainketarik jaso gabe. Hitzokoin mintzo zen bere idatzian Iztueta⁷⁰:

“... desde que se estableció a (sic) venido aumentando considerablemente el trabajo pero a pesar de hello (sic) cree haber cumplido con toda puntualidad y celo todos los servicios que le estan encomendados robando al sueño y a las horas que tenía señaladas para el descanso corporal”.

1917ko zeharkako erreferentzia bati esker badakigu telefonista bat beharrea gehiago zirela *“D. Ignacio, padre de las telefonistas de Andoain”* aipatzen bait zaizkigu agiri batean. Baina ez ditugu emakume hauen izen abizenak aurkitu orain arte⁷¹.

1924ean Udalak herriko 5 udal eskolen garbiketarako lanpostu bat atera zuen lehiaketa-publikoan, gehienez 1.000 pezeta urteko soldata iragarritz. Hainbat emakumek eskeintzak luzatu zituzten Udalari. Haien izenak iritsi zaizkigu:

- Delfina Laskurain Ibañez, 33 urteko alarguna.
- Josefa Subiza, Francisco Sueskunen alarguna, Larramendi kaleko 19. zenbakiko bardean erroldatua.
- Pilar Arantzabal.
- María Aipuzurua.
- Maria Elizegi Aristondo.
- Ana Larrañaga Gallastegi, ezkondua, Larramendi kaleko 15. zenbakiko 5. solairuan erroldatua.

Lehiaketa honetan parte hartzeko idatzietan datu interesgarriak aurkitu ditugu. Delfina Laskurainek, adibidez, bere iritzia ematen du egin beharreko lanaren harira, eta bere lanaren zioa azaltzen die Udaleko arduradunei, noski, berak bazekielako gizon talde baten eskuetan geratuko zela azken erabakia, eta gure ustez egin beharreko lanaren garrantzia eta profesionaltasunaren aitortza aldarrikatzeko asmoz idatzi zuen.

70 A.U.A., 35 H/1 (1885-1940).

71 A.U.A., 33 H/4 (1858-1939).

Horrela ba, Laskurainek bere lan proposamenaren nondik norakoak luzatu zizkien idatzian, berak idatzitako hizkuntzan txertatzen dugu hemen:

- “1ª *El barrido diario de cada escuela comprende no solo barrer el suelo sino limpiar el polvo y los cristales.*
- 2ª *Dada la capacidad de cada escuela, el crecido numero de cristales y la distancia a que se hallan aquellas, así como la penosa labor de quitar y poner todas las mesas-bancos, puede calcularse en unas seis horas diarias la labor de limpieza a realizar.*
- 3ª *Calculando en cincuenta céntimos por hora el jornal, dan un total de más de novecientas pesetas anuales, y*
- 4ª *Suponiendo fundadamente que el gasto de útiles de limpieza, como son escobas, trapos, jabón, etc., asciendan a cien pesetas anuales, se compromete a hacer a limpieza diaria”.*

Aipatu udal-eskolak garbitzeaz aparte, astean behin urez garbitzea egiteko engaiamendua hartzen zuen. Lan guzti horiek, gehi beharrezkoak izan zitezkeen erratzak, zapiak, xaboia eta bestelako tresnak bere kontu hartzearen truke 1.000 pezeta urteko eskatzen zituen. Egun batzuk geroago, aurreko proposamenari beste lan bat gehitzen zion, astero eskolak hondarreztatzea. Bigarren idatzi honetan azaltzen zuenez, proposamen merkeenari emango zitzaiola lana, eta horregatik aurreko idatzian ezarritako kopurua merketu egiten zuela adierazten zuen, salneurri berria 900 pezeta urteko.

Gainerako emakumeek aurkezturiko idatzietan, emakume hauen arteko lehiaketa ikusten da, eta atentzioa deitzen du maiatzetik urrira bitartean egin zirela proposamenak. Hau da, prozesu luzea zela dirudi, presa gutxikoa. Horrek aditzera ematen digu beste norbaitek aurretik ere ikuzketa hori egitea bere ardurapean zuela. Proposamenei dagokienean, Josefa Subizak 1.000 pezetatan egiteko eskeintza egiten bazuen ere, Pilar Arantzabalek 970 pezetatan egiteko asmoa erakusten zuen, eta lanpostua berria zela jakin arazten digu, agian ordurarte maisuen esku zegoelako arazketa? Maria Aipuruak, 900 pezetatan egingo zuela esaten zuen, eta lanpostuaren barne udaletxeko eskailerak garbitzea ere jasotzen zela argitzen digu. Maria Elizegik 799 pezetatan egingo zuela iragartzen zuen bitartean, Ana Larrañagak 875 pezetatan egiteko eskaintza egiten zuen⁷². Aukeratua Maria Elizegi izan zen azkenik⁷³.

1924ko abenduaren 5ean aurkezturiko idatzi bati esker, badakigu Catalina Olanio deituriko emakume batek 14 hilabete zeramatzala udalerriko zaborrak biltzen, udalaren

72 A.U.A., 35 H/1 (1885-1940). Garai berean, adibidez, Juan Flamarique udal langileak bere funtzioengatik 2.000 pezeta kobratzen zituen, eta soldataren igoera bat eskatzen zuen.

73 Udal kontuetan hala agertzen da. A.U.A., 147 H (1925).

gurdiaekin etenaldirik gabe, herritarren pozarekin eta gurdia behar zituen konponketak bere kontura eginez, eta zerbitzu horiengatik diru-kopururen bat eskatzen zuen⁷⁴.

Andoainen estanko bat ere bazegoen, eta guk dakigula Josefa Zalakainek kudeatzen zuen 1905 urtean. Baina estankoaz gain, etxea alokatzen ikusten dugu. Alokairuan hartu zuen etxea edo gela, ez baita azalpen gehiagorik ematen, Francisca Anjuria emakumeak, bere bi umetxoekin. Anjuriak ezin zion zorpen guztia ordaindu Zalakaini eta honek hilabete bat barkatuko ziola esan omen zion, izan ere Anjuriaren senarrak Somorrostroko meategian egiten omen zuen lan eta lan horrekin irabazitakoarekin nekez biltzen zuen xoxarik emazte eta umetxoentzat. Hortaz, Anjuriak Bizkaiko bidea hartzeko asmoa zuelarik, Bilboko Zorrotza auzora, aitaren etxera eta senarrarengandik hurbilago egoteko. Horretarako Udalari diru laguntza eskatzen zion Zalakaini zor ziona ordaintzen lagundu ziezaion⁷⁵.

1.3. Emakumeen protagonismo soziala Andoainen.

Iraultza frantsesetik aurrera, Europako gizartean garaitu zuen ideologia burgesaren ondorioz, emakumeak gizartean ikusezin izaten jarraitu zuen hein handi batean. Emakumea etxe barnean sartuta jarraitzea nahi izan zen. Ondorioz, emakumea ikusezin bilakatu nahi horrekin batera, gizarteko zati behartsuena, menpekoagoa, etxeko lanekin zein zaintzarekin estuki lotuagoa, baliabide ekonomiko gutxiagorekin, protagonismo sozial ahulagoarekin eta, azken finean, botere gutxiagorekin aurkituko dugu. Pobrezia eta behar sozialaren beharra aztertzen badugu, ezin bestean emakumearen izena izango duela ikusiko dugu XX. mendeko lehen hamarkadetan. Emakume gehienak, gainera, sozialki ikusezinak ziren. Ezin ahantzi, beraz, emakumea alarguna bilakatu, eta batez ere, zaharra zelarik, bere kategoria soziala beheitzen zela.

Espazio publikoan, emakume eta gizonezkoek funtzio ezberdinak zituzten eta desoreka bien artean nabarmena zen: hizkera, irudikatzea, kultura, historia eta bestelako arlo publikoetan ikus zitekeen aipatzen duguna.

Andoainek bizi zuen hazkunde demografiko eta ekonomikoaren adierazle garbia da Alondegiaren eraikuntza⁷⁶. 1892-1893 bitartean, Alondegia zabaldu eta altxatu behar izan zuten⁷⁷. Garapen ekonomikoak, zerbitzu berrien beharra eskatzen zuen, eta udal agintariak zergen bitartez diru iturri berriak bilatzen zituzten. Askotan, zerga berriek, langilegoaren, eta orokorrean biztanlegoaren bizi kalitatean eragina zuten. Andoain-

74 A.U.A., 35 H/1 (1885-1940).

75 A.U.A., 18 H/4 (1894-1933).

76 A.U.A., 237 H/2. Eraikuntza Jose Joaquin Esnal jaunari esleitu zitzaion, eta honek Ramon Arrueren aldeko lagapena egin zuen.

77 A.U.A., 40 H/20.

go emakumeek, etxeko andreak izanik beren familien osasuna eta elikadura egokiarren arduradun nagusiak izanik, produktuen garestitzearen aurrean jarrera oldarkorra erakutsiko zuten beharrezkoa zen bakoitzean. Hortaz, ez da batere harritzekoa, 1895ean herriko emakumeek esnearen gaineko zerga berriaren aurrean liskarrak sortzea. Emakumeen jarrerak herriko agintariak beldurtu zituen eta, langilegoarentzako ezinbestekoa zen lehen mailako produktuaren gaineko zerga berria atzera bota zuten.

Luis Irazuk 1895eko martxoaren 24an Andoaingo alkateari idazten zion gutunean, Alondegiko merkatuko plaza baten enkantean bizitako egoeraren inguruko hausnarke-ta egiten zuen⁷⁸:

“...sobre todo la razonada exposición que muchas madres de familia elevaron en contra del impuesto de la leche.

Cualquiera alcanzaba la gran división que hubiera nacido en el pueblo al llevar a efecto todo lo que esa Corporación creía factible; los disgustos y sin sabores que habría sin cuento, y lo que es peor, el triste ejemplo que se daría de desunión y encono cuando no de venganza.

Convenía en lo posible evitar este peligro, y como medida más eficaz para ello, me hice cargo de dicho remate; no por el lucro del negocio pues bien sabía que en él perdería unas doscientas pesetas, sino para conseguir la paz, para evitar el mal ejemplo. Y consecuente en esa actitud no sólo no puedo negarme sino que cedo gustoso a los cortadores los otros dos puestos en la forma que me indica”...

Andoaingo emakumeek, bertako gizarte eta ekonomian zuten pisuaren isla dira beren gizonezko kideekin Udalaren aurrean egiten zituzten idatzi, proposamen edota kexuak. 1896ko azaroaren 14an, herriko 19 tabernarik idatzi bat igorri zioten Udalari, horietatik bi emakumezkoak ziren: Josefa Iturralde eta Francisca Otegi. Idatzi horretan, tabernariak kexu ageri ziren, izan ere, tabernen itxiera ordutegia bete arazteko Udal agenteen jokamoldearekin ez zeuden ados. Jakinarean gainean jarri eta jasaten omen zituzten isun eta injustiziekin amaitzeko neurriak hartzeko eskatzen zioten. Arazoaren berri ematen zioten gutunean Alkateari:

“Los recurrentes saben que el artículo 6º de las Ordenanzas Municipales de esta localidad dispone ‘que las tabernas deberán cerrarse en todo el año a las once de la noche’, cuya disposición encuentran acertada y por lo tanto está de más que digan se hallan dispuestos por su parte en hacer lo posible para que tenga el debido cumplimiento; más del cumplimiento matemático a la prudencia que deben observar la Autoridad o sus encargados para que consideren infringido dicho artículo existe su distancia y esta distancia desconocen los Agentes debido sin duda porque buscan más bien el lucro que de ello obtienen y no el buen orden y paz que debe reinar entre los ciudadanos, que es el objeto de la ley.

78 A.U.A., 40 H/12 (1895-1927).

Perfectamente sabe Vs que en las tabernas se bebe y que la bebida desarrolla diversos genios en los hombres, hallándose los unos dispuestos siempre a obedecer y otros a contrariar por bien que se les hable. Ahora bien, el tabernero en cumplimiento de su deber empieza por decir que liquiden sus cuentas y salgan pues que faltan pocos minutos”.

Logrando echar antes de las once casi a todos, pero no puede con alguno que otro remolón con quien el tabernero está peleando porque salga haciendose mala sangre, y en esto dan las once, entra el Agente a los dos minutos, y diciendo que dieron las once, sale, y al cabo de dos o tres días, va con papel de cinco pesetas de multa al tabernero”.

Udal agenteen jokamoldea ez zitzaien bidezkoa iruditzen narritarazlea baizik. Beren irudikoz, agintariaren agenteak ez lirateke zelatan egon behar, 11ak noiz eman eta tabernan sartzeko isuna ezarri asmoz *“como el gato cuando saldrá del agujero la presa que codicia para atraparla, sino que debe ayudarle al tabernero en su noble empeño”*⁷⁹.

Baina protagonismo sozialak zer ikusi handia du berdintasunarekin nahiz emakumearen ikuspenarekin. Emakumeak asko ziren, baina gizonak baino pobreagoak, menpekotasun handiagorekin, etxeko lanetara eta zaintzetara mugatuak asko eta asko, zerbitzu gutxiagorekin, errekurso ekonomiko gutxiagorekin, finean, protagonismo sozial gutxiagorekin, hots, botere gutxiagorekin. Eta protagonismorik izatekotan, emakumearen ustezko bertuteekin loturiko gaietan izango da: erlijioa, umeak, zaintza...

1899ko abenduaren 25ean Kaxako Umeen Babeserako Herri Batzordea antolatzea erabaki zen. Batzorde horrek bilatu eta aukeratuko zituen aurrerantzean tornuko umeen zaintzarako inudeak. Lehen Batzorde honetarako alkateak, idazkariak eta erretoreak hiru emakume hautatu zituzten, izen oneko eta posizio sozial egokiko emakumeak: Dolores Ortuzar, Fermina Astrain eta Maria Galarraga. 1917ko batzordean, Ramona Gaztañaga, Micaela Ignacia Madina eta Bernardina Erro agertzen zaizkigu⁸⁰.

Rif-eko gerra zela eta, zauritutako andoaindarrei laguntza emateko Andreen Batzorra sortzeko deialdia egin zuen udalak 1912an. Ekimen honekin, herrian zehar dirua eskatzen arituko ziren emakumeak antolatu nahi zuten, Marruekoson zendutako edota zauritutako soldaduentzako nahiz haien familientzako diru bilketa egiteko egokienak emakumeak zirelakoan.

Gipuzkoako Gobernadore militarren emazte zen Carlota M. de Almorza andrea-ren deialdiari erantzunez, herriko elitea osatzen zuten emakumeak deitu zituen Alkate jaunak⁸¹:

79 A.U.A., 233 H/1.

80 A.U.A., 4H/11.

81 A.U.A., 244 H/3 (1912-1914).

1. Serafina Usandizaga
2. Ramona Gaztañaga
3. Paula Izaguirre
4. Dolores Ortuzar
5. Maria Ibarrola
6. Dominga Etxebarria
7. Micaela Ignacia Madina
8. Manuela Haranburu
9. Lucia Munita
10. Manuela Enatarriaga
11. Dolores Sobernil
12. Juana Bautista Alkain
13. Bernardina Erro
14. Emiliana Oñate
15. Magdalena Valle
16. Fermina Astrain
17. Maria Etxeberria
18. Maria Luzuriaga
19. Inocencia Aldanondo
20. Agapita Irazu
21. Dolores Lizarraga
22. Nicolasa Barbeito
23. Eloisa Mujika
24. Francisca Huizi
25. Maria Eulalia Mujika
26. Clara Haranburu
27. Genoveva Aldanondo
28. Victoriana Munita
29. Juana Balda
30. Jeronima Ezeizabarrena
31. Dolores Begiristain
32. Joaquina Treku
33. Josefa Ramona Etxebeste
34. Carmen Zalakain
35. Eufemia Mendizabal
36. Juana Garagorri
37. Martina Larburu
38. Isabel Salsamendi
39. Eustasia Zatarain
40. Josefa Pagoaga
41. Tomasa Munita
42. Josefa Munita
43. Maria Isasa
44. Josefa Ignacia Escudero
45. Maria y Juliana Egibar
46. Guillerma Treku
47. Dolores Mendizabal
48. Josefa Antonia Baztarrika
49. Soledad Zubiarrain
50. Claudia Atorrasagasti

Marokoko gerrak eragindako konzienziazioak eraginda, zauritu eta hildakoen aldeko eta haien familiei laguntzeko diru-bilketak arrakasta izan ohi zuen herritarren artean, eta dena lehenago aipatu emakumeen gidaritzapean eta herriko merkatariek lagunduta⁸²:

82. A.U.A, 37 H/5 (1920-1929). Andoain, 1921eko irailaren 7.

9 TAULA
MAROKOKO GERRAN ZEUDEN HERRITARREN ADEKO DIRU BILKETAN
HERRIKO EMAKUMEEK EMANDAKO KOPURUAK.

EMAKUMEAREN IZENA	EMANDAKO DIRUA (PEZETAK)
Martina Zubeldia	2
Bibiana Ezponda	0,50
Juana Josefa Irazusta	0,50
Venancia Pahola	1
Josefa Errekalde	0,25
Saturnina Ugarte	0,30
Joaquina Aizmendi	1
Lucia Iñarra	1
Antonia Usandizaga	1
Claudia Barbeito	2
Tomasa Diaz	1
Antonia Labaien	(biltzailea)
Juana Atxukarro	1
Juana Saenz	2
Juana Fernandez	1,50
Isabel Adarraga	1
Enriqueta Otaegi	5
Josefa Antonia Etxeberria	3
Emakume gazte bat	5
Emakume bat	0,25
Angela Alustiza	0,75
Clara Haranburu	(biltzailea)
Haranbururen alarguna	5
Josefa Arruabarrena	1
Maria Lizarribar	1
Dolores Lizarralde	1

EMAKUMEAREN IZENA	EMANDAKO DIRUA (PEZETAK)
Arrutiren alarguna	5
M ^a Bautista Atorrasagasti	0,10
Petra Mendikote	0,50
Josefa Amonarriz	5
Pilar Pagola	0,20
Teresa Jauregi	0,50
Juliana Zubillaga	0,30
Francisca Mugia	0,20
Josefa Lizeaga	0,50
Manuela Ollakindo	0,50
Luis Irazuren alarguna	15
Rosario Irazu	3
Carmen Irazu	2
Luisa Agirre	5
Karitatezko emakume bat	0,50
Jose Zipitriaren alarguna	5
Modesta Lopez	0,50
Lucia Iñarra	1
Francisca Jauregi	0,75
Eugenia Vasques	0,75
Antonia Iriarte	5
Tecla Pagadizabal	0,50
Maria Algarate	0,25
Saturnina Olakindia	0,50
Serafina Martínez	2
Josefa Ignacia Zabala	1
Dolores Garcia	1
Arrain saltzaile emakume bi	0,25
Felicitas Fernandez neskatila	0,50
Josefa Antonia Aiestaran	0,50
Francisca Otegi, Uraien alarguna	1

EMAKUMEAREN IZEN	EMANDAKO DIRUA (PEZETAK)
Romana Arizkorreta	0,50
Ponceren emaztea	¿?
María Merino	1
Francisca Igarategi	1
Carmen Iraunzeta	0,25
Francisca María Errandosoro	2
Fernanda Larburu	2
Dolores B., Garateren emaztea	5
Ramona Carrera, Saldiasen Emaztea	1
Basilisa Sumillera	1
Luisa Zabaleta	0,50
Josefa Haranburu	0,50
Nicolasa Martínez	1
Josefa Alkain	1
Dolores Iturrioz	1
Margarita Goenaga	1
Joaquina Gorostegi	0,50
Casimira Monreal	1
Magdalena Cano	1
Joaquina Lizarreta	1
Manuela Etxarrain	1
Leoncía Arburu	1
Manuela Haranguren	1,50
Plácida Aldaluz	1
Micaela Etxeberria	1,50
Juana Lazkibar	2
Juana Garagarza	1
Emilia (?) Bazterra	1
Felisa Zubasti	1
Josefa Antonia Etxebeste	0,50
Mari Cruz Zarautz	1

EMAKUMEAREN IZEN	EMANDAKO DIRUA (PEZETAK)
Carmen Olano	0,50
Francisca Urreztarazu	2
Ignacia Azurza	2
Benita Arrieta	0,50
Ursula Aierdi	5
Josefa Elordi	1
Josefa Errekalde	0,25
Juanita Izagirre	0,50
Josefa Martinez	1
Rosario Laskibar	2
Fermina Leon	1
Martina Iturrioz	1
Florentina Laskibar	2
Carmen Iturrioz	1
Josefa Arruti	1
Madalena Etxebeste	0,50
Agustina	0,50
Fernanda Arruti	2
Micaela Iturralde	0,40
Magdalena Txintxurreta	0,20
Sobernil Ahizpak	10
Juerta Istueta	1
Mendibururen alarguna	1
Mendizabalen alarguna	10
Juliana Aiarbe	1
Josefa Zabalo	2,50
Ignacio Zalakainen alarguna	(biltzailea)
Karitatezko emakume bat	1

EMAKUMEAREN IZEN	EMANDAKO DIRUA (PEZETAK)
Agueda Eizmendi	3
Concepcion Etxebeste	1
Josefa Sasiain	1
Joaquina Olasagasti	1
Andre batek	3
Marcelina Azurmendi	5
Ildefonsa Laura	2
Carmen Iartza	1
Eusebia Zipitria	5
Maxima Beuba	1
Juana Otegi	0,50
Maria Ugalde	1
Martina Albisu	2
Gregoria Landa	1
Joaquina Jauregi	1
Karitatezko batek	0,50
Teresa Bastarrika	2
Josefa Artola	1
Lucia Lasa	0,50
Maria Lizarribar	1
Maria Goikoetxea	1
Anastasia Brit	1
Agueda Etxeberria	2
Joaquina Etxeberria	3
Karitatezko batek	0,50
Martina Beldarrain	1

Iturria: egileak moldatutakoa, artxiboko datuekin. A.U.A., 37 H/5 (1920-1929).

1868-1910 urte bitartean *Algodonerak* garai oparoa bizi zuen arren, langileek euren eskubi-deak aldarrikatzen ikusiko ditugu. Horrela, 500 langileko 300 gizon-emakumek 8 eguneko greba bati ekin zioten 1901eko maiatzaren 17an. Jasaten zituzten lan baldintza gogorrekin kexu ziren. Lanaldiko lan orduen murrizketa eskatzen zuten, baita lanerako materiala eskura izatea eta Kubako gerratea zela eta egindako soldaten jeitsierarekin amaitzea⁸³.

Eskariaren zioa ulertzeko, kontuan hartu behar dugu lanaldia goizeko bostak inguruan hasten zela, arratsaldeko zazpiak arte irauten zuelarik. Hau da, 14 orduko lanaldiak izan ohi ziren. Ordu kopuru honekin batera, soldatak arrunt murrizak zirela salatzen zuten. Emakumezkoek, halaz ere, gizonezkoek baina gutxiago kobratzen zuten⁸⁴. 1903. urtean, esate baterako, emakumeek jasotzen zituzten 2 pezetako, gizonezkoek 2,50 pezeta jasotzen zituzten⁸⁵.

Merkataritza eta industria guneak erakargarri gertatu ziren lana esparru horietan bilatzen zuten milaka neskatxarentzat. Andoain, herri industrialen alboan kokatzen zen, Tolosa, Hernani, Urnieta eta, bereziki, Donostia bezalako merkataritza, industria eta turismo gune batetik hurbil egonik, emakumeen laneku ugaria emango zuen laster. Zerbitzari lana, tradiziozionalki hala gizonek nola emakumeek gauzaturikoa, emakumezkoen eginkizun gisa identifikatuz joan zen gero eta gehiago. Etxe batean neskame sartzen ziren zenbait gaztek urte batzuk ematen zituzten bertan, normalean etxe barnean, dotea bildu eta ezkondu arte, horixe baitzen lan ordainduaren bila baserria utzitako Andoaingo ehunka neskatxaren lehen helburua. Baina emakume ezkondu askok ere lanean jarraitzen zuten kanpoko neskame lanetan. Batzuetan, neskametzat bizimodu bat zen emakumeentzat, eta lanean jarraitzen zuten adinean aurreratu arte.

Familia dirudunek era hierarkikoan egituratzen zuten zerbitzua: andre etxezaina, inudeak eta sukaldariak. Haurren kontu egiten zuten hazamak bi eratakoak izan zitezkeen: inudeak, haurrari bularra ematen ziotenak, edo haurtzain soilak, edoskiarazten ez zutenak. Inudeak, oro har, baserriar jatorrikoak izan ohi ziren; ume bat mundura ekarri ondoren herriko auzo emakumeren baten kontu utzi eta hirira joaten ziren beste baten haurrari bularra ematera soldata baten truke.

Era berean, mandatari lanak izan ziren emakumeen ardurapean utzitako beste eginkizunetarikoa batzuk. Emakumeek 50 kilometrorainoko ibilaldi luzeak egiten zituzten oinez eta fardalez kargaturik. Urketarien eginkizuna ere ohikoa zen, etxeetan iturriko ura ez zen garai batean. Iturri publikoetan ontziak, txongilak edo upelak urez betetzen zituzten neskak ziren urketariak, ur hori eskatzen zieten tokira garraiatzen zutenak.

83 Andoain, 1901eko maiatzaren 18ko gutuna. A.U.A., 39 H/9 (1901-1923).

84 GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima; eta, MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Op. Cit.*, 5. or.

85 *IBÍDEM*, 8. orr.

Emakumeek egin ohi zituzten etxeko lanen artean, arropa garbitzea zen gogorre-tako bat. Garbiketak egun osoa hartzen zuen, eta gehienetan hilabetean behin egiten zen. Etxeetan iturriko urik ez zegoenez, garbitegi publiko estaliak eraikitzen hasi aurretik, emakumeek ibai ertzera joan behar zuten garbitzera, zurezko taula edo harri baten aurrean belauniko jarririk, edo zaiak jasota eta oinak uretan zituztela.

Emakumeek buruaren gainean zeramaten arropa, otarre batean edo maindire edo ohe estalki batean bildurik, batzuetan 30 kiloz gorako zama garraiatzen zutela. Arropa zuritzea errauts urez egiten zen, halako lisiba natural batez. Era honetara egiten zuten: arropa zurezko upel batean jarri eta oihal zuri batez estaltzen zuten; haren gainean zur errautsak jartzen zituzten, usaina emateko ereinotz hosto batzuekin batera, eta hura guztia ur guztiz beroarekin nahasi eta irazten zen eragin zuritzailea lortu arte.

Prozesua zenbait aldiz errepikatzen zen. Garbitu ondoren, arropa “belarretara botatzen” zen, eguzkiaren bidez zuritzea amaitu eta lehortu zedin. Behin arropa garbitu eta lehorturik, gorde egiten zen ereinotz, sagar, irasagar edo izpiliku lore artean. Indigaztainak eta kanfor bolak ziren sitsen aurkako erremedioa.

Landan zein hirian, garbitzea eta lisatzea ziren emakumeei etxeko esparruan egokituriko zereginak. Garbitegiak emakumeen topaleku eta soziabilitate guneak ziren, garrantzitsuak haientzat. Emakume ezkonduak garbitze eta lisatze zerbitzuak eskaintzen zituzten nolabaiteko diru sarrerak izateko. Garbitzaile lanaren gogorra gorabehera, etxe eta familia ardurarekin bateragarri gertatzea zuen abantaila. Emakumeek bezeroen etxeetan arropa zikina bildu eta garbitu ondoren beraiei itzultzen zieten, piezaka kobratzen zutela. Uda igarotzeko herri eta hirietan, udaldiak lan gehiago zekarren, hala partikularrena nola jatetxe eta hotelena. Neguan hotzak gogorragoa egiten zuen lana, eta esku pitzatuak, ospelak eta erreuma ohiko arazoak ziren emakume horien artean⁸⁶. Andoainek hainbat garbitegi eraiki zituen, bizitza urbanoaren adierazgarri, industrializazioaren ondorioz jende kopuru handi bat biltzen bait zen herrigunean, Larramendi kalean⁸⁷, Zumea kalean⁸⁸, Kaleberrian⁸⁹, Ziako ubidean⁹⁰, Leizaranen etabarren eraikitako garbitegiek, ur horniketarako sarea osatzen zuten eta haien inguruan emakumeen eguneroko bizitza antolatzen joango zen, hauen eguneroko bizitza erraztuz eta gaur egun ulertzea zaila egiten zaigun aurrerakuntza teknologiko garrantzitsua izan zelarik.

Fabriketan lan egiten zuten emakumeek konbinatu egiten zituzten fabrikako zereginak eta emakumezkoen lantzat hartzen ziren beste batzuk, hala nola etxea garbitzea, arropa

86 LLONA, Miren, *Entre señoritas y garçone: historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Málaga: Universidad de Málaga, 2002, 73-90 or.

87 A.U.A., 38 H/10 (1911). Larramendi kaleko garbitegiaren estaldura.

88 A.U.A., 49 H/1 (1895-1937). Arau-haustekak – Askotarikoak.

89 A.U.A., 38 H/12 (1918-1919). Kale Berriako garbitegi publikoaren eraikuntza.

90 A.U.A., 38 H/11 (1919). Ziako ubidean garbitegi publikoaren eraikuntza.

garbitzea, jostea... Gizonak nagusi ziren mundu batean, legeek eta moral sozialak emakumei debekatutakoa gizonaek onartzen zieten mundu batean, fabrika lan egiten zuen emakume langile gazte batek arazoak izan zitzaizkeen, batez ere plantilla gizon-emakumeek osatua bazen. Gizonak eta emakumeak espazio publiko berean elkarrekin bizitzea, familieren ikuskatze kanpo, moduzkotatzen gabekotzat eta portaera moralgabeetarako gonbidapentzat hartzen zen. Gizonen kasuan ez bezala, neska batentzat fabrikako lanak haren feminitatea ere zalantzan jar zezakeen. Ez zaigu harrigarri gertatzen, hortaz, Andoaingo emakumeek, komunitate oso tradizional baten gizarte kontrol estuaren mende egonik, herriko fabrikatik urrun zeuden lanak onartzeko joera agertzea.

Fabriketan lan arau kobratzen zen eta emakumezkoen soldata gizonaekoa lagunena baino apalagoa bazen ere, ateratzen zuten etekin ekonomikoa bestelako lanetan baino handiagoa izaten zen. Dena den, guztiz emakumezkoen industria sektoretzat hartzen zirenetan biltzen zen emakumezkoen laneko kopuru handiena: janarigintza enpresak, kontserba enpresak, ehundegiak eta, jakina, jostundegiak⁹¹.

Emakumeak, komunitatearentzako garrantzitsu ziren hainbat lanbideetan zuten protagonismoari, nahiz erlijioaren arloan zutenari beste bat erantsi behar diogu, apalagoa eta ez oso masiboa. Emakume gutxi batzuek hala nolako ezin geldirik egon bat erakutsiko zuten, sakonago aztertu beharreko emakume esanguratsuek dira hauek. Kultura arloan ere, emakume zenbait oso aktiboak izan ziren Andoain 1916-1931 urte bitartean, gerora garrantzitsua izango zen Juana Bautista Alkainek jokatu zuen papera, emakume euskaltzale eta abertzale izateaz gain, irakaslea ere izan zelako eta ikastolaren bultzatzaile Errepublikara garaiak eta geroago ere⁹².

1920ko urteak oso garrantzitsuak izan ziren emakumeen historiaren ikuspegitik. Lehen Mundu Gerraren inguruan eragin handia izan zuten hainbat aldaketak gertatu ziren gizartearen baitan eta gizonen eta emakumeen arteko harremanetan. Ekonomia eta industriaren garapenetik eratorririko eraldatzeak bizitzaren esparru guztietan gauzatu ziren, eta gertaturiko aldaketak materialak eta ideologikoak izan ziren.

Europako gerrak milioika gizon eraman zituen fronteetara, mendebaldeko ekonomiak behartzen zituela emakumeak lan merkatuan sartzerara, eta horiek gizonaekoa ordezkatu zituzten tailer, fabrika eta bulegoetan. Gerraren ondoren, emakume asko etxera itzuli ziren, baina beste batzuek postu horiek betetzen jarraitu zuten. Gauzak aldaturik zeuden eta ez ziren gehiago berdinak izango, emakumeek erakutsi baitzuten gai zirela lehenago beren gaitasunetarako iritsezinak ziruditen egitekoak gauzatzeko. Espainia bezalako herri neutraletan ere eragina izan zuen bilakaera horrek. Emakume eredu berri bat hedatu zen hirietan, baina Andoain bezalako herri txikiagotara

91 *IBÍDEM*, 70-74 or.

92 A.U.A. 235 H/2.



Europar gertatu zen modura, Andoainen ere 1936 gerra piztu zenean, emakumeek lanpostuak bete eta gerrarako munizioa egiten aritu ziren Laborde Hnos. lantegian. Iturria: AUA, FL 9XX01.

beranduago iritsiko zen joera berri hori. Izan ere, oraindik 1920an, Subijana enpresako buruek eta herriko Sindikato Katolikoak hitzarturiko lan baldintzei buruzko kontratuak gizonetzkoen nagusitasuna erakusten digu oraindik, emakumeek, lantegiko langileria-
ren gehiengoak izan arren, ez dutela inolako pisurik ekimen honetan. Haatik, lan bila zebiltzan andoaindarren zerrendari erreparatuz, emakumezkoak ez dugu topatuko⁹³.

Muga guztiak gaindituta, emakume moderno honek kultura eta halako autonomia pertsonal bat lortzea zuen helburu. Baina emakume hori emakume moderno baten arketipo bat zen gehienbat, etorkizuneko erreferentzia bat errealitatea baino areago, baina emakume horien oihartzunak Andoainera ere ailegatzen ziren. Horrek gizartean gertatzen ari ziren aldaketak islatzen zituen, hirietatik probintziako herrietara aurrerabidearen irudia hedatzen zuen, nahiz emakume tradizionalak eredu nagusia izaten jarraitzen zuen. Emakumeen populazioaren sektore jakin batzuek lanbide berrietarako zuten sarbidean islatzen ziren aipaturiko aldaketak: horretan datza emakume modernoaren garrantzi ideologikoa⁹⁴.

93 A.U.A., 39 H/2 (1920).

94 LLONA, Miren: *Op. Cit.*, 147-172 or.

1918an gripe izurritea bizi izan zuen Europak, eta eragina izan zuen gaitz hark Andoainen ere. Herriko hainbat sektorek bat egin zuten gaitzaren biktimen kontra, eta dohaintza-emaile ugari eman zuten dirua, guztira 3.919,35 pezeta bildu zirelarik. 135 andoaindarrek eman zuten diru-laguntza elikadura gabeziak hasetze aldera. Horietatik batzuk erakunde publiko zein pribatuak ziren, eta hauek izan ziren dohaintza handiena egin zutenak. Hala nola, *Seminario Menor de Andoain*-ek 100 pezeta, *Fabril Subijana*-k 200, *Sres. Portu Hermanos y Compañía* taldeak 250, Andoaingo Udalak 300 eta Gipuzkoako Probintzia Batzordeak 1.300. 135 dohaintza-emaile horietatik hainbat andoaindar emakume aurkitzen ditugu, kopuru xumeagoak emanez kasu gehienetan. Hala eta guztiz ere, guztira dohaintza-emaileen artean 25 dira emakumezkoak edo emakumezkoen gidaritzapean (adibidez, alargunak seme-alabekin edota Sobernil farmaziako hiru alabak). Emakume hauek diru kopuru ezberdinak eman zituzten, bakoitzak bere egoera ekonomikoaren edota borondatearen arabera⁹⁵:

- Joaquin Larretaren alarguna eta seme-alabek, 100 pezeta
- Agapita Irazu eta semeak, 25 pezeta.
- Luis Irazuren alargunak, 25 pezeta.
- Fermina Leonek, pezeta 1.
- Delfina Laskurainek, pezeta 1.
- Ignacia Zabalak, pezeta 1.
- Rosa Amundarainek, 5 pezeta.
- Micaela Arrastoak, 5 pezeta.
- Josefa Antonia Aiestaranek, pezeta 1.
- Carmela Haranburuk, 21 pezeta.
- Agapita Zumaetak, 2 pezeta.
- Elena Marinek, pezeta 1.
- Alkainen alargunak eta familiak, 10 pezeta.
- Guadalupe de Diego andereak, 4 pezeta.
- Marcelo Goikoetxearen alargunak, 15 pezeta.
- Dohaintza-emaile ezezaguna den emakume batek 20 pezeta.
- Juana Josefa Igartzak, 1,50 pezeta.
- Sobernilen alabek, 5 pezeta.
- Dolores Alirik, 25 pezeta.

95 A.U.A., 226 H/19. 1918ko urriak 6ko zerrenda.

- Josefa Zabalok, 5 pezeta.
- Micaela Arizmendik, 5 pezeta.
- Teresa Baztarrikak, 10 pezeta.
- Josefa Aiestaranek, pezeta 1.
- Dohaintza-emaile ezezaguna den emakume batek 5 pezeta.
- Carmela Haranburuk, 4 pezeta.

Urriaren 15ean, dohaintza-emaile berrien izenak agertzen dira, guztira 240 pezeta biltzen direlarik. Horietatik 100 *Seminario Menor de Andoain* delakoak entregatzen ditu⁹⁶:

- Agirre etxeko neskak, 25 pezeta.
- Josefa Zabalok, 5 pezeta.
- Micaela Arizmendik, 5 pezeta.

1921eko azaroaren 15ean, Madrilen bilduta; alde batetik Andoaingo Udalaren izenean, Migel Unanue alkatea eta Dionisio Berrondo erretorea; eta bestetik Karidadeko Mojen Espainiako Probintzia erlijiosoaren zuzendari Joaquin Atienza eta probintzia horretako Mojen bisitari eta Ama Nagusi sor Josefa Bengoetxea; Andoaingo ongintza-aren nahiz eskolen zuzendaritza eta kudeaketa hitzartu zituzten.

Lehen artikuluan adierazten zenaren arabera, benefizentziaren babes-etxe hori sexu bientzako izango zenez, Karidadeko Alabek sexu arteko banaketa bermatuko zuten, morala ahulduta suertatu ez zedin. Sexuen arteko banaketa jangelan, aisialdian, langleletan, logeletan eta komunetan gauzatuko zen.

Bigarren artikuluan adierazten zenez, arropak, tresneria, altzariak eta gainerako zerak alkatea edota erretorearen ardura izango ziren, eta beharrezkoa zen aldietan beren esku egon behar zen Ama Nagusiak eskatutako bakoitzean eta hondamena aldiroko inbentarioaren bitartez adierazitakoan (erabilpenagatik, hausturagatik, etabar. .).

Hirugarren nahiz laugarren artikuluetan, Andoaingo Udalaren menpe jartzen zituen ongintzako arloari dagokionean eta Alkateak mojaren bat kentzeko eskubidea zuen, Ama Nagusia ezik, honekiko kezka edo kexak modu pribatuan jakin araziko baitzitzaizkion Ama Nagusi berari.

Bostgarren artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak "ahal bezain lasterrin" kaperau bat eraikiko zuen aterpean. Lekaime zein babestuek meza entzun ahal izan zezaten.

96 A.U.A., 226 H/19. Agirian esaten denez, Francisca Unanueri 5 pezeta ematen zaizkio, baina ez da adierazten zein kontzepturengatik.

Bitartean, oinez bost minutu eskasetara zegoen elizan entzun beharko zutelarik, arratsaldeko seiretan nahiz zazpiretan⁹⁷.

Seigarren artikuluan ezartzen zenaren arabera, Andoaingo Udalak 125 pezeta ordainduko zizkion moja bakoitzeko Madrilgo zentralari, baina ordainketa hori moja bakoitzeko izan arren behin bakarrik egingo zen. Zazpigarrenean ezartzen zenaren arabera, etxean produzitakotik eskuratuko zuten jatekoa, eta janzteko, oinetakoentzako edota bestelako gastuentzako 15 pezeta hileroko jasoko zuten Udalarengandik. Andoainera joateko bidaiak alkateak ordainduko zituela adostu zen zortzigarren artikuluan. Eta gaixotasunak eragindakoak ere, Udalak hartuko zituen bere gain bederatzigarren artikuluen arabera, baita lurperatzeak eta elizkizunak zegokien begirunearekin.

Hamargarrenean adierazten zenez, *Fabril Subijana* Konpainiak fabrika barruan zuen eskola baten ardura eman nahi zien lekaimen hauei, horretarako bi ahizpa eskatzen zituen Andoainen biziko ziren sei lekaimenen artetik hautatuak: *“Son niños de cuna y párvulos y el Sr se obliga a enviar mañana y tarde un coche para llevar y traer a las Hermanas que deben comer y dormir en dicho Hospital”*. Beste lau lekaimenetatik, bik sexu bietako haurren eskolaz arduratuko ziren, horretarako babes-etxearen alboan eraiki berria zen eraikinean. Udalak eskolako material guztiaz arduratzeko konpromisoa hartzen zuen, baita haurren hileroko diru-kuotak ordaintzeaz. Sarrera guztiok babes-etxeko finantzaketa indartuko zutela uste zuten.

Hamaikagarrenean, atezain edo laguntzaile baten aurreikuskapena adierazten zen, kasu horretan Udalak bere kontura kontratatuko zuela adieraziz. Hamabigarren artikuluan, akordioaren lagapena bi hilabeteko aurrerapenarekin jakin arazteko klausula eta bestelako pausuak hitzartzen ziren⁹⁸.

Babes-etxearen aldeko dohaintzak finantzaketa iturri garrantzitsua ziren aterpearentzako. Data zehatzik gabeko agiri batean ikusi ahal izan dugun zerrenda batean, emaku-

97 A.U.A., 14 H/9 (1927-1939). Karidadeko Alaben Zuzendaritzarekin izandako korrespondentzia. Erakunde erlijiosoan izanik, ulertzekoa da kaperauari ematen zitzaion garrantzia, izan ere errezagoa izango baitzen lekaimentzako babes-etxean bertan meza edukitzea, kanpora irten gabe. Puntu hau, baina, ez zen berehalakoan bete. Hala, 1927ko urtarrilaren 30ean Benigno Maria Blanco, Espainiako Ipar-Ekialdeko Karidadeko Alaben zuzendariordeak, Ama Nagusiari gutunez adierazi zion bere haserrea, puntu hori betetzen ez zelako:

“...he visto con extrañeza que todavía no tengan misa diaria en la capilla del establecimiento después de seis años de existencia, y de haber mandado en la visita anterior a la superiora que hiciera presente al señor alcalde la necesidad de cumplir artículo 5º.

Y estando más de extrañar que no tengan misa diaria (...)cuanto que se celebran diariamente en la parroquia cinco o seis misas que seguramente no son necesarias, y muy bien puede conseguirse del prelado que uno de esos sacerdotes celebre diariamente en el establecimiento, señalándole una pekeña subvencion.

...ordenó y mando a la Sra. Superiora de la Beneficencia de Andoain que haga presente al Sr Alcalde la necesidad de poner un sacerdote que diga misa diariamente en la Capilla de la Beneficencia, de otro modo muy a pesar nuestro nos veremos obligados a tomar alguna otra determinacion....”.

98 A.U.A., 244 H/12.

me batzuen izenak eta dogaintzak jasotzen dira. Dohaintza horiek 1910 eta 1939 urte arteko uneren batean gauzatu ziren: Francisca Carrera (1.000 pezeta); Antonia Etxeberria, Goikoetxearen alarguna (1.000 pezeta); Ramona Idarreta Olaskoaga (2.500 pezeta), Agueda Bidaor (500 pezeta), Ramona Larramendi (7.340 pezeta). Kopuru garrantzitsuak izanik ere, Eulogio Sorondok 23.000 pezeta inguruko dohaintza egin zuen, eta Modesto Etxebestek 50.000 frankorena⁹⁹.

2. ANDOAIN ERREPUBLIKA GARAIAN.

2.1. Emakumea plazara!

Primo de Rivera diktadorearen dimisioa gauzatu eta II. Errepublika aldarrikatu artean, hau da 1930ko urtarrila eta 1931ko apirilaren 14 bitartean, suspertze politiko bat biziko da Estatu osoan. Alde batetik, Alfonso XIII.aren aldekoek 1876ko Konstituzioa oinarri zuen Berrezartze sistemaren bizirautea bilatzen zuten irekiera demokratikoaren bidetik; eta bestetik, oposizioko indar demokratikoen saiakera, Diktaduraren sostengua izan zen erregimenaren behin behineko suntsiketa gauzatzeko.

Damaso Bereguer generalak 1931ko martxoaren 1erako Hauteskunde Orokorak deitzen ditu, baina Donostiako Ituna 1930ko abenduan sinatu zuten indar demokratikoei abstentzioa eta boikota iragartzen dute, baldin ez badira Udal eta Probintzia mailako hauteskundeak deitzen. Liberal dinastikoei gobernuarekin ez kolaboratzeko erabakia hartzen dutelarik, erregimenaren bakardadea eta isolamendua geroz eta ageriagoa izango da.

Espainiar Estatuak bizi zuen egoera ekonomikoa oso bestelakoa zen guneez batetik bestera, hori dela eta, ideologia eta pentsamendu joera ezberdinentzako esparru oparoa zen. Testuinguru honetan garatzen zen emakumeen eguneroko bizitza, baliabideetara iriste ezberdinak eta indarrean zeuden ideologia desberdinak tarteko, garaiko emakumeen identitateen gaineko eragin zuzena zuelarik. Dena den, emakumeentzako berebiziko garrantzia izan zuen ere 1920tik aurrera etxeetara irratia iritsi izana. 1930. urtean hedabide hau orokortua zen eta ideia eta balore berriak gailentzeko bide eraginkorrena izan zen. Emakumea munduarekin harremanetan jartzen zuen, etxetik irten beharrik gabe. Horrela ulertzen da, noski, irratia programazioan emakumeak izan zuen garrantzia lehen unetik¹⁰⁰. Errepublikak berekin ekarriko duen aldaketa kulturala eta sozialak emakumearen posizionamendua aldatuko du. Zenbait emakumeek plazara irteteko parada izango dute, gizonetako parekidetasun hala nolako bat eskuratuz.

⁹⁹ A.U.A., 14 H/8 (1910-1939).

¹⁰⁰ Gai honetan sakondu nahi duen orok, irakurgai baliotsua aurkituko du Mary Nash-en lan honetan: NASH, Mary: *Rojas, las mujeres republicanas en la guerra civil*. Madrid, 2006.

Paperean behintzat, Errepublikaren konstituzioak, 1931. urtean, emakumeen eskubide politikoak eta boto ematea lortzen dira lehen aldiz. Eskubideen alorrean, garrantzitsuak ziren beste eskubide batzuk aitortuko zaizkio emakumeari: dibortzioa, kultura eta hezkuntzara iristea, ardurazko karguak bete ahal izatea, lan baldintza egokiagoak, etabar. Dena den, ezin dugu pentsatu aldaketok berehalako garrantzia izan zutenik, emakumeen gehiengoak ez zuen bere egunerokoan aldaketa nabarmenik nabaritu, eta lantegi nahiz baserriko lanari, etxeoandre izaera gehitzen jarraitu zuten nagusiki. Horrela, adibidez, emakumearen lanaratzea bermatzeko beharrezkoak ziren hainbat gauza falta ziren. Izan ere, ama ziren emakumeek etxetik lan egiteko haurtzaindegiak beharrezkoak zituzten eta lantegiko arduradunek jarri ezean normalean ez ziren existitzen.

Jakin badakigu 1930an, adibidez, Estatuko soldatapeko emakume langileak biztanlego aktiboaren %24 zirela, horietatik %80 alargunak edo ezkongabeak zirelarik. Senarra hiltzen zelarik, emazteak diru-iturri berbera eskuratzeko ordu gehiago eman behar zituen lantokian, baldin eta familiaren mantenua bermatu nahi bazuen, alargunentzako pentsiorik ez bait zegoen. Andoaingo kasuan ikusiko ditugun pentsiodun emakumeak udal langileen alargunak dira, eta emakume horiek alargunen artean gutxiengo nabarmena ziren¹⁰¹. Era berean, ezkondata zeuden emakume langileek, normalean senarraren soldata urria osatzeko lan egin ohi zuten, beraz, emakume hauentzako ezbeharra zen¹⁰².

Testuinguru horretan, Andoaingen eragin handiena izango zuena udaleko agintarien izendatzea izango zen. Gobernuak bi asmo zituen, Barrusok dionaren arabera: alde batetik, bere alde lan egingo zuen erakundea bermatzea; bestetik, Diktadurarekin haustura gauzatzen zela irudikatzea.

101 1906ko uztailaren 14an, adibidez, Manuel Maria Alkain mutikoen maisuaren alarguna zen Maria Ibarrolak gutunetz eskerrak eman zizkion udalari zendutako senarraren alargun izateagatik esleitu zitzaion pentsioa zela eta. Alkainek 64 urte zituen, horietatik 40 urte, 8 hilabete eta 18 egun egin zituen maisu lanetan 900 pezetako soldatarekin urte bakoitzeko (%75eko soldata igoerarekin). Maria Ibarrolak, 54 urte zituen eta 366 pezetako pentsioa onartu zen urte bakoitzeko. Badakigu ere Zabalaren alarguna zen Agustina Zendoiak 75 zentimo eguneko pentsioa jasotzen zuela, urtero 273,75 pezeta, gehi etxebizitzaren errenta (100 pezeta), guztira 373,75 pezeta. 1900ko uztailaren 31ko Errege Aginduak ezartzen zuenaren arabera, pentsioak ezin zuten zendutako gizonaren soldataren herena baina handiago izan. A.U.A., 38 H/9.

102 Pasaiko Badiako emakumeek adibidez, senarraren soldata osatzeko behar beharrezkoa zuten lan egitea. GARCÍA-ORELLÁN, Rosa: *Mujer pasaitarra en el pasado siglo XX. Recreación de vivencias e imaginarios*. Donostia-San Sebastián: Michelena, 2011, or. 21-36.

10. TAULA
ANDOAINGO BIZTANLEGOA 1933AN, GUNE EZBERDINETAN
ETA BIZITOKIAREN ARABERAKO SAILKAPENA.

HAUTESKUNDE BARRUTIA	BASERRIAK-%	KALETARRAK-%
1en Distritoa:		
• Udaletxea	55,6	44,4
• Alondegia	22,18	77,82
2en Distritoa:		
• Zumea	25	75
• Echeberrieta	41,9	58,1

Iturria: egileak moldaturikoa honako liburuko datuak erabiliz: BARRUSO, Pedro: *Op. Cit.*

Barrusok dio EAJ-k 1931tik aurrera antolaketa sendoa erakusten duela Andoainen, batzokia eta Euzko Gaztedia oinarri zituelarik. 1932. urtean Kale Nagusiko 30 eta 32 zenbakietan kokaturiko Merkatu Etxearen baxuen alokairua egiten dute Eusko Gaztedia, Emakume Abertzale Batza eta Eusko Langileen Alkartasuna talde abertzaleek¹⁰³.

Herrian indarra zuen bigarren taldea Tradizionalismoa zen, XIX. mendeko Karlismoaren eszizio ezberdinetatik sortu zen talde indartsuena Gipuzkoan, 1919tik aurrera *Círculo Tradicionalista* ezberdinetan antolatuko direnak. II Errepublikaren etorrerak sortu zuen zirraren eraginez, hiltorian zirudien Karlismoa berpiztu zen Gipuzkoan. Andoainen prozesu berbera bizi izan zela dirudi, eta 1934 urterako herriko *Círculo Tradicionalista* taldeak 180 bazkide inguru zituen, Barrusoren arabera,

Baina Andoainek bazuen tradizio liberalik eta Errepublika garaian *Unión Republicana de Andoain* taldean biltzen ziren errepublikaren aldekoak. Nahiz eta Barrusok taldea txikia dela esan, 1932 urterako Antonio Pérez idazkaritzat zuen taldeak 220 afiliatu zituela adierazten du, kopuru garrantzitsua izanik.

Bukatzeko, sozialismoaren indarra Andoainen nahiko apala izango da. Herriko Etxerik gabe, UGT sindikatoaren militanteen bitartez agertzen da herrian, *Centro Obrero*-an bat egiten duten sindikatu sozialisten bitartez. Barrusoren kalkuluen arabera, 1931 sindikatu ezberdinetako kideak batuz, 100 inguru militante sozialista egongo lirateke.

Espainiako Konstituzioaren 35. artikulua emakumeek zuten bozka eskubidea aldarrikatzen du. Espainia eskubide hori aitortzen zuen lehenengo herrietako bat bihur-

tu zen horren ondorioz. Aldaketa horrek eragin nabarmena izan zuen Andoainen, izan ere, 1931ko apirilko 759 hautesleak 1933ko azaroan 1928ra igotzen dira, hau da, %60-ko hazkundera biziko du hautesle-errolak Emakumeen partehartzeari, nahiz CNT talde anarkistaren abstentzioaren aldeko kanpainaren ondorioztat salatuko dute hainbat talde ezkertiarrek eskuinekoen garaipen elektoralak.

Hortik aurrera, emakumeen partehartzea lehengo bidetik, baina orain konstituzioak aitorturiko eskubide eta protagonismoa profitatuz, Andoaingo emakumeek ere politikan parte hartzeko joera erakutsiko dute. 1935eko urriaren 31n, eta Udal Legearen 76. artikuluko lehen lerroan adierazten zenari jarraituz, Andoaingo 100 auzokide eta hauteslek eskaria sinatu zuten, aurrerantzean Alkatea bozka zuzenaren bitartez hautatua izan zedin, lege bereko 92. artikuluan ebazten zena betez. 117 hautesleren sinadura jaso zen, tartean 37 emakume agertzen zirelarik. Hau da, emakumeek lehen aldiz, herriko politikarekin loturiko ekimen batean modu publikoan parte hartzen zuten, nahiz eta oraindik ikusi ahal izango dugun emakume batzuren protagonismo sozialak zer ikusi handiagoa duen bere senarraren ideologia politikoarekin –senarrarekin batera sinatzen baitute- edota zendutako gizon baten alarguna izatearekin ¹⁰⁴.

104 A.U.A.7H/2 (1936). Hau da, sinatzaileen herena inguru, emakumezkoa zen. Partehartze handia adierazten zuen horrek. Abertzaleen bultzadari erantzungo ote zion idatzi honek, izan ere, Alkate abertzalearen garaienarekin amaitu zen prozesua bera. Gobernadoreari igorritako telegrama batean adierazten zen bezala (1936ko apirilaren2an):

“Terminada sin incidentes antevotación para proclamación Alcalde popular, ha obtenido don Pablo Eguibar y Munita, NACIONALISTA VASCO, CUATROCIENTOS DIEZ VOTOS que representan más del VEINTE POR CIENTO del Censo electoral de este Municipio”.

11. TAULA
ALKATEA BOZKA ZUZENAREN BITARTEZ HAUTATZEKO ESKAERA
SINATU ZUTEN EMAKUMEAK.

1. Natividad Pastor	20. Rita Etxebeste
2. Gereñoren alarguna	21. Felisa Zugasti
3. Fidela Unanue	22. Clara Altuna
4. Maria Ormaetxea	23. Juana B. de Alkain
5. Paula J. de Lasarte	24. Jacinta Etxebeste
6. Maria Paz Ganzarain	25. Josefa Iñurríta
7. Dolores Ortuzar	26. Dolores Barandiaran
8. Facunda Barriola	27. Maria Elorza
9. Maria Isasi	28. Angeles Azpiazu
10. Eufemia Fernández	29. Romana Arretxe
11. Rafaela Agirre	30. Consuelo Barandiaran
12. Dolores Ansa	31. Natividad Sobernil
13. Maria A. de Tolosa	32. Dolores Sobernil
14. Manuela Alkain	33. Manuela Irazusta
15. Escolastica Zatarain	34. Josefa Ramona Iturrioz
16. Francisca Huizi	35. Felisa Barriola
17. Galina Munita	36. Modesta Sarasola
18. Vicenta Larrea	37. Ramona Elizondo
19. Basilia Garmendia	

Iturria: egileak moldaduta artxiboko datuak erabiliz. A.U.A., 7 H/2 (1936).

Abertzaletasunak, Primo de Riveraren diktadurapean ekin zion Euzko Pizkundera proiektuari. Honen bitartez euskaltzaletasuna berritu eta abertzaletasun konzientzia hedatzea zuten helburu. 1931an irakaskuntza euskaraz izan zedin aldarrikatzeko hainbat andoaindarrek gutuna idatzi zioten Udalari, baina horien artean ez zegoen emakumez-
korik¹⁰⁵. Dena den laster emakumezkoek lehen lerrora pasatzeko erabakia hartu zuten eta Juana Bautista Alkain irakasleak ikastola bat zabaldu zuen euskararen eta euskarazko

¹⁰⁵ A.U.A. 235 H/2 (1916-1931).



Labordeko San Martin Deunaren ospakizunk mezarekin hasten ziren, lantegi guztienak bezelaxe. Hemen bertako langileak mezatik irten ondoren. Iturria: AUA, FL, 2142XX01.

irakaskuntza sustatzeko. Frankismoak behartuta itxi zen lehen esperientzia hori, baina Alkainek ez zuen etsi eta kristau ikasbidea erabiliz euskararen etorkizuna bermatzeko lan egiten jarraitu zuen. 1960 hamarkadarekin ikastola birfundatzea lortuko zuen Juani-tak, elizaren konplizitatearekin¹⁰⁶.

Andoain herri euskalduna izateaz aparte, erlijioak pisu handia zuen egunerokoan. Testuinguru politiko berriak ezbaian jartzen zuen, zenbaitzuen ikuspegiko, izaera erlijioso hori. Erlijioak zuen pisua hain zen handia ezen *Algodonera*-k jai ematen zien beren langileei egun esanguratsuenetan, adibidez Martin Donearen egunean, herriko elizaren patroia baitzen. Ospakizun horretan herritarren gehiengoak parte hartzen zuen, batez ere meza nagusian¹⁰⁷.

Herriko egoera soziologiko horri itzal egiten saiatzen zen *Unión General de Trabajadores* sindikatu sozialista. *Algodonera* enpresa langile-harrobi baliotxua zen sindikatu honentzako. Sektore katoliko ezberdinetan haserrea sortzen zuen sindikatu sozialistaren sendotze prozesuak. 1930eko azaroan sindikatu sozialistak mitina eman zuen herrian, hizlari guztiak gizonetzakoak izan zirelarik, emakumearen paper mugatuaren adierazgarri, izan ere sindikatoak

¹⁰⁶ Andoain. *Bere kale eta plazetan barrena*, 2 zenb., Andoaingo Udala. Kultura Batzordea, 2010, 14 or.

¹⁰⁷ *El Día*, 1930eko azaroak 14, 18 or.

ere bazituen erakundera bildutako emakumeak herrian bertan. Bere hitzaldian apaiza katolikoek herriko politikan zuten esku-hartzea salatu zuten, erlijio kristauaren ikasbideak alboratuz, katolizismoa apaizen asmakizuna zela defendatuz. Izan ere sindikatuak Jesukristok aldarrikatzen zuena defendatzen zuela adierazten zuen bere hedatze kanpainaren barruan. Langile-riaren identitate katolikoaren sendotasuna adierazten digu mitin honetan luzaturiko mezuak.

Sindikatu sozialistaren elizen aurkako joera herriko sektore katolikoaren haserre eta kezka eragin zuen. ELA-STVren postura, aldiz, bestelakoa zen:¹⁰⁸:

“¡Baña gauza tamalgarriya! Egirik erabiltzen ez duten gezur esale aundi oien itz ederrakin “engañatuta” Andoain’dar asko sartu dira lagunarte ortan, eta beren artean on asko. Uste dugu ez dutela denbora askoan iraungo andoaindarrak, orren azi txarra ekartzen duten lagunarte –UGT- oietan.

Laister gera Errusiyen baño okerrago oien mende jarri eta berai laguntzen badiegu.

Gurasoengandik artu genduen Euskaltzaletasun eta Fede bizian iraun nahi badegu, emen dauzkagu lagunarte guztiz egokiyak ‘Solidaridad de Obreros Vascos’ eta ‘Casa social Catolica’ oyek dira guk bete eta lagundu bear diegun lagunarteak”.

Egoera berriari erantzuteko herriko erretorea zen Joaquin Bermejok herriko Fundazioari orientabide berri bat eman nahi izan zion, andoaindar gehiagok ikasi ahal zezaten erakunde horri esker. *Asociación Larramendi Pro-Cultura Popular* deituriko elkarteak sustatu zuten eskola kristauaren proiektua gauzatzeko¹⁰⁹, 1924an sute batek irentsita suntsitua izan zen *Seminario Menor de Guipúzcoa* erakundearen eskolen lekukoa hartzeko. 1933ko irailan sinatu zen hitzarmena eskolak kudeatuko zituen Eskola Kristauen Anaiak lagunartearekin. Eskola kristau berriaren zuzendaria Jose Maria Iziar anaia izango zen. *Seminario* zaharraren eraikina berreraikitzeke promesarekin, lokal egokiak eskuratzeko proiektua zegoelarik¹¹⁰.

Emakumearen plazaratzea II. Errepublikan protagonismoa hartuko zuten ideien eskutik iritsi zen Andoainera. Abertzaletasunak, hedatzeko kanpainaren baitan emakumeen protagonismoa aurreikusten zuen. Euskararen aldarrikapenean emakumeak protagonismo sozial garrantzitsua eskuratu zuen¹¹¹.

Euskaltzaleak elkarteak euskara, hizkuntza eta kultura folklore hutsetik haratago izaera landuagoago bat eman nahi zion. Eusko Ikaskuntzaren babespean sortu zen 1926. urtean. Euskararen inguruko jaialdiak antolatzeari ekin zion eta Errepublika garaian biziko zen eraldaketaren oinarriak jarri zituen. 1929an Andoainen antolatu zen Euskararen Eguna, Udal kontzejupean euskarazko liburu-erakustaldia antolatu zelarik. 1930. urtean Jose

108 *El Día*, 1930eko azaroak 23, 12 or.

109 A.U.A., 235 H/5, (1933-1936).

110 LASA BERGARA, Xabier: *La Salle-Berrozpe, 1945-1995. 50 urte bizirik. ...Herriaren zerbitzuan*, Lasalle-Berrozpe, Andoain, 1996, 24 or.

111 IMAZ MARTINEZ, Iñigo: *Op. Cit.*, 50-56. or.

Ariztimuño, Aitzol, aukeratu zuten elkarteko lehendakari, ordurako bi mila bazkide zituen. Kulturarekin loturiko hainbat arlo gehitzen joan ziren: olerkiak, antzerkiak, eleberrriak, euskarazko irakaskuntza, bertsolaritza, etabar.

Konzientziazio lanak Diktaduraren dekadentziarekin goraka egin zuen. Jaialdiak ugaritzen eta sofistikatzen joan ziren. Horrela ospatzen joan ziren "Haur euskaldunaren eguna" (1929), "Emakumearen omenaldia euskarari" (1930), etabar. Aldundi eta udalugarik lagundu zituzten ekimen euskaltzaleak eta, II. Errepublika aldarrikatua zelarik, 1931. urteko ekainaren lehenean Olerti Eguna ospatu zen Erreterian. Hortik aurrera Euskal Pizkundera izenarekin ezagutzen den aroari ekin zitzaion.

Diktadura desagertzeaz zegoela, oposizioko hainbat sektorek lanari ekin zion eta abertzaletasunak indarberritze eta hedatze lanei ekin zien. *El Día* egunkariak emakume abertzaleen partehartzea sustatzera gonbidatzen zituen gipuzkoar emakumeak "¡Andreño Euskaltzaleak asarre!" izenburuarekin, Alkerdi izengoitiarekin idazten zuenak mezu zuzena botatzen zuen EAJ-ko agintari eta kideak xaxatuaz, eta emakume abertzaleak lehen lerrora igaro zitezten animatzera¹¹²:

"Badabil aoz ao zurrumuru bat, ez alako atsegiña Euskeltzale bazkuentzat, bereziki azken bilkuren ondotik, zergatik andreño euskeltzaleak utzi ditu alde batera, ezer ezpalira bezala.

Egunero irakurtzen ta aditzen degu gure euskera zabaltzeko ta iraun azteko, emakumea dela bide ziurrena, zuzenena ta egokiena; ori guzia egia balinbada, egiñala ein bear degu laguntzera emakume euskeltzaleak, jarri bide errexeña ek guziak biltzeko ta izan dezaten toki bat aukera, beran bilkurak izateko.

Bainan ez bildurtu, Euskeltzale gaztedik egin dutena, zuek ere iñori laguntza eskatu gabe, egiten al dituzue eta denbora gutxin barruan, ia eratzen dezuen Andreño Euskeltzalen Bazkuna; auxe bai izango litzakela egipen aundienetarik bat aurten egin dena.

Nere ustez Euskeltzaleen bilkur artan, garrantzi gehiago eman bear zizatien ainbertze gizasemen artean andreño Euskeltzaleak ikustea; gainera denek badakigu bilkur guztietan ek dirala lenbizikoek (por edukazion bederen).

Eta azkenik galde bat Euskeltzalen lendakaria'ri: Aurrean ipiñi duten guzia ikusi ta jetaiziu ondo iduritzen andreño euskeltzaleri beren naiak jakiteko dei bat egitea?"

Euskaltzaleak taldearen izenean neskaxa abertzaleei eskeintzen zitzaaien batzoki bat, mutil gazteei eskeini zitzaaien modura. Elkartean emakumeen zokoratzearen aurka-koak ere bazeudela jakin arazten zuen, eta lanean zebiltzala emakumeei ateak irekitzeko eta elkartzeko gune bat eskeintzeko, eta bitartean elkarteko lokaletara gerturatuzera animatzen zituzten¹¹³.

112 ALKERDI: "¡Andreño Euskeltzaleak asarre!", *El Día*, 1930eko abenduaren 18an, 12 or.

113 NORBAIT: "¡Irudituko etzait bal!", *El Día*, 1930eko abenduaren 18an, 12 or.

Sindikalgintzan lehen aldiz, emakumeak topatuko ditugu, protagonismo sozial handiago bat eskuratzen. Hala ere, II Errepublikaren lehen urtean herriak jasaten zuen krisia zela eta, 1931ko abuztuaren 30ean langileen izenean luzaturiko idatzian agertzen zen langabetuen zerrendan ez zen emakumerik agertzen. 42 langabetuentzako lana eskatzen zen eta horien artean gizon ezkonduak, alargunak eta ezkongabeak egon arren emakumeentzako ez zen deus eskatzen. Era berean, estatusun ekonomikoa pasatzen zuten bederatzirileapaindegien jabeak ere gizonezkoak zirela ikusten dugu. Horrek nabarmentzen digu emakumearen apaintzeak oraindik ez zuela geroago izango zuen garrantzia eskuratu, nahiz eta 1932an bederatzirile horietako hiruren emazteen izenak ematen zaizkigun. Uste dugu emakumeek nolabaiteko partehartzea izango zutela senarraren lanbidean. Hauek ziren emazteak: Concepcion L. Amiano, Josefa Arruabarrena eta Maria Mendiola.

1934ko maiatzaren 1ean, langileen eguna ospatzeko egindako manifestazioaren ondoren *Centro Obrero* delakoan bildu ziren ordezkarien artean emakume bat agertzen zaigu. Subijanako langileen ordezkari gisa Carmen Gaston beste adarretako ordezkariekin bildu zen, hala nola, Francisco Fernandez (*Oficios Varios*), Vicente Fernandez (Burnigintza) eta Celedonio San Sebastian (Tranbiak), alkateari eskari sorta bat luzatu zioten¹¹⁴:

1. Langileen etxebizitzak bizitzeko moduan egon zitezela bermatu zezala, jabeak horretara derrigortuz.
2. Abasteon batzarra behingoz biltzea *“que no da señales de vida”*.
3. Ugazabekin bilera bat antolatu dezala langilegoaren egoera kontuan izanik lantegi, tailer, arrobi eta obretan langile gehiago kontratatze aldera.



Turria: A U A Correspondencia del Ayuntamiento con partidos políticos y sindicatos (1907-1936) 20 H/7.

114 A.U.A., 20 H/7 (1907-1936).

Subijanako langilea zen Celestina Amutxastegi Azaldegi langilearen aldeko ekitaldi honek ezin hobeki islatzen du emakume langileekiko iritziaren aldaketa II. Errepublikara. ELA-STV-k antolatuta baina Emakume Abertzale Batzaren lokaletan 18 hilabetez gaixorik zeraman emakumearekiko errespetu eta begirunea erakutsiz, elkartasun moduan herriko abertzaleek ospatu zuten jaia dugu horren lekuko¹¹⁵.

2.2. Aurreko urteetako joerak errepikatuz.

Herriko Karidadeko lekaimeek behar beharrezko lanarekin jarraitu zuten II Errepublikara laikoaren baitan. Langileriaren egoera tamalgarria batzutan, osasuna arriskuan jartzera eramaten zituen. 1931ko ekainaren 22an, Madriletik Ordenaren zuzendari jaunak idazten zuen, Andoaingo etxe hortan urte betean hiru lekaime hil zirela eta laugarren bat tuberkulosiak jota zegoelako. Eta urte batzuk lehenago Udalarekin sinaturiko kontratuan jasotzen zen 5. puntua betetzea exijitzen zuen, hau da, egoitzan bertan meza ospatzearena:

“...lo que indudablemente ahorrará a diario fatigas y pérdida de tiempo a las pobres Hermanas, tan quebrantas por su penosa y continuada labor...”.

Subijanaren enpresak ordaintzen zuenarekin bizi zirelarik, Udalarentzako dohain lan egiten zutela gogorarazten zien udal agintariei. Sukalde berri bat eskatzen zuen, eta fabrikara egunero lau bider egiten zuten bidaiak errezteko neurriak hartzea¹¹⁶.

Lekaimeek emakume langileen egunerokoa errezten zuten haurtzaindegia kudeatuz. Baita karitateari esker bizi ziren hainbat eta hainbat emakumeri laguntzen eta agureak zaintzen.

Hazkunde etengabea bizi zuen herri batentzako emaginaren beharra geroz eta nabarmenagoa zen, 1934ko uztailaren 30ean Andoainek emagin lanpostua atera zuen lehiaketara¹¹⁷, baina hutsik geratu zen 10 urte luzez, hori dela eta Andoainek 2 mediku eta albaitari bat zituen, emagina aurkitzen zen bitartean¹¹⁸.

Aurreko kapituluetan bezala, emakumezkoek ohikoak zituzten lan tradizionaleri eutsiko zieten. 1933an Brigida Eizmendi Jauregik Udalarari eskaria luzatzen zion udaletxea garbitzeagatik ordaintzen zioten pezeta bakarrarekin ez bait zitzaion nahikoa iruditzen, eta berak aurkezturiko idatziaren arabera, lanerako erosi beharreko produktuekin

115 A.U.A., 20 H/7 (1907-1936).

116 A.U.A., 14 H/9 (1927-1939).

117 A.U.A., 24 H/1 (1934).

118 A.U.A., 24 H/5 (1902-1940).



*Tabernaria nahiz hostalaria izan da emakumeart lotuta joan den ogibidea.
Argazkian Ignacio tabernako langileak. Iturria: AUA, FL, 2364XX01.*

agortzen zitzaiola soldata hori. Udal agintariei ez zitzaien gehiegizko eskaria irudituko, 2 pezetara igo bait zioten soldata¹¹⁹.

1932an tabernari hauek aurkitu ditugu: Rosario Aldasoro, Sebastiana Lezeaga, Micaela Haranguren, Ramona Elizondo, Juana Soroa, Maria Teresa Maiz, Juani Begiristain eta Maria Oiartzabal. 8 emakume hauek eta beste 12 gizonetzkoek taberna zuten Andoainen eta ordutegia bete zezaten eskatuz idatzi zien Udalak, hainbat herritarrek tabernak 12etan ixten ez zirela salatu ostean¹²⁰.

1934ean herriko bi okindegiei beren ekoizpen eta langileei buruzko datuak eskatu zitzaizkien. Horri esker dakigu Federico Olanoren labean hiru langile gizonetzkoekin batera, banatzaile emakumezko bat eta saltzaile emakume bat zituela. Ogia Andoainen banatzen zuten, baina langileetako batek gurdian Billabonara, Irurara eta Tolosara ere eramaten zuen ekoizpenaren zati bat. Aldiz, Joaquin Arratibelen labean bi langileez aparte, familiako beste langile bat zuela eta baita saltzaile eta banatzaile bat. Ekoiztutako ogia soilik Andoainen saltzen zelarik. Hortaz, labeari zegozkion lanak gizonetzkoek

119 A.U.A., 35 H/1 (1885-1940).

120 A.U.A., 49 H/1 (1895-1937).

egiten bazituzten ere, emakumezkoek salmentan edota banaketa lanetan aurkitzen zuten beren esparru propioa¹²¹.

Inudeen beharrak bere horretan iraun zuen eta 1931. urtetik 1936ra bitartean honako inudeak aurkitzen ditugu: Dolores Iturriotz Teileria, Rosario Cerrajería, Maria Bengoetxea Atorrasagasti, Nazaria Haranbarri eta Maria Dolores Txapartegi Intxauspe¹²².

3. FRANKISMOAREN ATZERAP AUSUA.

3.1. Gerra zibila (1936-1939) eta lehen frankismoa.

Altxamendu militarra uztailaren 17-18 bitartean gauzatu zen Espainia osoan, Andoainen ere bi bando nagusi egongo ziren borrokak aurrera egin ahala. Gerrari aurre egiteko sortu zen Defentsarako Batzarrean abertzaleak eta ezkerreko errepublikazaleak aritu ziren, baina denak gizonezkoak ziren, emakumerik ez da ageri kideen artean. Emakumeek gerra industrian parte hartze zuzena izango zuten, gaza hidrofiloa fabrikatzen eta oihalgintza lanetan, industria estrategiko gisa mobilizatu baitzen.

Tolosa abuztuaren 11ean erori zen altxatuen menpe, eta Iruetagoiena koronelaren gidaritzapean hiru kolumna erori ziren Andoain konkistatu nahian. Abuztuaren 16an herria inguratzeko lanetan hasi ziren matxinatuak, 17an erortzen da Andoain eta 4.000 biztanleen gehiengo handi batek ihes egin du ordurako, beldurrak xaxaturik. Enfrentamendu armatuak eta Goierri eta Nafarroako errepresioak herritarrik ikaratu zituen. Gehienak kostalderantz joan ziren, baina beste familia batzuk baserrietan aurkitu zuten babesa¹²³.

“...que todos, como miembros de una misma familia, velemos por la prosperidad y buen nombre de nuestra Obra, irradiando sus postulados de caridad cristiana por la Patria, el Pan y la Justicia Social”¹²⁴.

121 A.U.A., 38 H/2 (1934-1938).

122 A.U.A., 4 H/11 (1899-1940).

123 LASA BERGARA: *Historia Oral: la voz dormida en la memoria. El Impacto de la Guerra Civil (1936-1939) en la vida social de un pueblo de Gipuzkoa. Andoain, recordando a quienes lucharon por la libertad y contra el fascismo.* Oroituz, Andoainen. Andoain, 2006, 93-112 or.

124 Gipuzkoako *Auxilio Social* erakundearen probintziako ordezkariaren aldizkaritik. *Norte. Boletín de Información General*, 1 urtea, 2 zbkia., 1958ko martxoa. A.U.A., AG 6/1.

3.2. Andoain frankismoaren menpe.

Abuztuaren 14, 15 eta 16an errepublikaren indarrekin batera milaka andoaindarrek ihes egitea erabaki zuten, gutxi gora behera 4.000 biztanleen erdiak hartuko zuen bide hori. Nafarroa, Beasain eta Tolosan gertaturikoak ezagututa, beldurra nagusitu zen demokraziaren aldekoen artean, baina baita egoera bortitzaren ondorioak ekidin nahi dituztenak zein ejerzitoan mobilizatuak izateko beldurrez dauden gazteak. Andoainen, baseritarrek etxean geratzeko hautua egin zuten nagusiki, nahiz eta landa gunean abertzalegoak zuen indarra handia zen. Donostiaren konkistaren ondoren, hau da, irailaren 13tik aurrera, herritik ihes egindakoen zerrendak egiten dira eta horren inguruko informazio zehatza igortzen zaie agintari militarrei herriko agintarien aldetik. Andoaindar batzuk ez dira inoiz itzuliko, batzuk frentean hil zirelako, beste batzuk gerraren ondorioz hil zirelako bonbardaketetan, beste batzuk beldurrak dariela eta beste batzuk etxe gabe, lan gabe eta miserian erortzeko zorian beste herri edota probintzietan dituzten familia edota lagunaren artean bilatuko baitute babesia. Gehienak itzultzen hasiko dira, batzuk Zumaia eta Zarautzeko frentea eroritakoan, hau da, irailaren amaieran, baina beste askok Bilborako bidea hartu eta gutxi batzuk Santander aldeko frontea erori arte egon ziren kanpoan. Itzuli zirenek ez zuten espero gertatuko zitzaiena. Batzuk, iritsi eta berehala atxilotuak izango dira, horietako batzuk berehala fusilatuko. Itzultitako talde handiena, Lasak dioenaren arabera, Bilboren erorketarekin itzuli zen. Hauetako gehienak adintxikikoak, edo borrokarako adina ez duten gizon emakumeek osatutakoa. Hau da, hauek ez zuten frentean partehartzerik izan. Baina asko izan ziren ere Errepublikaren erorketa arte itzuliko ez zirenak, hau da 1939an, batez ere frantsesen tratu txarrak ikusita eta Gerra Mundialaren beldurrez.

12. TAULA
ANDOAINGO BIZTANLEGOA XX. MENDEAN.

URTEA	BIZTANLE KOPURUA
1930	2.716
1940	3.854
1950	4.647
1960	7.060
1964	8.371

Iturria: egileak moldaturikoa ondoko liburuko datuez baliaturik: ARREGUI, Ricardo, *Op. Cit.*, 41-46 or.

3.3. Andoingo emakumeak gerra eta errepresioaren aurrean.

Andoainen eta inguruko herrietan bizi izandakoaren lekuko izan zen Martin Ugalde andoaindarraren lekukotasuna dugu. 1921ean sortua zen Martin Ugaldek Berak dioenez, berehalako hartan, armadaren parte baten altxamenduaren berria jakin bezain laster, eskolak itxi eta fabrikak gelditu ziren. Langileak harriturik elkartzen ziren eta armak bilatzen zituzten tokiko etsaiei, karlistei, aurre egin beharrez. Lehengo gerra bizipenak, memoria historikoa kontuan izanik, beldur ziren indar karlista ez ote ziren menditik etorriko, Tolosa aldetik.

Ugaldek kontatzen duenez, Donostiatik zetozen emakume batzuk, lagun zituzten gizonetako bezala, lanjantzi eta kapela urdinez jantzirik agertzea gauza bitxia eta guztiz berria izan zen andoaindarrentzat; haietako batzuek UGT eta CNT inskripzioak zeramatzen, beste batzuk komunistak ziren. Donostiako indar antolatuak ziren, herrietara hornidura bila zetozenak. Ordena eta jabetza pribatuarekiko ez zuten begirunerik agertzen, txalet edo etxe hutsetan sartzen baitziren. Hiriburutik hurbil zeuden udalerriek kezkatuak bizi zituzten sarraldi haiek¹²⁵. Herri horietan nagusi ziren pentsaerez bestelako ideologiaren jarraitzaile gazteek eragingo zuten inpaktua izugarria izango zen, haietako asko herrialdearen hizkuntza eta ohituren berri ez zekitenak izaki. Ugaldek gerrako oroitzapenetan azpimarraturik uzteko¹²⁶, gazte horiek bi sexuetoakoak izateak eta gizonetako janzkeratza jotakoa (langileen lanjantzia) soinean eramateak nabarmentzeko adinako inpaktua eragin bide zuten hango gizartean.

Dena dela, ikusmolde errepublikanoa gehienbat kontserbadore samarra zen. Euskal emakume gutxi hartu zituzten armak Errepublikaren legekotasuna defendatzeko. Gipuzkoako emakumeak, funtsean, borrokatzera irtendako gizonen ama, emazte eta alaba gisa bizi izan zuen gerra. Arrazoi horrexegatik, Gipuzkoan inoizko exodorik handienaren protagonista izan ziren milaka emakume eta haur¹²⁷. Ideologia, alde horretatik, ez zen inolako arazoa gertatu. Ezkerreko zein eskuineko jendea, nazionalistak edo ez nazionalistak oldarrean atera ziren errepideetara zein kamioetara, gerraren ondorioetatik ihesi. Prentsa errepublikanoak horrela hitz egiten digu emakumeari dagokionez, gerrako elementu pasibo gisa; gizonak, aldiz, gudu zelaiko protagonista gisa, matxinatuek beren azpian eroritako guneetako biztanleria zibiletan obratzen zituzten ekintzen biktima gisa ageri dira. 1936-1937 bitartean herritik ihes egindakoei buruz egin ziren

125 JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI CORTA, Luis María y Juan Carlos. *La guerra en Euskadi* (3ª ed.rev. y amp.). Txertoa. Andoain, 2007; 323-328. or.

126 Ideologia komunistako ehunen baten meatzari asturiarren presentzia dokumentaturik dago. Beldurra eragiten zuten "asturiar dinamitzaile" haiek parte hartu zuten Irungo defentsan eta Urnietako frontean 1936ko abuztuan. VV. AA: *Historia general de Asturias*, tomo IX: La Guerra Civil. Editor Silverio Cañada. Gijón, 1978.

127 Martin Ugaldek, orduan zen haur gisa, emakumeak zein bakarrik gelditzen ziren kontatzen digu, familia-ko gizon guztiak gerrara joanak izanik. JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI CORTA, Luis María y Juan Carlos: *Op. Cit.*, 330.-331. or.

txostenetan agertzen zaizkigun afiliazioak ikusirik, errepublikanismo klasikoaren izaera maskulinoa agertu daiteke, izan ere gizon errepublikano bat agertzen zaigunaldi oro, emaztea filiazio politikorik gabe edo independente bezala agertu ohi zaigu. Sozialisten nahiz abertzale edo tradizionalistekin gertatu ohi ez dena¹²⁸.

Andoaingo bi medikuetako bat 1936ko otsailan hil zelarik, 1938ra arte ez da bere lekua beteko, Udalak berak onartzen duenaren arabera, biztanlego faltagatik.

Ihes egin eta, gutxienez urtebete pasa arte, itzuliko ez zirenen zerrenda bat egiten du Lasak. Hau da, Bilboren okupaziotik, 1937ko ekainaren 19an, urte bereko abendura bitartean. Erroldak erakusten digunez, %12,65 ez ziren itzuli. Hala ere, berehala iritsitako etorkinek beteko zuten joandakoen hutsunea, gehienak Nafarroatik iritsiak¹²⁹: Kaletxikitik (San Pedro) ihes egindako 164 pertsonetatik, 70 emakumezkoak ziren; Norteko Geltokia eta Leitxaran gunetatik: 44 iheslari, horietatik 21 emakumezkoak; Bazkardoko auzokideen artean 42 ziren iheslariak, horietako 15 emakumezkoak zirelarik. Gune hontan gizon alargun edo ezkongabeak ugari dira iheslarien artean, konkretuki 12. Eta horrela auzune gehienetan iheslaren portzentaia altua izanik, horien artean emakumeen presentzia nabarmena izango da, salbu Buruntzako kasua, 7 baserriarrek ihes egiten dute, denak gizon gazteak.

Abuztuaren 16ko arratsaldean, Andoaingo hutsik hartzen dute frankistek. Hurrengo goizean Udaletxean bandera konstituzionalaren ordez frankista ipintzen da. Bandera errepublikanoa, Batzokian, *Centro Obrero*-an, *Centro Republicano*-an eta ihes egindako abertzale nahiz errepublikano zenbaiten etxeetan konfiskaturiko materiala herriko plazan erretzen dute. Ondasun higiezinak bahitzen dituzte bertan kuartel militarrek edota Mugimendu Nazionalaren erakundearen egoitzak bertan ezartzeko: *Auxilio Social*, *Flechas y Pelayos*...

Andoaindar batzuek maila-igoera oso bizkorra ezagutu zuten bai ekonomikoki zein maila sozial eta politikoan garailearen zerbitzura jarrita. Elite berri bat agertzen da Andoainen: mandatari lokalak, funtzionarioak, elizgizonak... Gerraosteko andoaindar boteretsuenak Pablo Etxebeste Alkatea, Paco Martín botikaria eta Constantino Laskibar apaiza. Botere handiko gizonak izan ziren. 1936ko abuztuaren 17an bertan eratzten da Udal berria, Alkate Domingo Soroa Atorrasagasti izendatzen delarik. Hartzen diren lehen erabakien artean, gurutzeta eskola guztietan ezartzea, Jesusen Bihotz Sakratuaren birtronuratzea Errepublika garaian tronutik kendu ondoren, ihes eginda lana utzi duten karguen zerrenda egitea.

128 A.U.A., 245 H/16 (1936-1937).

129 LASA BERGARA, Xabier: *Op. Cit.*, 117-138. Emakume kopurua esanguratsua izan zen ihesaldi honetan, ume, nerabe, gaztetxo eta agureekin batera joan zirelarik, horrek aditzera ematen digu herriko gizonezko gazteak borrokatzera frontarantz abiatuak zirela. Kale Nagusian, Eskoletan, Kale Berria, Zumea etabarretan gertatutakoa ikustea besterik ez dago.

Lehen unean herriko tradizionalismoak, Udalean lehendik zuen gutxiengoaren presentziari eutsi eta botere politikoaren jabe egiten den arren, Burgoseko gobernua agindurik 1937ko martxoaren 16an Udal eraketa aldatzen da. Alkatetza Jose Maria Treku Alkain falangistari ematen zaio, tradizionalistek zinegotzi kopuru handienari eusten dioten bitartean. Frankismoak gerrak iraungo duen denboraldian eta garaipenaren lehen urteetan ospakizun erlijiosoak biderkatzen ditu, baita kale manifestazioak, diskurtso politiko-militarrak. dena sinbologia erlijiosoz eta falangistez nahiz integristez beterik (banderak, uniformeak...). Masa-mugimenduaren antolaketa herriko faxistek karlistoaren *Margaritas* deituriko emakume taldea edo *Flechas y Pelayos* deituriko haurren taldea erabilik dituzte. *Auxilio Social* erakundea ere erregimenaren akulu zen, ongintzako sorospen honekin, biztanle gazteak elikatzeko jartzen ziren jantoki batzuk.¹³⁰

Margaritek indar handia eta herriko emakume esanguratsuen atxikimendua lortu zuen. Adierazgarria da, emakume hauen artean Subijanaren lantegiko langile emakumeak dira; Lasak 67 kontaktzen ditu eta beren izen abizenak ematen ditu. Emakume hauen eginkizuna bikoitza izaten zen faxismoaren prozesio-manifestazioetan. Emakume hauek batzuk mugimendu martzialekin buru ibiltzen zituzten bitartean, beste batzuk espaloietatik eta publikoa berotu nahian animoak ematen zituzten, txalotzen, oihuka (deiadarka) abestuz edo esloganak errepikatuz. Emakume hauen protagonismoak bizitza eredugarriak eramatera behartzen zituen arren, moral bikoitzaren adibideak ere ematen zituzten. Lasak anekdotada bat berreskuratzen du, “*¡Abajo el amor libre!*” bezalako leloak oihukatzen zituen margarita hauek batek nafar soldaduetako batekin harremanak izan ondoren, 1937an, haurdun geratu zen ezkongabe zelarik. Soldaduak frenterako bidea hartu zuen eta azkenean, emakume honek, Gloria Agirre izena zuenak, azkenean herritik joan behar izan zutelarik inoiz ez itzultzeko.

Margarita-k, Requete-ak, Flecha-k eta Pelayo-ak Goardia Zibilaren Brigada Komandantea zen Felix Montes militarren instrukziopean zeuden Andoainen. Bere agintepean zeuden Andoain, Urnieta, Hernani, Aia, Usurbil eta Orio. Falangismoaren alkandora urdinak eta karlisten txapel gorriak Andoaingo kaleetan ikustea ohikoa bilakatu zen. Gerrak iraun zuen bitartean, garaipen militar edo konkista garrantzitsu bakoitzeko Constantino Laskibar apaizak kanpandorrera igo eta kanpaiak jotzen zituen eta jarraian desfile militaristak gauzatzen ziren ospatzeko. *Te Deum*-a abesten zen eta bestelako abesti falangista, Francoren, faxismoaren eta Espainiaren aldeko gorak. Momentu horietan edozein aktibitate ludiko, sozial, ekonomiko, industrial, komertzial eten behar zen eta kalera irten behar zen, baldin eta ondorioen beldur bazuten. Batzutan preso, erbestera, frentean errepublikaren aldeko hildakoak ere agertu zitezken kaleetan, eta baita fusilaturiko baten baten familiar zuzenak. Lasak horrela adierazten du:

130 LASA BERGARA, Xabier: *Op. Cit.*, 143-151 or.

“En esas ocasiones, las mujeres vencidas y jóvenes pero solteras como Itziar Amutxastegi se atrevían a criticar algunas cuestiones en público, y obligadas a abandonar la “fabrica de rojos” como se llamaba a Laborde Hermanos para acudir a manifestaciones patrióticas, optaban por escaquearse y refugiarse en casa, o trataban de evitar entierros de fascistas del pueblo muertos en el frente. En esas ocasiones, incluso familiares podían denunciar esas pequeñas rebeldías ante el comandante de la zona. Y entonces también, eran las madres de familia, esposas y madres de represaliados o combatientes republicanos quienes trataban de que el asunto no llegase a más y pagaban las multas y lo que hiciera falta para templar los ánimos y las cosas no llegasen a más.

En las arengas públicas no se recataban en amenazar y despreciar a la mayoría de los andoaindarras, pues sus alusiones al nacionalismo vasco vencido eran constantes. Y hay constancia de la especial inquina contra las emakumes del batzoki en uno de los pronunciados en 1937, por parte de José Jauregi, gran enemigo del nacionalismo vasco, que además lo hizo en euskera. El hecho de utilizar el euskera, sin embargo, era motivo de fuertes protestas por las autoridades militares con Felix Montes a la cabeza.

Las fiestas de Santa Cruz y San Juan fueron suprimidas mientras se potenciaban los actos públicos de carácter político-bélico y organizados por los fascistas. El 28 de abril de 1937, el director de la Banda de Música Alberto Agirre presentó el programa musical de cara a las fiestas de Santa Cruzes, en parecidos términos a otros años, para que la corporación lo modifique como crea conveniente. Se decide reducir las fiestas a: procesión que se prolonga desde iglesia hasta ermita santa cruz; y un concierto al mediodía. Quedaban suprimidos los bailables de la mañana y de la tarde. Cuando llegaron los San Juanes, 23 de junio de 1937, las restricciones fueron mayores, al considerarse una fiesta profana y queriéndose evitar el regocijo, limitándose a que la diana tocara la Banda el día 24. La Banda tb se encontraba con la mayoría de sus miembros ausentes, rellenándola con jóvenes alumnos de la Academia de Música¹³¹.

1941eko uztailaren 27an, *Acción Católica* taldeak urteroko batzarra ospatu zuen Andoainen, Lauzirika artzapezpikuaren partehartzearekin. Herriko kaleetan zehar prozesio egin zuten¹³².

131 LASA BERGARA, Xabier: *Op. Cit.*, 151-166.

132 *El Diario Vasco*, 1941eko uztailaren 27an.

13. TAULA

FAMILIABURU EMAKUMEZKOEN ETXETIK IHES EGINDAKO SENIDEAK.

ETXEKO BURUA	HELBIDEA	SENIDEAK
Guadalupe Uribe	San Pedro, 1	Martin Alberdi senarra eta 24 eta 21 urteko semeak.
Dolores Ortuzar	San Pedro, 1	Ricardo Ganzarain, 42 urte.
Teresa Berregi	San Pedro, 8	Tomas Lopez, 33 urte.
Josefa Intxauspe	San Pedro, 10	Jose Txapartegi, 43 urte.
Juana Josefa Argarate	San Pedro, 19	Eduardo Garmendia, 24 urte.
Josefa Jauregi	Kale Nagusia, 6	Manuel Arretxe, 19 urte.
Josefa Antonia Ulanga	Kale Nagusia, 19	Manuel Beraza, 20 urte.
Maria J. Lizarraga	Kale Nagusia, 23	Juan Jose Zabala, 61 urte.
Margarita Garmendia	Kale Nagusia, 33	Jose Saenz (31 urte) eta Mateo Saenz (23 urte)
Antonia Intxauspe	Kale Nagusia, 34	Manuel Apezetxea, 25 urte.
Irene Alustiza	Kale Nagusia, 39	Damaso Moraza, 29 urte.
Maxima Agirre	Kale Nagusia, 40	Juan Gil senarra (48) eta Francisco Gil semea (21)
Micaela Etxeberria	Kale Nagusia, 48	Jose Aldalur (38) eta Ramon Aldalur (23)
Aurelia Etxeandia	Kale Nagusia, 51	Celso Martinez (25) eta Delfina Martinez (24)
Leona Arriola	Eskolak, 3	Pedro Elorza, 21 urte
Maria Argarate	Eskolak, 7	Bonifacio Aldaz (20) eta Micaela Aldaz (18)
Anastasia Haranguren	Kaleberria, 2	Miguel Arberas (29)
Lucia Hombrados	Kaleberria, 4	Juan Navarro (39)
Josefa Beraza	Kaleberria, 6	Manuel Agirre (43)
Cristina Kortejarena	Kaleberria, 8	Vicente Irazusta (32)
Victoria Goikoetxea	Kaleberria, 12	Jose San Juan (25)
Manuela Valdes	Kaleberria, 14	Juan Jose Zabala (49)
Josefa A. Iburguren	Kaleberria, 14	Julian Valdes (41)
Gloria Etxeberria	Kaleberria, 16	Pablo Etxeberria (31) eta Bernardo Etxeberria (28)
Manuela Zuriarrain	Zumea Kalea, 5	Casimiro Artola (38)
Encarnacion Oiartzabal	Zumea Kalea, 12	Segundo Amiano (25)
Pilar Arantzabal	Zumea Kalea, 14	Estanislao Amutxastegi, 43
Maria Galarraga	Zumea Kalea, 14	Isidro Langara, 24
Hermenegilda Antón	Zumea Kalea, 14	Martín Dorrego, 43
Claudia Bibille	Zumea Kalea, 16	Bonifacio Etxebeste, 29
Maria Maridad	Zumea Kalea, 28	Jose Maria Garmendia, 41
Maria Mendiola	Zumea Kalea, 28	Buenaventura Elizondo, 28
Jacinta La Hidalga	Kaleberria, 18	Bonifacio (28), Cristina (23), Engracia (21) Andiaça; y Juana Lopez, 23
Dolores Errekalde	Kaleberria, 18	Ignacio (18) eta Domingo (16) Peruarena

3.4. Frankismoaren emakumea: etxekoandrea eta ama.

Kasik II. Errepublikaren aire berria arnastu gabe, Andoaingo emakumeek atzerapausuen garaia ezagutu behar izan zuten. Frankismoak emakumea etxean sartu na zuen, eta amatasun, etxeko lanak eta zaintza lanak izan behar ziren emakumearen betekizunak. Horretarako legediaz baliatu, emakumeak adin txikikoak bihurtu zituen edozein tramite administratibo edota legalaren aurrean, aitaren, anaiaren edota senarraren baimenaren menpe geratuz. Erregimenaren propaganda idea hori indartzera dedikatu zuten.

Carmen Alcacera Perez Huescaco Ayerbe herrian jaio zen 1905 urtean eta emagin ikasketak Zaragozan egin zituen, bertako Medikuntza Fakultatean. Han ezagutu zuen bere senarra izango zen Jesus Ibañez. Honek praktikante postua irabazi zuen Andoainen, ezkondu eta elkarrekin jarri ziren bizitzen herrian. Urte luzez herriko emagin postua hutsik geratu ondoren, berak bete zuen 1966an gaitz batek jota hil zen arte. Erregimen berriak gogoko zuen amatasunari loturik, emaginak figura garrantzitsuak bilakatu ziren beren ezagutza eta gomendioei esker. Goizeko ordu txikietan ere, herriko txoko guztietara joateko prest zegoen erditzen laguntzeko¹³³.

Baina Andoaingo agintari berrientzako, herriko emakume erreferentzialak bi leikame ziren. 1957an, Manuel Lekuonak sinatzen zuen artikulua argitaratzen zen herriko jai egitarauan. Artikuluaren izenburua "La Madre Candida, su obra, su pueblo, su casa". Ordurarte emakumerik ez zen agertu programotan. Aurrerantzean ere eta 60. hamarkada arte ez dugu emakume bati buruzko lanik irakurriko. Lekaimearen figura goraiatzen zen emakume on, amatasunaren islada –nahiz Birjina izan, Jesusen ama bezala- eta karitatezkoa bezala. Izan ere, emakumeei zuzenduriko iragarkiek ere garbigailuak, eltzeak, molinillo elektrikoak, kareterak, eta josteko makinak saldu ohi zituzten¹³⁴.



◀ Gaur egun ere Batzar Aretoan agertzen diren emakume bakarrak Ama Kandida eta Ambrosia Olabide dira.

133 Andoain. Bertako kale... Op. Cit., 1. zenb., 11 or.

134 A.U.A., 16/1 (1957).

Emakume hauen erabilera propagandistikoaren beste adibidea, Ama Ambrosia-rekin gertaturikoa da. 1937an, oraindik gerra giroa gailentzen zelararik, eta Erljiioaren eta balore tradizionalen defentsan burutzen ari ziren “gurutzada” airean zegoelarik, Alkateak liburu bat aurkeztu zuen, Constantino Laskibar erretoreak idatzirik *Andoain, sus hijos ilustres y bienhechores*. *Apuntes históricos* liburuak Ambrosiaren biografia Manuel Larramendi, Agustín Leitza etabarrekin elkartzen zituen¹³⁵.

3.5. Sección Femenina. Emakumearen protagonismo soziala erregimen berrian.

1934. urtean eta *Sección Femenina* izenarekin sortu zen erakundeak lehen lerroko garrantzia hartuko zuen erregimen berriak eraiki nahi zuen gizartea eskuratzeko. Taldea, emakumeari zegokion lez, *Falange Española* erakundearen barneko talde bat zen eta beraz hierarkikoki haren agindupean aurkitzen zen emakumeen taldea. Mugimendu falangistaren sortzaile izandako Jose Antonio Primo de Riveraren arreba Pilarren gidaritzapean egon zen 1977an desagertu zen artean¹³⁶.

Errepublikara garaietan indarrean zegoen arren, Andoainen ez dugu talde honen berri-rik izango herria militarri konkistatua izan zen arte. Guda Zibilak iraun zuen bitartean, frontean hildakoen senideei laguntza eta babesa ematera dedikatu ziren nagusiki. Garaipena iritsi zenean, aldiz, Estatuaren menpeko geratu zen, 1937ko urrian Francok emandako dekretuaren arabera. Bere funtzio asistentzialak, aurrerantzean, bestelako bide bati ekingo zion: emakume berriaren formakuntza.

Emakume berri horrek bi ezaugarri sendo izango zituen: etxeoandrea izango zen, eta izaera horren baitan, ezinbestekoa izango zen emakume horren funtzio nagusienari berebiziko garrantzia ematea. Funtzio hori amatasuna izango zen. Sutondoan egotea izango zen emakumeek aberriari egin behar zioten zerbitzu garrantzitsuena. Emakumeak bere osasuna eta garbitasuna zainduko zuen eta umeak osasuntsuagoak izango ziren.

135 LASQUIBAR, Constantino: *Andoain, sus hijos ilustres y bienhechores. Apuntes históricos*. Talleres Tipográficos de F. Ezquiaga. Beasain, 1937.

136 1978. urtean behin betiko disoluzioaren berrian jasotzen zenez: “El servicio social de la mujer, establecido por Franco en octubre de 1937, fue suprimido ayer por un real decreto aprobado por el Consejo de Ministros. Desde que se estableció se calcula que han pasado obligatoriamente por dicho servicio unas 200.000 españolas por año. La existencia de este servicio, que dependía de la Sección Femenina, no tenía sentido tras la desaparición del Movimiento Nacional y de sus distintos organismos el primero de abril de 1977. Por otra parte, también a primeros de marzo pasado se hizo público un proyecto de la Dirección General de Desarrollo Comunitario, del Ministerio de Cultura, de servicio cívico temporal para mujeres, objetores de conciencia e inútiles para el servicio militar, que, en lo que se refiere a las primeras, podría interpretarse como una alternativa actual al antiguo servicio social de la mujer. El citado proyecto, del que no se ha vuelto a tener noticia, fue acusado de mantener encubiertos los mismos enfoques y objetivos del servicio que ahora ha sido suprimido”. In: “Suprimido el servicio social de la mujer”, *El País*, 1978ko maiatzak 20.

Emakume berri hau eraikitzeko orduan, tradizio katolikoa erabili zen oinarri bezala. Emetasun hori, *Sección Femenina* taldearen ikuspegiko, gizonarekiko otzantasunean, buru-belarri aritzean, sakrifizioan eta hauskortasunean zetzan. Ideia hauek oinarritzat hartuta, Estatuak talde horren militanteei emango die neskatxa gazteen formakuntzaren ardura.

Berandugo, 50. hamarkadan *Sección Femenina*-k formakuntza hiru adarretan sailkatuko du, hau da, formakuntza politikoa, formakuntza erlijiosoa eta formakuntza praktikoa. Azken adar honen helburua etorkizuneko etxeoandrea etxeo lanetan nahiz familiaren zaintzan trebatzea izango zen Formakuntza honi Zerbitzu Soziala deitu zitzaion, herri mailan "emakumeen soldaduska" bezala ezagutua izango zelarik. Formakuntza derrigorrezkoa zen 17 eta 35 urte bitarteko emakumeentzat eta sei hilabeteko iraupena zuen. Lehengo hiru hilabeteak formakuntza teorikoari eskeintzen zitzaizkion, eta teoria honetan ama ona, emazte ona, pairamentsua eta katolikoa izaten irakasten zitzaien emakume gazteei. Hurrengo hiru hilabeteak lan prestazio derrigorrezkoa egiten pasatu behar zituzten jantoki, ospitale, bulego, etabarretan.

Hiru hilabeteko doako lan derrigorrezko honetan, emakumeek eguneko sei orduko lanaldia bete ohi zuten. Bestelako lanaldirik edukitzekotan, lan hagitz neketsua zen. Eskatzen zitzaien esfortzua hain zen hebaingarria emakume langileentzat, ezen 1946ko azaroaren 26an langile-emakumeen kasuan hiru hilabeteko lanaldi derrigorrezko hori ezabatu egin zela. Aurrerantzean, emakumeok sei hilabeteko formakuntza jasoko zuten lantegian bertan, bi orduz eta egunero. *Sección Femenina*-ko irakasleak lantegietara hurbiltzen ziren formakuntza hori bermatu eta errazteko.



◀
Erregimenaren propaganda
aldizkariak jasotzen ziren
Andoainen, Espainia
berriaren ustezko aurrera
pausuen berri emanez.
Iturria: A.U.A., AG 6/1.

Erregimenarentzako lehen mailako gaia zen, emakumeen kasuan, zerbitzu sozial hori baieztatzea. Izan ere, lortu nahi zena ez zen helburu makala. Etorkizuneko amaren formakuntza zen mahai gainean zegoen helburua: etxekolanak egitea, ume, zahar edota gaixoen zaintza, senarrari beharrezkoa zen arreta eskeintzea, etabar. Zerbitzu soziala egin izanaren egiaztagiria edota betebeharroriekiko salbuespena eskuratu izanaren ziurtagiria derrigorrezkoa zen Estatuko funtzionaria izateko, baita enpresa pribatuan nahiz edozein ikasketa ziurtagiri eskuratzeko orduan ere. Salbuespena eskuratzaren zuten emakumeak hauek izan ohi ziren: amak; ezkonduak; Gerra Zibilean guraso edota anai-ahizparen bat galdu zutenak; eta, nola ez, lekaimeak.

1956 eta 1959 urte artean Andoaingo *Sección Femenina*-k bideraturiko hainbat txosten iritsi zaizkigu.

14. TAULA SALBUESPENA ESKATUA ZUTEN EMAKUMEEI BURUZKO TXOSTENAK.

IZENA- ABIZENAK	ADINA	GURASOEI BURUZKO DATUAK	SALBUESPEN ESKARIAREN ZIOA	SOLDATA
C. Z. O.	25	Jose Manuel eta Juanaren alaba. Aita zenduta.	Aitarena zen Koskaran baserrian laborari 14 urte zituenetik, amarekin eta ezkonahizparekin batera ustiatuz baserria, eguzkiz eguzkiko ordutegia duelarik.	Ez du.
M. B. E.	21	Migel eta Josefaren alaba.	On Joaquin Arratibel Oiartzabalen etxean neskametzeta lanetan, Kale Nagusiko 37. zenbakian, 1948ko ¹³⁷ martxotik 1956ko urria bitartean ¹³⁸ . Amaren gaixotasuna dela eta, neskametzeta laga eta etxeko lanetara itzuli da gurasoak eta anaiak zaintzeko ¹³⁹ .	400 pezeta hileko
M. L. O. O.	20	Pablo eta Paularen alaba.	On Joaquin Atorrasagasti Zubilagaren etxean neskametzeta lanetan, San Pedro kaleko Okindegi Berria izenarekin ezagutzen den etxean, 1952ko abendutik aurrera.	250 pezeta.

137 1956ko abenduko txostenean 1951 urtea aipatzen da

138 Txostena 1956ko urriaren 29koa da

139 1956ko abenduaren 21eko txosten berri batean, berezko izena Maria Julia dela esaten zaigu. Badirudi Sección Femenina-ko kidea dugula Maria Julia, "kamarada" izendatzen baitute agirian. Amaren gaixotasunak bere horretan jarraitzen zuela eta, gurasoenean jarraitzen omen zuen etxekolanetan

IZENA- ABIZENAK	ADINA	GURASOEI BURUZKO DATUAK	ALBUESPEN ESKARIAREN ZIOA	SOLDATA
M.C. M. ¹⁴⁰	27	Jose eta Vicentaren alaba. Huesca-ko Botaya herrian bizi dira gurasoak.	1946tik Francisco Mendikute andoaindarraren etxean zerbitzari, hots, Andoainera 16 urterekin iritsi zenetik. Anaia Legioko kidea zen eta frontean hilik suertatu zen.	300 pezeta hilabete bakoitzeko, gehi mantenua.
A. O.C.	30	Andres eta Lorenzaren alaba.	Aurkezten dituen ziurtagirien arabera, Ignacia Odriozola andrearen etxean aritu da zerbitzari 1953ko irailaren 11tik 1956ko azaroaren 20ra bitartean.	700 pezeta hilero, gehi 15 eguneko oporraldia ¹⁴¹ .
M. G. I.G.	24	Jose Maria eta Maria Concepcionen alaba, Kale Nagusiko 30.ean errolaturik ¹⁴² .	Hiru urtetik gora darama Zarautzko etxe partikular batean, neskametza lanetan.	Ez da ezagutzen datu hori.

Iturria: egileak moldatua artxiboko datuekin. A.U.A., AG 6/1 (1943-1961).

Gerra ondoko egoera Andoainen miseria eta gosearen menpeko gizartearena da. Ganzarain medikuaren aurrera hainbat andoaindar agertu ziren, gaixotasun ezberdinek behartuta. Medikua ziurtagiria ezin bestekoa zen errazionamendu-liburuxkan jasotzen ziren elikagai motak eta kopuruak gehitu nahi baziren. Emakume eta haurrak agertzen zaizkigu bereziki kaltetuak. 1939ko irailaren 30ean, biriketako minaren gaitzak jota, Ines S. emakumeari olio eta azukre kuota handitzen zaio. Urte bereko urria eta azaroan, hernia bat kentzeko operatu ondoren osatzeko beharra zela eta M.S. andereak eta bere alabak, biriketako gaitzak jotako A.M.A. emakumeak, haragi, olio eta azukre kopuru handiagoa jasotzeko baimena lortzen dute.

140 Deskribapen xelebrea eta esanguratsua ematen zaigu 1957ko urriaren 4ko txostenean: "No posee bienes y sus signos exteriores son los propios de una muchacha de servicio".

141 Txostena egiterakoan aipatzen denez, Donostiako Berruezo tabernan ari zen lanean 1956ko azaroaren 23tik aurrera. Lan horregatik 900 pezetako soldata jasotzen zuen eta araudiaren araberako oporraldiarekin. Txostenaren data 1958ko martxoak 24.

142 Gurasoen egoera ekonomikoaz aipamena txertatzen da: "...los ingresos de sus padres con (SIC) los corrientes de una familia obrera en esta localidad".

Haragi, olio eta azukrea ziren batez beste gabezia nabarmenenak eta, gaixoen artean emakumeak, gazteak zein zaharrak, edota ama txiroen haurtxoak. Aipatzen diren gaitzak: tuberkulosia, bronkitisa, pleuritis, nefrosisa, gutxiiegitasun hepaticoa...

Beste emakume batzuk, bularra emateko arazoa dela eta hurbilduko dira Ganza-rain doktorearengana. Normalean, umeontzako azukre kopurua gehitzeko agindua ematen zuen medikuak. Kasu guztiak ez zirenez parekoak, kopuru ezberdinak ikusi ahal izan ditugu. Normalean 50 gramo eguneko edota 1.500 gramo hilabeteko, bakoitzaren egoerak iradokita¹⁴³.

Emakumeek, frankismoan ere, patriotismo espainiarzalearen eta katolikotasunaren adibide sendoa eman behar zuten, beraz ez da harritzekoa diru bilketa guztietan hauen presentzia nabarmena izatea.

1937ko irailaren 8an Gurutze Gorriaren aldeko kuestazioa egin zen herrian, eta herriko neskatilla esanguratsuenek, hots, garai berriekin bat egiten zutenek egin zuten diru-bilketa. Zer esanik ez, errejimenaren aldeko neskatxa gazteak izanik, gaizki ikusia eta okerrago jasoa izaten zen neska hauen eskariari muzin egitea, herritarren kontrolaren beste tresna bat zelarik. Diru bilketan aritutakoak 18 neska gaztetxo izan ziren binakako 9 taldetan antolatutakoak eta lortutako diru kopuruari dagokionez, guztira 500,80 pezeta bildu ziren¹⁴⁴.

Egun gutxira, hau da, 1937ko irailaren 12an, tuberkulosiaren kontrako erietxeen aldeko diru bilketari ekin zitzaion, *Fiesta de la Flor pro Sanatorios Antituberculosos* deitzen zitzaion, Treku alkatearen bandoaren arabera¹⁴⁵:

“Esta Fiesta consiste en la recaudación de fondos para atender a los servicios que en Sanatorios y demás Centros se hallan establecidos para prevenir la tuberculosis y cuidar de los que se encuentran atacados de esta temible enfermedad.

Las instrucciones que esta Alcaldía ha recibido son de todo punto exhortantes al mayor esplendor de este día y a que la recaudación supere a todos los cálculos que hasta el presente se hayan podido prevenir.

A tal efecto se instalarán desde por la mañana las mesas petitorias en las puertas de las Iglesias y demás puntos que se estiman de mayor circulación. Estas mesas estarán presididas por distinguidas señoras de la localidad, y de la postulación se encargarán las señoritas que, como siempre, se han brindado desinteresadamente.

El pueblo de Andoain se hará perfecto cargo de la importancia que as atencio-nes a que se destinan tiene, y no se cree por tanto esta Alcaldía en la necesidad de lanzar exhortaciones en tal sentido, pues no duda que el vecindario responderá como siempre sabe hacerlo, demostrando a las Autoridades que se preocupa de los pobres

143 A.U.A., 24 H/4 (1939-1940), Osasuna. Gaixoeak beharrezkoa duten gainelikadurari buruzko osasun-ziurtagiriak.

144 A.U.A., 18 H/9 (1937-1940).

145 A.U.A., 18 H/8, 1937-1940).

enfermos atacados de esta terrible enfermedad y de la falta que se siente de poner en práctica cuantos medios sean conducentes a terminar con este grave mal que desgraciadamente viene arraigando en Guipúzcoa.

Las cuotas serán de 30 centimos como mínimun y nadie falte con su óvolo a engrosar esta humanitaria cuestión”.

Errejimena sentikorra zen bere alde bizia eman zuten gizonen alargunekin, nahiz seme alabekin. Eta diru laguntzak esleitu zizkien, garaitutako emakumeeei ez bezala. Pentsio horiei esker, edota negozio jakinak irekitzeko nahiz bestelako abantaila batzuk eskuratu ahal zituztelako, emakume hauen egoera pribilegiatua zela esan dezakegu. Andoainen gutxi batzuk ziren, emakume galtzaileekin alderatuta oso gutxi. Guk 8 emakume dokumentatu ditugu guztira¹⁴⁶.

4. ANDOAINGO EMAKUMEAK 50, 60 ETA 70. HAMARKADETAN.

Gerra Hotza izenarekin ezagutu zen garaian, Espainia Amerikako Estatu Batuen aliatu baliotsu bilakatu zen, eta Koreako Gerraren eraginez, 1946tik aurrera Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ezarritako zigorraldiaren amaiera hasi zen. 1950tik aurrera, diru-laguntzak jasotzen hasi zen Espainiako gobernua, eta horrek ekonomia autarkikoaren amaiera ekarri zuen, eta hortaz, ekonomiaren alorrean suspertze aro baten hasiera gauzatu zen.

Espainia Nazioarteko Diru Funtsean sartu zen, baita Munduko Banku zein Kooperazioarentzako eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen ere. Horren ondorioz, Egonkortze Plana jarriko zen martxan 1959an. Ekonomiaren garapenean bultzada eragingo zuten hainbat neurri jarri ziren martxan, hala nola, pezetaren balio-gutxitze garrantzitsu bati ekinez.

Industrializazioak bultzada berri bat jaso zuen, eta emakumeentzako lantokiko atea zabaldu ziren berriro ere. Baina hori bai, erregimenaren ideologiaren eraginez, emakume gazteak ezkondu eta berehala, joera nagusia lantokia utzi eta etxeko andre bilakatzeara zen. Horretara bideratzen ziren gizartearen zati handi baten presioak, nahiz ugazaba eta erakundeen sari ekonomikoak. Emakume hauek, etxeko andre izanik, eta amatasuna helburu nagusi izan arren, etxean etxerako zein kanpoko jendearentzako justun lanetan ibili zitezkeen, apopilotza ere diru-iturri baliogarria zen familiarentzat, batez ere, erositako etxe berria ordaintzen laguntzeko.

Haatik, emakumeen formakuntza aurreko garaiekin alderatuz, bultzada garrantzitsua jasoko zuen. Emakumeen ohiko lanak erizaina, idazkari edo bulegari, etabar. Bestelako lan batzuk, aurretik ikusiak ditugun tabernari, dendari, etabar.

¹⁴⁶ Detalle modura esan dezakegu, adibidez, guk aipatu ditugun emakumeak baino gehiago zeudela asiloan 1937ko urtarrilaren 25ean. Izan ere, 23 internoetatik 11 emakumezkoak ziren. A.U.A., 54 H/4 (1936-1937).



Emakumeak Labordeko tailerretan lanean, 50. urteko hamarkadan. Iturria: AUA, FL, 74XX01.

Azkeneko, Andoaingo egunerokoan bizitzen hasi ziren aldaketek, desfasea eragingo zuten erregimenaren oinarri ideologikoaren eta gizarte errearen artean. Gipuzkoako beste hainbat herritan gertatu bezala, aldaketa nabarmenak bizi izan zituen Andoainek frankismoaren azken hamarkadetan. Estatuan, leku batzutan gehiago beste batzuetan gutxiago, baina aldaketak geldiezinak ziren. Gizarte eta ekonomiaren arloko aldaketek zaharkituta utzi zuten emakumeari buruzko legeria. Ama eta emaztearen eredu, hau da, emakumearen eredu goitik behera aldatzen hasi zen, ikuspegi zaharkitua guztiz desagertzera iritsi ez bazen ere. Komunikabideak, baina baita turismoak eta, zer esanik ez, kontsumismoan oinarritzen hasiko zen ekonomia eta gizarte hartan, Andoaingo emakumeek bestelako emakume ereduak ikusi ahal izan zituzten.

Behar ekonomikoek eraginda, emakumeak lan arlo publikoan txertatzeko joera berri bati ekin zion. Erregimenak, karga ideologikoa alboratzen ikusi zuen, *Opus Dei* taldearen inguruko teknokratei gobernuko ministeritzak eskeiniz. Traba instituzionalak gaindituz, emakumeak gizarte publikoan geroz eta txertatuagoak ikusten ditugu garaiotan, lan merkatuan partehartze esanguratsua eskuratuz. Hori dela eta *Sección Femenina*-k proposaturiko proiektuaren haritik, emakumearen politika, lanbide eta eskubideei buruzko legea onartu zen 1961ean.

Lege horretan, emakumeak adin txikiko izateari uzten dio. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzen da arlo politiko, lan-arloan eta bestelako jardueretan. Orduetik aurrera, adibidez, emakumeek edozein kargu publikotarako hautagaitza

aurkeztu zezaketen adibidez, eta era berean, hautesle bilakatzen ziren. Emakumeak oposizioetara aurkeztu ahal zuten gizonen baldintza berberetan. Ikasketa maila guztiak zabaldu zitzaizkien, Zuzenbidea izan ezik. Indar armatuak ere itxita geratu ziren emakumeentzako.

Dena den, aurrerapausu ikaragarria zen lege berri hau. Lan arloan, emakumeek lan kontratuak eta hitzarmen kolektiboak negoziatu ahal zituzten, baita enpresa araei buruzko erabaketan parte hartuz. Generoa nahiz egoera zibila, ez ziren ikuspegi legal batetik behintzat, oztopo jadanik. Hala eta guztiz, indarrean zegoen Kode Zibilaren arabera, emakume ezkonduak ezinbestean senarraren baimena izan behar zuen lan egiteko, kontu bat irekitzeko edo senar-emazteen ondasunak administratzeko.

Eguneroko jardunak senar-emazte eta enpresaburu asko indarrean zegoen legeria kontuan ez hartzeraren eraman bazituen ere, egoera ez zen balio gabetu harik eta 1975eko maiatzaren 2an emakumearen politika, lanbide eta lan eskubideei buruzko legea onartu zen arte. Gorteetan, *Sección Femenina*-ko bozeramaileak lege berria defendatu zuen, baina bere oinarri ideologikoei leial izan nahian, gizon eta emakumeen funtzio ezberdinak defendatu zituen, nahiz eta legeak funtzio berdinetan eskubide berdinak aitortzen zizkien gizon-emakumeei. Legea ez zela feminista aldarrikatu zuen, eta bere zioa azaltzerakoan emakume kultoagoa, finagoa eta sentiberagoa lortzeko tresna moduan azaldu zuen, hau da, senarraren lagun hobe eta seme-alaben hezitzaile bikaina bilakatu zedin lortzeko tresna zela aldarrikatu zuen.

Kontuan izan behar dugu, ia 40 urte lehenago, 1975ean onartzen ziren aldaketak kontra altxatu zirenen erregimenaren azken arnasaren aurrean zegoela hizlaria. Modernizazio prozesuak eta garapen ekonomikoak behartuta, emakumea gizarteko arlo guztietan txertatzera behartzen zuen erregimena bizirauteko itzaropena bazuen behintzat. Premia ekonomikoek langilegoaren gehitzea eskatzen zuten, eta traba legalak desagertuarazi behar ziren bai ala bai. Emakume langileak beharrezkoak ziren, nahiz eta beren lanaren kalitate eta produktibitatea gutxiesten zen. Hori hein handi batean egia zen, emakume askoren kasuan behintzat, izan ere gizonezkoek baina heziketa murriztagoa baitzuten. Emakume asko eta asko zerbitzuen sektorean jarduten zuten, neskame lanetan, ostalaritzan, osasunaren arloan, hezkuntzan eta idazkari gisa. Ohikoa zen bezala, industrian ere langileak ziren, normalean gutxiengo soldatarekin eta lan arruntenak burutzen.

Egoera honek bazuen ere bere alde iluna, lana uzten zuten emakumeen senarrek puntuak lortzen baizituzten lantegian, eta lanagatik baino gehiago irabazi zezaketen puntu horiengatik. Hortaz, gizarteko sektore garrantzitsuak, erregimenaren aldekoak barne, gauzatzen ari ziren aldaketen kontrako indarra egiten jarraitu zuten. Egoera horretan, emakume askok "beltzean" eta kontraturik gabeko lanak nahiago zituzten; baina emakume batzuek, beren askatasun ekonomikoa eta protagonismo berriari eusteko saiakerak egin zituzten, eta hortaz, lantegian ezkontzeagatik eskeintzen

zitzaien sariari uko egiten zioten, trukean lana uztea baitzekarren. Emakumeek presio ikaragarriak jasaten zituzten, izan ere, lanean jarraitzen zuen emakumeak senarraren gizentasuna zalantzan jartzen zuela uste baitzuten askok, hau da, lan egiten zuen emakumeak aditzera eman zezakeen bere egoera horrekin, senarra ez zela gai familia bere lana eta soldatarekin soilik mantentzeko. Haurdun zeudenean, presio eta trabek emakume asko lan mundutik urruntzera eramaten zuten.

Arestian esan bezala, etxeko andreak, maiz, ez ziren etxeko lanetara edo senideak zaintzera mugatzen. Baserritarren kasuan, baratza edota abereak, edo hiriguneko beste emakume batzuk bezala, familia negoziotetan, zerbitzuen sektorean aritzen baitziren. Amonaren bat edo familiako beste emakumeren bat ez bazegoen, normalean senarrak etzuen etxeko lanetan laguntzen 50, 60 eta 70ko hamarkadetan. Higienea, elikadura, arropa eta antzeko erosketak edo diru-kudeaketa txikiak emakumeen esku geratzen ziren. Erabaki garrantzitsuak, hau da, erosketak garestiak (etxea, kotxea,...) gizonaren partehartzerik gabe ezin zituen emakumeak aurrera eraman.

Haurrak eta adindiak emakumearen zaintzapean geratu ziren, historikoki funtzioa garrantzitsua izan da hau giza-komunitateen garapenean. Baina garaiotan, ardura hori eta bestelako etxeko lanak garrantzia gutxikotzat hartzen ziren.

4.1. Andoingo herriaren eraldaketa prozesua.

Andoain 1950ean zituen 4.647 biztanleetatik 1969ko 9.548 biztanleetara pasatu zen. Hazkunde demografiko honek, eragin ikaragarria izan zuen hirigintzan, industrian, ekonomian, soziologian eta kulturaren. Oinarritzakoena, etorkinentzako eta herriaren berezko hazkunde demografikoarentzako etxebizitza berriak eraiki behar ziren, eta nola ez, infraestrututa eta zerbitzu berriak martxan jarri¹⁴⁷.

1955ean, jatorri ez euskalduneko etorkinen kopurua %9,86 zen, eta 1975ean berriz, %34,30era igo zen. Andoingo gazteen etxe arazoak ere eraikuntza berrien sustapena bultzatu zuen. Horrela sortu zen Alkartasuna kooperatiba 1967 urtean, merkatuko salneurriak saiestu eta auzolanean etxebizitza erosoak eraikitzeko asmoz. 6 eraikin, 88 etxebizitza, gaur egungo Alkartasuna kalearen jatorria izan ziren. Prezioen merkealdia %30koa izan zen etxe hauen kasuan, beti ere, ekimen pribatuaren salneurriekin alderatuz. Arrakasta ikusirik, Olagain auzunean beste 116 etxebizitza eraiki zituen kooperatibak, Gurutze Santuaren Etxe-taldea izenarekin¹⁴⁸.

147 URRUTIA OCHOA, Peio: "Doce mil tres: apuntes para el final de una década (Andoain, 1966-1970)", *Leyçaur*, 11, 2010, 295-416 or.

148 *Andoain. Bere kale eta plazetan barrena / Andoain. Por sus calles y plazas*, 2, Andoingo Udala. Kultura Batzordea, Andoain, 2010, 8-9 or.

4.2. Andoaingo emakumeen lanbideei buruzko zenbait datu.

Andoaingo Udalak herriko jaiak zirela eta argitaratzen zuen liburuxkak emakumeen lanbide eta protagonismo sozialaren berri ematen digu, merkataritzari dagokionean behintzat. Izan ere, Andoaingo gizonetzkoen negoziokoak ikusirik, argi geratzen baitzaigu lan arloan sexuen arteko bereizketa nahiko nabarmena dela.

1946an harategiak, ardo biltegiak, zerealen biltegiak, janaridendak, xehekako ehun denda, garraioak, farmazia eta drogeria, Leizaurreko lantegi mekanikoa, okindegia, igeltserotza, burdindegia ditugu gizonetzkoen eskuetan. Horiei fabrika handietako ugazaba eta kudeatzaileak gehitu beharko genieke.

Emakumeen artean, aldiz, Sebastiana Leizeagak Kale Nagusiko 8. zenbakian taberna eta janaridenda duela ikusten dugu. Antonio Olanoren alargunak ere janaridenda zeukan eta ehunak ere saltzen zituen; baita San Pedro 8 kaleko Gertrudis Ruiz de Larrinaga eta Kale Nagusia 36ko Ildefonso Irazuren alargunak. Deruque Ahizpek negozio oso femeninotzat hartzen den jantzigintza akademia dute jostuntzadendarekin batera Kale Nagusiko 6 zenbakian. Jostundegia zuen ere Dorita Segurolak. Zumea kaleko 14.ean, Manolita Aizpuruak taberna zeukan, gazte jendearen bilgune omen zena. Janaridenda, goxokidenda eta karameloak Zumea kaleko 11.ean saltzen zituen Delfina Zatarainek. San Pedro kaleko 21.ean Lasartenea jatetxean Maria Antonia Garmendia aritzen zen, eta eraikin berdinean ahizpa Paquitak ileapaindegia emakumeentzako¹⁴⁹.

1947an, Erro ahizpen jostundegia, janaridenda eta lurrundenda agertzen zaigu. Amantegi ahizpek puntu-lanak, jantzigintza eta galtzerdi konponketa eskeintzen dute beren jostuntzadendan, Kale Nagusiko 50. zenbakian. Maria Pilar Iturralde jostuntzadenda eta umeentzako arropen nahiz bestelako broderiazko jantzigintzan espezializazioa eskeintzen du. Carmen Alcacera emagina eta erditze irakaslea, bere senar erizainarekin batera Kale Nagusiko 30.ean¹⁵⁰.

Ikusten denez, emakumeek gizonak baino presentzia gutxiago izango dute "ofizialki", izan ere dendariaren atzetik askotan laguntzaile, emazte edo alabaren bat egon ohi bahitzen, batez ere lan asko zuten negozioetan (janaridenda handiak, jatetxeak, lantegiak, ...). Baina esanguratsuena, gure kasuan, Udalak bizitu zuen aldaketa. Izan ere, ohikoak ziren alargunentzako diru-laguntzak jasotzen zituzten emakumeak¹⁵¹ eta garbiketara dedikatzen ziren.

149 A.U.A., 16/1. *Fiestas Patronales de Andoain*, 1946.

150 A.U.A., 16/1. *Fiestas Patronales de Andoain*, 1947.

151 A.U.A., 225/12 (1957). Jesus Okiñena Erro albatariaren emazte zen Maria Mercedes Perello Berazaren kasua zen hori. A.U.A., 225/10 (1973-1975). Udal-irakasle izan zen Ignacio Tolosa San Sebastianen alarguna zen Maria Ramona Aiestaran Lizarragak eskatu zuen, adibidez, Udalaren diru-laguntza ohikoa zen bezala.

Aldiz, 60. hamarkadaren amaierarekin bestelako lanak desagertzen hasi zirela ikusi-ko dugu, hala nola, garbitzaileak labadoreen arrakastari esker, mandatariak telefonoaren zabaltze prozesuaren ondorioz, esneketariak, etabar. Andoainen kasuan, badakigu 1955 urtetik aurrera, labadorak saltzeko denda bat bazegoela gutxienez Andoainen, Zumea kaleko 12. zenbakian Secundino Etxeberriak saltzen zituen, emakumeei zuzendutako iragarkiak erabiliz¹⁵².

14. TAULA
JAIETAN IRAGARRITAKO NEGOZIOETAN EMAKUMEZKOEN KOPURUAK.

URTEA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	EZ DA ESATEN	GUZTIRA
1944	7	48	25	80
1945	4	36	28	68
1952	10 ¹⁵³	34	30	74

Iturria: egileak moldatuta artxiboko datuak erabiliz. A.U.A., 16/1

Ideologia eta egoera ekonomikoa sendotzen hasiak ziren garai horretan eta emakumeek beren identitatearen parte garrantzitsu bezala etxekoandrearena osatuko zuten. 50 eta 60. hamarkadetan garai bateko lanbide zaharretan aritzen ziren emakumeen alabak "neskatxak" izango ziren aurrerantzean, etxeko lanetan edota asko jota ezkondu bitartean sendiaren negozioetan lanean, adibidez, bulegoetan lan administratiiboak egiten. Ikuzle lanbidea desagertutzat eman dezakegu 1965 urte inguruan ikuzle automatikoak ugaritu ahala. Garraio bideen modernizazioak eta hirigintzaren garapenak apopilo-etxeen murriztea ekarriko zuen ere.

Emakume gazte hauek, espazio publikoa lagako dute ezkondukoan, lantegiak, komertzioak, e.a., eta aurrerantzean emakume horiek espazio pribatura mugatuko dira, eta emakume aurreztailearen baloreak azaleratuko dira, hain zuzen ere, Falangek urte urte eskoletan erakutsitako emakumearen izaera gailentzen delarik, eta aurrerantzean beraz, emakumeak etxeko lanez gain, bestelako lanik egitekotan etxean bertan, dela fabriketako lanenbat e.a., senarraren soldataren osagarri gisa hartuko dute. Azpiko lan andana sortuko da enpresen inguruan, emakumeek ekoizturiko kopuru bakoitzeko

152 A.U.A. 16/2 (1955-1978). 1955eko Santa Kruz jaien egitaraguarekin argitaratu zen liburuxkan, adibidez, iragar-kiak honela zioen: "¡Señora, un consejo! No compre su lavadora sin antes visitarnos".

153 Emagina eta senarrak iragarki mistoa kontratatzen dute, bien negozioak iragarri.



Emakumeak Laborden lanean, askok eskontzean utziko zuten lana. Iturria: AUA, FL, 1555XX01.

kobratuko dutelarik; diru-sarrera hori ez da inon islaturik egongo, ez ditu inork aseguratuko, eta etxe barruan ekingo diote lanari, lantegietako ekoizpenetik nahiz merkataritza arlotik banaturik. Lantegiek irabazi handiak eskuratuko dituzte sistema honekin, eta Erregimenak bere helburu politikoa asetuzat emango du.

Era berean, gizonetako beren soldaten igoerari esker, etxeko ekonomia bermatzeko gaitasuna izango dute, beren kabuz eta emakumearen laguntzarik gabe. Hartara, gizon hauen maskulinitatea indartuta irteten da, emakumezkoa etxekoandre soila izanik, kanpoko lanak behar moduan ikusiak baitira¹⁵⁴.

Estatuak aurrezte bultzatzen du ideia garrantzitsu gisa, eta etxe-barrutian ekonomiak familiaburuaren inguruan jirutzen duenez, gizon-emakume hauen irudizkoan aurrezte senarraren soldatarekiko neurtzen da. Hortaz, harrotasun osoz esango dute emakumeek senarraren soldata aurreztu dutela. Emakume aurrezleak dira, desarrollismoak bultzatzen duen aurrezte eta kontsumoaren dinamikan bete betean sartuak diren emakumeak.

154 NASH, Mary: *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*, Alianza Ensayo, Madrid, 2004, 32 or.

Era berean emakume hauen lana akigarria izanen da; haatik, imaginario sozialean etxeandrearen sinonimoa izango da etxebarruko bizitza goxoa. Langileriak beretzat hartuko du familia burgesaren eredu. Familien kide kopurua murrizten da, ezkonberriek eta beren seme-alabek osatuko dituzte aurrerantzean langileen familia berriak¹⁵⁵.

5. ONDORIOAK.

Ikerketa hau planteatu genuenean, gure helburuak askoz zabalagoak ziren. Andoain-go emakumeen lanbide eta protagonismo soziala ikertzeko adina material dagoela ikusi ahal izan dugu. Beharrezkoa duen sakontasunarekin landu beharreko gaia dela ikusi ahal izan dugu. Izan ere, emakumeen memoria eta historia berreskuratzeko lanari ekiten zaionean, ikerlariak ez daki zehazki zein iturri eta zein metodologia izango zaizkion baliagarrien.

Andoaingo Artxiboa zentzu horretan oso emankorra izan da guretzako, emakume ugariren izenak berreskuratu ahal izan ditugulako eta eguneroko bizitzan zuten garrantzia argi geratu zaigulako. Tamalez, gure ikerketa artikulu batera mugatu behar izanek ondorioak eta emaitzak baldintzatzen ditu.

Frankismoaren azken urteetako errealitatea ezagutzeko iturri egokiena ahozko iturriak direla baieztatu dugu. Dokumentazio ofizialean emakumeak, frankismoan bereziki, pisu eskasa du eta horrek emakumeen ogibide, lanbide eta protagonismo soziala sakontasunean ezagutzeko traba izanik, egunerokotasunean mugitzen ziren andoaindar emakumeen aniztasuna eta baita ezaugarri eta baloreak ez jasotzea suposatzen du.

Etorkizunerako hainbat ikerketa bide irekitzen direla uste dugu. Teresa del Valle dioen moduan, emakumeak izen abizenekin aipatzea, memoria berreskuratzea da, justizia sozialarekin zer ikusi handia duen ariketa intelektuala.

Andoaingo emakumeen izen sorta bat mahai gaineratu dugu, beraien datu eta ezaugarri batzuk azalduz. Hortik aurrera etor litezken sakontze lanak oso interesgarriak izango direlakoan gaude. Izan ere, harreman familiarrak, sozialak eta politikoak askotarikoak izan zirela dirudi.

Artikulu hau beraz ez da helmuga, geltoki bat baizik. Aurrerantzean behar bezala ikertu gabeko hainbat gaietan sakontzeko asmoa baitugu. Bitartean, hemen Andoaingo historiari egin izan nahi diogun aportazio xumea.

155 ARBAIZA, Mercedes: "A proposito de la familia moderna en el País Vasco", CAPISTEGUI, F.G., y LARRAZA, M.M. (ed.): *Modernización, desarrollo económico y transformación social en el País Vasco y Navarra*. Ediciones Garrote, 2003, 65-88 or.

6. ITURRIAK.

6.1. Iturri dokumentalak.

- Andoaingo Udal Agiritegiko agiriak eta signaturak:
- A.U.A., 4 H/11, 1899-1940.
- A.U.A., 7 H/2, 1936.
- A.U.A., 14 H/8, 1910-1939.
- A.U.A., 14 H/9, 1927 – 1939.
- A.U.A., 16.1, 1946-1957.
- A.U.A., 16.2, 1955-1978.
- A.U.A., 18 H/4, 1894-1933.
- A.U.A., 18 H/8, 1937-1940.
- A.U.A., 18 H/9, 1937-1940.
- A.U.A., 20 H/7, 1907-1936.
- A.U.A., 21 H/1 (T), 1922-1924.
- A.U.A., 24 H/1, 1934.
- A.U.A., 24 H/4, 1939-1940.
- A.U.A., 24 H/5, 1902-1940.
- A.U.A., 29 H/5, 1880 - 1940
- A.U.A., 33 H/4, 1858-1939.
- A.U.A., 35 H/1, 1885-1940.
- A.U.A., 37 H/5, 1920-1929.
- A.U.A., 37 H/11, 1896-1924.
- A.U.A., 38 H/2, 1934-1938.
- A.U.A., 38 H/9, 1896 – 1906.
- A.U.A., 38 H/10, 1911.
- A.U.A., 38 H/11, 1919.
- A.U.A., 38 H/12, 1918-1919.
- A.U.A., 38 H/17 (T), 1923-1925.
- A.U.A., 39 H/2, 1920.
- A.U.A., 39 H/4, 1900-1924.
- A.U.A., 39 H/9, 1901-1923.

- A.U.A., 40 H/1 (T), 1925 – 1934.
- A.U.A., 40 H/3, 1927 – 1933.
- A.U.A., 40 H/12, 1895-1927.
- A.U.A., 40 H/20 (T), 1892 – 1893.
- A.U.A., 49 H/1, 1895-1937.
- A.U.A., 54 H/4, 1936-1937.
- A.U.A., 54 H/7, 1932.
- A.U.A., 68 H/2 (T), 1905 – 1909.
- A.U.A., 68 H/15 (T), 1917.
- A.U.A., 68H/16. 1912 -1939.
- A.U.A., 68 H/17 (T), 1917.
- A.U.A., 71 H/1 (T), 1925-1933.
- A.U.A., 147 H, 1925.
- A.U.A., 218/17, 1969-1974.
- A.U.A., 222/1, 1969.
- A.U.A., 222/2, 1972.
- A.U.A., 222/5, 1973.
- A.U.A., 225/10, 1973-1975.
- A.U.A., 225/12, 1957.
- A.U.A., 226 H/13, 1914.
- A.U.A., 226 H/19, 1918.
- A.U.A., 233 H/1, 1901 – 1928.
- A.U.A., 235 H/2, 1916-1931.
- A.U.A., 235 H/5, 1933-1936.
- A.U.A., 237 H/2, 1882.
- A.U.A., 237 H/3, 1883.
- A.U.A., 237 H/6, 1882 – 1893.
- A.U.A., 237 H/8, 1902.
- A.U.A., 237 H/10, 1923.
- A.U.A., 237 H/13, 1923.
- A.U.A., 244 H/3, 1912-1914.

- A.U.A., 244 H/12, 1921.
- A.U.A., 245 H/16, 1936-1937.
- A.U.A., AG 6/1, 1943-1961.
- A.U.A., AG 218/43, 1969-1980.
- A.U.A., AG 218/44, 1966-1979.
- A.U.A., 1619/9, 1974.

6.2. Bibliografia.

- AGIRRE, A.: *Arrasateko emakumeak XX. Mendean*. Arrasate, Arrasateko Udala, 2002.
- AGUIRRE LEIZEAGA, Iñaki: *Crónica a modo de historia del Colegio Madre Cándida: (Hijas de Jesús, Berrozpe, Andoain 1940-1990)*. Andoain, Andoaingo Udala, 2010.
- AGUADO, A.: *La modernización de España (1917-1939): Cultura y vida cotidiana*. Madrid: Síntesis, 2002.
- AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Oria: Bizitzako erkidegoa, laneko eremua*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala, 2007.
- AIAPE ARBE, A.: *Gernikar emakumeak XX. Mendean: ahotsak eta bizipenak*. Gernika-Lumo, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Gernikako Udala, 2006.
- AMUATEGUI, Teresa: *Urrietako etxe eta baserriak*. Urnieta: Urrietako Udala, 1998.
Andoain. Bere kale eta plazetan barrena, 2 zenb., Andoaingo Udala. Kultura Batzordea, 2010.
- APAOLAZA, U. "1936ko guerra Hernanin", *Hernani* 2003ko urtekaria XI.zenb, 128/13. Hernani: Hernaniko Udala, 2003.
- ARANDA, O.; ASTARLOA, A; CARRASCOA, J.: *Ostarletsen zeregina Ermuan. Etxeko lanaren garrantzia ekoizpen prozesuen barruan*. Ermuam Ermuko Udala, Emakumezkoen Aukera Berdintasunerako Saila, 2000.
- ARBAIZA, Mercedes: "A propósito de la familia moderna en el País Vasco", APISTEGUI, F.G., y LARRAZA, M.M. (ed.): *Modernización, desarrollo económico y transformación social en el País Vasco y Navarra*. Ediciones Garrote, 2003, 65-88 or.
- ARREGI ARAMBURU, Rikardo: *Aspectos de la vida e historia de Andoain*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal, 1970.
- *Atzoko Andoain eta andoaindarrak*. 8.zenb. Ed. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, 1999.
- BABIANO MORA, José (ed.): *Del hogar a la huelga :trabajo, género y movimiento obrero durante el franquismo*. Madrid, Los libros de la Catarata, 2007.
- BARCENILLA, Miguel Angel: *La mujer en Euskal Herria: hacia un feminismo propio*. Donostia: Basandere, 2001.
- BECK, E.; et al. *Mujeres y transformaciones sociales*. Esplugues de Llobregat: El Roure, 2001.

- BENERÍA, L.: *Mujer, economía y patriarcado durante la España franquista*. Barcelona: Anagrama, 1997.
- BENGOTXEA, Javier: “La incorporación de Andoain al moderno proceso de industrialización. Apuntes de una evolución 1850-1925”, *Leyçaur*, 1, 1990.
- BERRIOCHOA AZCARATE, Pedro: “Nekazaritza mundua XIX-XX.eko mende aldaketan”. *Leyçaur*, 11, 113-230. or.
- BORREGUERO, C.; CATENA, E.; DE LA GÁNDARA, C.; SALAS, M.: *La mujer española de la tradición a la modernidad (1960-1980)*. Madrid: Tecnos, 1986.
- BORDERÍAS, Cristina: *Entre líneas: trabajo e identidad femenina en la España contemporánea: la Compañía Telefónica, 1924-1980*. Barcelona: Icaria, 1993.
- ÍDEM: “Subjetividad y cambio social en las historias de vida de las mujeres: notas sobre el método biográfico”, *Arenal*, vol.4, 2, 1997, 177-195 or.
- BORDERÍAS, C.; CARRASCO, C. ALEMANY, C.: *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*. Barcelona: Icaria, 1994.
- BOTT, Elizabeth, *Familia y red social*, Madrid, Taurus, 1990.
- BRANCAS, M.: *Bilboko emakumezkoen aintzinako lanbideak*. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, 1998.
- BUXO, M.J.: *Las mujeres en la historia de España*. Barcelona: Planeta, 1986.
- CABRÉ I PAIRET, M. (Ed.). *Sanadoras, matronas y médicas en Europa: siglos XII-XX*. Barcelona: Icaria, 2001.
- CAMPOS SANTACANA, Miren Koro; RODRÍGUEZ ZAMARREÑO, Laura: *Emakume donostiarrek XIX. eta XX. mendeetan bete zuten eginkizuna = El papel de las mujeres donostiaras en los siglos XIX y XX*. Donostia-San Sebastián: Emakumearen Ordezkaritza = Concejalía de la Mujer, 2000.
- CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*. Madrid: Siglo XXI de España; Leioa: Servicio Editorial, Universidad del País Vasco, 1987.
- COLEGIO OFICIAL DE ENFERMERÍA DE GUIPÚZCOA. “Practicantes, matronas y enfermeras: 1904-2004”.
- CAMPO, M.: *La mujer en España; cien años de su historia 1860-1960*. Madrid: Aguilar, 1963.
- CAMPOS LUQUE, C.; GONZALEZ CASTILLEJO, Mª J (Coord.). *Mujeres y dictaduras en Europa y América: el largo camino*. Málaga: Atenea-Universidad de Málaga, 1996.
- CAPEL MARTINEZ, R.Mª.: *El trabajo y la educación de la mujer en España 1900-1930*. Madrid: Instituto de la Mujer, 1986.
- COMÁS, D.: *Trabajo, género y cultura: la construcción de desigualdades entre hombres y mujeres*. Barcelona: Icaria, 1995.
- DEL VALLE, T. (Dir.): *Mujer vasca, imagen y realidad*. Barcelona: Anthropos, 1985.
- ÍDEM.: *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*. Donostia: Biblioteca Egin, 1996.

- ÍDEM.: *Emakumeak Euskal Herrian (erresistentziak eta ohiturak)*. Donostia: Editorial Gaiak, 2001.
- ÍDEM.: *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*, Madrid, Narcea, 2002.
- DÍAZ, F.: *La vida cotidiana en la España de la Guerra Civil*. Madrid: Edaf, 1994.
- DÍAZ, L.: *Un siglo en la vida de España: ocio y vida cotidiana en el siglo XX*. Barcelona: Lonwerg, 2001.
- DÍEZ, C.: *Relaciones de género en Donostialdea y en la Ribera de Navarra. Actividad laboral y cambio*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1993.
- DÍEZ, C.: "Sistema de género, desigualdad e identidad nacional", ALBITE, P. (coord.): *Sociedad Vasca y Construcción Nacional*. Gakoa, 1999.
- DUBY, G.; PERROT, M. (Dir):. *Historia de las mujeres. El siglo XX*. Madrid: Taurus, 1993.
- ERDOCIA ANSO, Araceli: *Altsasuko Emakumeak. Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia = Mujeres de Altsasu. Veinte años de Vida, Veinte años de Historia*. Colección Lankidetzan Bilduma, 38. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2006.
- ETXANIZ MAKAZAGA, José Manuel: *De herradores, albéitares y veterinarios de Andoain*. Donostia-San Sebastián: Ilustre Colegio Oficial de Veterinarios de Gipuzkoa, 2009.
- FERNÁNDEZ, S; RODA, P. (coord.): *Ellas. Las mujeres en la historia de Pamplona*. Iruñea, Ayuntamiento de Iruña, 1998.
- FOLGUERA, P. (bil.): *Otras visiones de España*. Madrid, Pablo Iglesias Editorial, 1993.
- ÍDEM: *Cómo se hace la historia oral*. Madrid: Eudema, 1994.
- ÍDEM: "El franquismo. El retorno a la esfera privada (1939-1975)", *Historia de las mujeres en España*. Síntesis, 1998.
- FRAISSE, Geneviève: *Los dos gobiernos: la familia y la ciudad*, Madrid, Cátedra, 2001.
- GALLEGU, M^a T.: *Mujer, Falange y franquismo*. Madrid, Taurus, 1983.
- GARCÍA, R. "Mercado de trabajo y estrategias familiares en las mujeres durante la primera industrialización vizcaína: el hospedaje", *Vasconia*. Cuadernos de Historia y Geografía, N^o 28. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999.
- GARRIDO, Luis M., *La doble biografía de la mujer española*, Madrid, Instituto de la Mujer-MTAS, 1992.
- GARRIDO GONZÁLEZ, E. (edit.): *Historia de las mujeres en España*. Madrid, Síntesis, 1997.
- GONZÁLEZ ABRISKETA, Olatz: *Pelota Vasca: Un ritual, una estética*. Bilbao, Muelle de Urribarte, 2006.
- GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, Fátima; MARTÍNEZ LASA, Mónica: *Mujeres de la Algodonera, 1857-1965 – Algodonerako emakumeak, 1857-1965*. Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua-Gipuzkoako Foru Aldundia; Hezkuntza eta Kultura Lansaila, eta Gizarte Zerbitzuetarako Lansaila-Andoaingo Udala; eta, Andoaingo Udalerrri Biltzarra-Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Andoain, 2007.

- GONZÁLEZ, P.: *El trabajo de las mujeres a través de la historia*. Madrid, Instituto de la Mujer, 1992.
- GOROSPE, B.: *Crónica de las mujeres de Hernani 1940-1980. Estudio sobre la aportación de las mujeres de Hernani a la reconstrucción del movimiento obrero organizado de 1940-1980*, VV. AA.: Emakumeak Euskal Herriko Historian. Bilbao, IPES, 1997.
- HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren: *Euskara, comunidad e identidad: elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Secretaría General Técnica, Subdirección General de Publicaciones, Información y Documentación, 2007.
- IBARRURI, Dolores: *Memorias*, Planeta, Barcelona, 1985.
- IMAZ, Elixabete: *Convertirse en madre. Etnografía del tiempo de gestación*. Madrid: Ediciones Cátedra (Grupo Anaya, S.A.), 2010.
- IMAZ, Iñigo: *Urnietako emakumeak XX. Mendean = Mujeres de Urnieta en el siglo XX*. Donostia: Urnietako Udala-Eusko Ikaskuntza, 2011.
- ÍDEM: "La inmigración en Rentería durante la segunda mitad del siglo XX". In: *Congreso Internacional de Historia sobre Fuentes Orales y Visuales. Investigación histórica y renovación pedagógica (Pamplona, 7,8 y 9 de septiembre de 2005)*. CD argitalpena (ISBN: 84-9769-100-8). Geronimo de Ustariz Institutua-Federación Icaria-Seminario de Fuentes Orales (Universidad Complutense de Madrid)-Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005.
- INTXAURRAGA, K.; et al.: *Las mujeres rurales de la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Gasteiz: Emakunde, 1994.
- JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI CORTA, Luis María y Juan Carlos: *La guerra en Euskadi* (3ª ed. rev. y amp.). Andoain: Txertoa, 2007.
- JULIANO, D.: *Emakumeak Euskal Herriko Historian*. Bilbao: IPES, 1997.
- LASA BERGARA, Xabier: *La Salle-Berrozpe, 1945-1995. 50 urte bizirik. ...Herriaren zerbitzuan*, Lasalle-Berrozpe, Andoain, 1996.
- ÍDEM: *Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa: Gerra Zibilaren (1936-1939) eragina Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean*. Andoain: Askatasunaren alde eta Frankismoaren aurka borrokatu zutenak oroituz, 2006.
- ÍDEM: *Gerra Zibila andoaindarraren begietatik*. Andoain: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, 1994.
- LASQUIBAR, Constantino: *Andoain, sus hijos ilustres y bienhechores. Apuntes históricos*. Talleres Tipográficos de F. Ezquiaga. Beasain, 1937.
- LLONA, Miren.: *Entre señoritas y garçone: historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Málaga, Universidad de Málaga, 2002.
- LOZA SERRANO, Silvia et al.: *Historia de las mujeres en Irún (1931-1992)*. Irun, Irungo Udala, 2011.
- LUENGO TEIXIDOR, F.: "La participación de la mujer en la conflictividad social. Guipúzcoa 1900-1936", *Cuadernos de sección, Historia Contemporánea*, 18, 1991.

- MACDOWELL, L.: *Genero, identidad y lugar: un estudio de las geografías feministas*. Madrid: Cátedra, 2000.
- MANGINI, S.: *Recuerdos de la resistencia: la voz de las mujeres de la guerra civil española*. Barcelona: Península, 1997.
- MARTI, J.: *La España del estraperlo (1936-1952)*. Barcelona: Planeta, 1995.
- MAULEON, J.R.: *Estrategias familiares, cambios productivos del caserío vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza, 1998.
- MENDIOLA GONZALO, F.: *Emakumeen enplegua Iruñean (1840-1996)*. Iruñea, Huarte de San Juan, 5,1998.
- MIGUEL, A. de.: *La vida cotidiana de los españoles en el siglo XX*. Barcelona: Planeta, 2001.
- MONTERO, M.: *Vida cotidiana en los siglos XIX y XX: trabajo, amor, diversión, modas, delitos, corrupción política*. Donostia, Txertoa, 1997.
- MURILLO, S.: *El mito de la vida privada: de la entrega al tiempo propio*. Madrid, Siglo XXI, 1996.
- NASH, M.: *Mujer, familia y trabajo en España (1875-1986)*. Barcelona: Anthropos, 1983.
- NICHOLSON GOROSTIAGA, Amaia; GOITISOLO ZUMARAN, Leire: *Atzoko hitzak josten. Elorrioko historia emakumeen ahotik*. Donostia, Elorrioko Udala, 2011.
- OTAEGI OLANO, Joxe; OTAEGI NEGREDO, Karmele: "Guraso maiteak. Itzuliko ez zen soldadu batek frontetik bidalitako gutunak", *Leyçaur* 8, 2004, 263-287 or.
- PÉREZ-FUENTES HERNÁNDEZ, P.: *"Ganadores de pan" y "amas de casa": otra mirada sobre la industrialización vasca*. Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial, 2004.
- RINCÓN, A.: *Transformaciones en el papel social de las mujeres: análisis cualitativo en Euskadi*. Gasteiz, Emakunde, 1995.
- ROSE, Sonya O.: *¿Qué es historia de género?* Madrid, Alianza, 2012.
- RUIZ FRANCO, M^a R.: "Nuevos horizontes para las mujeres en los años 60: la ley de 22 de julio de 1961", *Arenal* 2, 1995; págs. 247-268.
- SABATE, A. et al.: *Mujeres, espacio y sociedad: hacia una geografía de género*. Madrid, Síntesis, 1995.
- SÁNCHEZ LÓPEZ, R.: *Mujer española una sombra de destino en lo universal. Trayectoria histórica de Sección Femenina de Falange (1934-1977)*. Murcia, Universidad de Murcia, 1990.
- SEGURA GRAIÑO, M^a D.: *La voz del silencio II. Fuentes directas para la Historia de las mujeres: compromiso y método*. Madrid, A.C. Al-Mudayna/Laya, 1993.
- STÜRTZE, A.: *Emakumeak XX. mendeko historian*. Donostia, Gaiak, 2002.
- TATAVULL, B.: "Vida rural y urbana en la villa y término de Hernani", *Estudios Geográficos*. Instituto Juan Sebastián Elcano, 1963.
- TELLABIDE AZKOLAIN, Josu: *Usurbilgo baserriak eta baserritarrak*. Usurbil, Noaua! Kultur Elkarte, 2004.

- THUREN, Britt-Marie: “La crítica feminista y la antropología: una relación incómoda y fructífera”, *Ankulegi*, 12, 2008, 97-114 or.
- ÍDEM: *El poder generizado. El desarrollo de la antropología feminista*, Madrid, Instituto de Investigaciones Feministas/Universidad Complutense de Madrid. 1993.
- UGALDE, M.: *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza*. Bilbo: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1993.
- URIBE-ETXEBARRIA FLORES, A.: *Marginalidad “protegida”: mujeres y niños abandonados en Navarra 1890-1930*. Bilbao, Universidad del País Vasco, 1996.
- URQUIJO ARREGUI, Miren Begoña: *Escenificaciones de cultura económica y género en el espacio agroturístico vasco. El caso de Tolosaldea (Gipuzkoa)*. Bilbao: Universidad del País Vasco, 2011.
- URRUTIA OCHOA, Peio: “Doce mil tres: apuntes para el final de una década (Andoain, 1966-1970)”, *Leyçaur*, 11, 2010, 295-416 or.
- VALLE, Teresa del (zuz.): *Mujer vasca. Imagen y realidad*, Anthropos, Barcelona, 1985.
- VARELA, Julia: *Mujeres con voz propia: Carmen Baroja y Nessi, Zenobia Camprubí Aymar y María Teresa León Goyri*. Madrid, Morata, 2011.
- VV.AA. *Las mujeres y la Guerra Civil Española*. Madrid, Ministerio de Cultura, 1991.
- VV. AA.: *Historia general de Asturias*, tomo IX, La Guerra Civil. Editor Silverio Cañada. Gijón, 1978.